



Omenduak. | JOKIN BEREZIARTUA

Tango erakustaldia Aretxabaletan, bertako tango taldearen eskutik | 23



Greba orokorra egitera deitu du Gune plataformak | 2



'Berria'-ren 10. urteurrenean, bihar Bizardunak taldea Elgetan | 33



HISTORIA EGIN DUTE SASKIBALOIAN

Natra Oñatik igoera fasea jokatu du Extremaduran gaurtik domekara arte. LEB maila dute helburu eta lehen partiduan Estudiantes izango dute aurrez aurre | 28

Natra Oñatiko jokariak, eguazteneko entrenamenduaren ostean.

MIREIA BIKUNA

SINADURAK

Oztopoak igaro beharra | 6
IBAN PEREZ

6 | Zorte on, Mondra!
GOIATZ ARANA

Lana eta plazera | 40
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

"Orain ere, kapitalismoak ez dauka sistema alternatiborik; eraikitzen goaz pixkanaka"

Arcadi Oliveres

Ekonomialaria | 8



Bazkideen seme-alabek bazkide izaera izaten segituko dute, Fagorren

Atzo, eguna, erabaki zuten Fagor Taldeko batzarrean | 4

943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK
www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Alternatiba eraikitzen hasi nahi du Gunek greba egunean

- ▶ Greba orokorra egitera deitu du Gune plataformak
- ▶ Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna izango da greba horren ardatza; bihar aurkeztuko dute berau

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bi greba egun bizi izango dira Gipuzkoan eta Debagoienean, aste bateko epean: gaur, hilak 24, metal sektoreko greba izango da, eta datorren egunean, hilak 30, Hego Euskal Herrian Gune plataformak deitu duen greba orokorra. Euskal sindikatu nagusiak, CCOO eta UGT izan ezik, eta 50 bat elkarte eta eragile sozial batzen dira Gunek; sindikatuak hauek dira: ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU eta CNT.

Greba horretarako arrazoi nagusizat hauek dituzte: "Zerga-politika zuzena ezartzea eskatzen dugu, aurrekontuak gizartearen zerbitzura jartzea, pentsioen murrizketak ekiditea, soldata jaitsierei eta kaleratzeei aurre egin nahi diegu, patronalaren asmooi trabak jarri nahi dizkiegu", dio Debagoieneko ELAko ordezkari Amagoia Lasagabasterrek.

Debagoieneko LABeko Ana Sebal ordezkariak esaten duenez, "greba hau ez da eraso puntual bati erantzuteko soilik, alternatiba bultzatu eta eraikitze greba da. Alternatiba badagoela aldarrikatu dugu, alternatiba

hori zein parametrotan egon behar den argi eta garbi azaldu eta zabaldu dugu ere. Orain, alternatiba hori aldarrikatuzetik alternatiba eraikitze jautzia egitera goaz".

Eguaztenean, Debagoieneko EH Bilduk "zalantzarik ez" zuen agertu maiatzaren 30ekoak arrakasta izango duela, eta "burujabetza eta eraldaketa soziala posible eta beharrezkoak" direla esan

zuten. Martitzenean, Arrasateko greba batzordeak –tartean, LAB, ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatuak eta Sortu, Gaztetxea edo Gorripidea bezalako eragileek osatua– kale agerraldia deitu

zuen astelehenerako, hilak 27, Seber Altubetik irtenda, 19:00etan. Greba egunean bertan, eskualdeko kale agerraldia egingo dute, 18:30ean, Seber Altubetik.

Urkillurendako mezua

Honako greba "alternatiba eraikitze" dela azpimarratu du Gunek, eta horretarako tresna prestatu dute: Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna. Orain pare bat urte, Gunek kideen aldarrikapen guztiak batzen zituen dekalogo bat egin zuten, eta orain horiek guztiak jasotzen dituen gutun sozial delako bat egin dute. Guneren nahia da beste eredu bat eraikitzea, eta horren lehenengo pausotzat dute esandako Gutuna. Ana Sebalen hitzetan, "gutun soziala burutzeak berak indar metaketa prozesua ekarriko du. Euskal Herri osotik zegar eztabaidatu eta eraikiko dugu zein den Euskal Herriak behar duen eredu hori". Prozesu horren hurrengo pausoa "herriak erabaki duena instituzioek errespetaraztea" izango da.

Deialdiaren aurka badago faktore bat, azken bost urteotan, 2009a ezker deitzen den zarpigarren



Arrasateko greba batzordeak lanuztera deitu zuen martitzenean. | LANDER DIEGO

ESANAK



"Soldata jaitsierei eta kaleratzeei aurre egin nahi diegu, patronalaren asmooi trabak jarri"

AMAGOIA LASAGABASTER | ELA



"Alternatiba badagoela aldarrikatuzetik alternatiba hori eraikitze jautzia egitera goaz orain"

ANA SEBAL | LAB



"Grebaren bidez, zer ez egin esaten digute sindikatuak, baina gerorako ez dute beste ezer eskaintzen"

JUAN RAMON APEZTEXEA | ADEGI



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate Irekien Jardunaldiak

Maiatzak 25 11:00



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2013-2014

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
 943 71 21 91



Metalekoa, "ulergaitza"

Gaur, egubakoitza, LABek deituta eta beste sindikatu guztiek babestuta (CCOO eta UGT tartean), Gipuzkoako metaleko langile guztiak grebara deituta zeuden; tartean, Debagoieneko 5.000 baino gehiago. Adegik uste du "harritzekoa" dela Gipuzkoan greba deitu izana eta Araban eta Bizkaian ez, "egoera berdin-berdina dela jakinda". Patronalak ez du "ulertzen nola deitu daitekeen grebara, jakinda enpresak ahal duten guztia egiten dabiltzala; eta metalean, ezer ez jaistea eskaini dugunean". Adegik dio hitzarmen eza balego enpresek ez luketela "aprobetxatuko soldatak jaisteko; hori sindikatuek saltzen dutena da. Langileek enpresengan konfiantza dute".

Sei greba bost urtean

2009-05-21 Krisiko lehenengo greba orokorra.

2010-06-29 Rodriguez Zapateroren lan-erreforma proiektuaren aurkakoa.

2010-09-29 CCOOk eta UGTk deitutako greba. Bailaran, oso eragin txikia.

2011-01-27 Pentsioen sistema eta erretiroa murriztu zituen Zapaterok. Euskal gehiengo sindikalak deitu zuen greba.

2012-03-29 PPren lan-erreformaren kontrako greba. Azken urteetako erantzunik zabalena.

2012-09-26 Murrizketen aurkako greba deitu zuten euskal sindikatu gehienek.

2012-11-14 CCOOk eta UGTk deitutako greba.

Egunotan, "sozializatzen"

Greba orokor egunera arte, sindikatuak gaia sozializatzen dabilta eta hainbat ekintza deitu dituzte. Herri batzarrak egin dituzte azken egunotan: Bergaran, hilaren 16an izan zen bat; Oñatin, hilaren 21ean... Horrez gain, batzarrak egin dituzte enpresetan, ikastetxeetan, udaletxeetan, anbulatorioetan... Joan den martitzenean, Arrasateko greba batzordeak egin zuen prentsa agerraldia, eta datorren astelehenean Bergarakoak egingo du gauza bera.

Greba egunean, ohi bezala, eskualdeko kale-agerraldi nagusia egingo dute (Arrasateko Seber Altube plazatik irtengo dira, 19:00etan), eta herri bakoitzean agerraldia egingo dute 18:30ean.

greba orokorra izango dela –orain arteko seietatik bostek eragin nabarmena izan dute Debagoienean, Euskal Herriko sindikatu abertzaleek deitutakoek, hain zuzen–; baina horren aurrean langileek konpromisoarekin erantzungo dutela espero dute Gunekoek. ELAko batzorde eragileko formazio arduradun Xabi Anzak dioenez, "greba orokor bat aurrera ateratzen saiatzen direnek badakite errealitatea ez dela bat-batean aldatzen", eta "militanteok uste dute greba egun bat berebiziko garrantzia duen unea dela borrokan bilakae-ran". Anzaren ustez, militanteek "prozesu baten baitan ikusten dute" greba, eta ez "ultimatum" edo hordago gisa. "Eta badakite gure lorpen guztiak mobilizazioaren eta grebaren emaitza izan direla".

Debagoienean eta Euskal Herri osoan izandako atzerapauso batzuk aipatzen dituzte Guneko kideek greba egiteko arrazoi gehiago gisa: "Pentsioei legezkoa den KPIa ez diete aplikatu, 55 urtetik pasa ondoren subsidioa jasotzeko baldintzak erabat zaildu dira; erretiroak, aurre-erretiroak eta errelebo kontratua egiteko zeuden baldintzak ere zaildu egin ditu

Rajoyk; zerbitzu publikoetako langileriari lan orduak gehitu dizkiote dekretuz (hortaz, soldata jaitsi diote)...", dio ELAk. Eskualdearen egoerak "txarrera" egin duela dio LABek ere.

DATUAK

% 34

GAZTE LANGILE

Euskadiko 16 eta 29 urte arteko gazteen % 34,7 daude lanean; krisi hasieran, 2009an, % 47 zen tasa hori.

% 16

LANGABE

EPAren arabera, Euskadik % 16,28ko langabezia tasarekin bukatu zuen lehen hiruhilekoa, hau da, 164.700 langabe.

Bestalde, Iñigo Urkullu lehendakari denetik bizi izango duen lehenengo greba orokorra izango da eguneneko. ELAko Amagoia Lasagabasterren hitzetan, "politikariak behar ditugu, baina guk horiek (eta hemen guztiak sartzen ditugu) egiten dituzten politiken kontra gaude eta horiek aldatzeko egiten ditugu grebak". Gaineratzen du Urkulluri "esan nahi" diotela "entzun ditzala langileriaren eta gizartearen aldarrikapenak".

"Greba bat akabera da"

Guneren planteamentuen guztiz kontrakoak egiten dituzte CCOO eta UGT sindikatuek. Arrasateko CCOOk argi eta garbi dio "greba horrekin batere konforme ez" dagoela. "Neurri baten, greba politikoa dela uste du CCOOk", esan dute. Sindikatu horren esanetan, probintziako hitzarmenak sustatu eta lortu behar dira eta hori da euren orain lehentasuna: "Sektoreetako lan-hitzarmenak uztailearen 7an bukatuko dira eta denok probintziako hitzarmenak lortzera egin beharko genuke, eta ez enpresa bakoitzeko hitzarmen bat lortzera". CCOOk

esan du Polmetasa enpresan dagoeneko bozkatu dutela eta 30ean grebarik ez egitea erabaki dutela.

UGTk ere ez du hilaren 30ean grebara deitzen. "Murrizketen

DATUAK

2.000

ENPRESA

Krisia hasi zenetik, 2.000 enpresa itxi dira Gipuzkoan, eta 27.000 soldatapeko lanpostu desagertu dira.

% 41

ENPRESA

Krisi hasieratik, Gipuzkoako enpresen % 41,5ek gero eta gutxiago inbertitu du berrikuntzan eta I+G+b atalean.

kontrako greba da eta hori oso zentzuzkoa da, baina guk azaroan deitu genuen greba orokorra arrazoi beragatik zen", diote sindikatuko iturriek.

Gipuzkoako enpresaburuen elkarteak, Adegik, bere balorazioa egin du: "Arrazoiak oso nahasiak dira: funtzionarioen haserre, lan-erreformarekiko haserre... eta sindikatuek diote langabezia erreformaren errua dela; baina errene argumentuak banan-banan desmunta daitezke", esan du Adegiko Negoziazio Kolektibo saileko arduradunak, Juan Ramon Apezetxeak. Bere iritziz, "grebek ez dute ezer konpontzeko laguntzen" eta, gainera, "sindikatuak, grebaren bidez, zer ez egin esaten dute, baina greba eta gerorako ze alternatiba eskaintzen dute? Guk argi daukagu: lan egin, eta lan egin, eta lan egin behar da". Beste hau ere egozten diete sindikatuei: "grebaren ondorioz enpresaren bat itxi eta gero, aurretik eskaini zitzaizena eta ukatu zutena eskatzen dute".

Adegik gogorarazi du Gipuzkoako enpresa asko oso egoera txarrean daudela: "Horiendako, greba bat akabera da".







ARIZMENDI IKASTOLAREN

LANBIDE HEZIKETA ZURE LANERAKO BIDEA

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUAK · GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
ERIZAINZAREN LAGUNTZA OSAGARRIAK

IZEN EMATE EPEA
MAIATZAREN 27TIK EKAINAREN 7RA

943 77 20 25 // WWW.ARIZMENDIPRO.EU





Fagor Taldeko ordezkariak batzarrean atzo, eguna. | FAGOR

Bazkide izaera, Fagor Taldekoen seme-alabendako

Sei puntuko aldearekin bakarrik onartu zen hori mantentzea

UBANE MADERA | ARRASATE

Fagor Taldeko bazkideek bazkide izaera euren seme-alabei uzten segitu ahal izango dute. Hala erabaki zuten atzo, eguna, talde osoko ordezkariak Arrasaten egindako batzarrean. 159 lagunek parte hartu zuten.

Hain zuzen ere, batzarrean eramandako proposamena zen bide hori baimentzen zuen puntua kentzea. Bada, bertaratu zirenen %47k kentzearen alde bozkatu zuten eta %53k, berriz, kontra.

Gauzak horrela, beraz, 60 urte baino lehen erretiratzeko diren bazkideek euren bazkide izaera seme-alaben esku utz dezakete. Bazkide izaerak, gainera, lanpostua ere badakar berarekin.

100 bazkide egoera horretan

Gaur egun ezaugarri hori betetzen duten 100 bat bazkide daude Fagor Taldean. "Ebentual moduan daude lanean une honetan, bizi dugun egoerarengatik ezin ditugulako finko egin", azaldu du Elena Goirizelaiak, Fagor Etxetresna Elektrikoaren komunikazio arduradunak.

"Horrez aparte, bazkideen seme-alabei begira, bada prozesu bat zuzeneko lanerako haien lehen tasuna bermatzen duena. Puntu hori ez da ukitu batzarrean; beraz, bere horretan geratzen da. Baina krisia hasi denetik badaramatzagu urteak ez ditugula sartzen langile berriak taldean, ez dagoelako lanik. Azkenean, Fagor Etxetresnetatik ere beste kooperatibetan birkotatuta dauden langileak ditugu; beraz, ezin ditugu kanpotik gehiago hartu", gaineratu du Goirizelaiak.

Xehetasunen arabera, 90eko hamarkadan abiarazi zituzten bazkideen seme-alabei lehentasuna ematen dieten prozesuak.

Soldata jaitziera

Bestalde, atzoko batzarrean, soldaten jaitzieraren zenbatekoa zehaztea ere landu zuten batzarkideek. Kasu horretan, taldeko gehiengoak euren soldata Lagun Aroren indizearen arabera, %89an lagatzea erabaki zuten, botoen %76rekin. Baina salbuespenak izango dira: Fagor Etxetresna Elektrikoak eta Fagor Electronica; bi horien egoera kontuan hartuta, erabaki dute biotan apurtxo bat gehiago jaitzea soldata.

Euskal curriculuma galtzeko arriskuan ikusten dute, LOMCE legea aplikatuz gero

2014an sartuko da indarrean hezkuntza lege berria, aldaketarik ezean

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Baikarak, Gipuzkoako ikasleen gurasoen federazioak, batzarra egin zuen eguaztenean Arrasateko Institutuan. Urtean hiru bider elkartzen da federazioko ordezkariak Debagoieneko guraso elkarteetako kideekin.

Bada, eguazteneko batzarrean, besteak beste, Imanol Zubizarreta Baikarako koordinatzaileak LOMCE legearen azken berritasunez egin zien berba Aretxabaletako, Arrasateko, Eskoriatzako, Aramaioko eta Bergarako guraso elkarteetako ordezkariak.

2014an indarrean

Maiatzaren 17an onartu zuen Espainiako Gobernuak Jose Ignacio Wert ministroaren hezkuntza erreforma. 2014ko irailean sartuko litzateke indarrean, asmoarekin aurrera eginez gero. Aldaketa ugari ekarriko dituen



Guraso elkarteetako ordezkariak, batzarrean. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

hezkuntza-erreforma da. Adibidez, erlijio ikasgaiak garrantzi handiagoa izango luke etorkizuneari. Ikasleek, gainera, azterketa gehiago egin beharko litzateke, bai Lehen Hezkuntzan, DBHn zein batxilergoan. Baina Baikarakoek azpimarratu gura

izan dute euskal curriculuma galduko litzatekeela erreformarekin, urte luzeetan euskal hezkuntza eredu garatzen aritu ondoren, LOMCE legearekin Madrildik zehaztutako curriculum nagusituko litzateke eta ikastetxeetan.

Elikadura eta ohitura osasungarriak

Arizmendi Ikastolako Gazteluondo guneko neska-mutikoen elikadura eta ohitura osasungarrien inguruan, Arrasateko Eroski hipermerkatuan tailer praktikoetan parte hartu dute, Eroski Fundazioaren bitartez.



EROSKI FUNDAZIOA



ULMA Hormigón Polímero, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

Eguna: 2013ko maiatzaren 31.
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.
Tokia: MU Enpresagintzako auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDIA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko
2. 2012ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2013ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2012ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2012ko ekitaldiko emaitzak banatzea
6. 2012ko ekitaldiari dagozkion interesak sortzea eta kapitalizatzea
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
8. Supraegiturako entitatei buruzko gaiak
9. POGU III eta ULMA Hormigón Polímero, S. Coop.eko Estatutu Sozialak eta Barne Araudi Kooperatiboa aldatzea, hala badagokio
10. ULMA Hormigón Polímero, S. Coop.eko Estatutu Sozialak 22. artikulua aldatzea, hala badagokio
11. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
12. Menpeko ekarpen finantzarioen jaulkipena
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
14. Kontseilu Sozialako kideak berritzea
15. Auditorea izendatzea edo berrautatzea
16. Ahalmenak eskuordetzea
17. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten. Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Hormigón Polímero, S. Coop.eko helbide sozialean, proposatutako estatutuen, Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoa aztertzeke, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2013ko maiatzaren 17a



ULMA Agrícola, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

Eguna: 2013ko maiatzaren 30a.
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.
Tokia: ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDIA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko
2. 2012ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2013ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2012ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2012ko ekitaldiko emaitzak banatzea
6. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
7. Supraegiturako entitatei buruzko gaiak
8. POGU III eta ULMA Agrícola, S. Coop.eko Estatutu Sozialak eta Barne Araudi Kooperatiboa aldatzea, hala badagokio
9. ULMA Agrícola, S. Coop.eko Estatutu Sozialak 22. artikulua aldatzea, hala badagokio
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
11. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
12. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
13. Auditorea berrautatzea
14. Ahalmenak eskuordetzea
15. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten. Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Agrícola, S. Coop.eko helbide sozialean, proposatutako estatutuen, Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoa aztertzeke, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2013ko maiatzaren 16a

Egoera ekonomikoa eta enpresak berbagai, Oñatiko batzokian

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Oñatiko EAJk antolatuta, Arantza Tapiak eta Aitor Urtzelai, Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuak eta Estrategia eta Planifikazio zuzendariak, hurrenez hurren, euren departamentutik egiten ari diren lanen berri eman dute asteon Oñatiko batzokian. Helburuak zeintzuk diren, zertan oinarrituko dituzten politikak eta hemendik aurrera lana nola bideratuko duten azaldu zuten, besteak beste.

Euren departamentuak hiru sektoreak hartzen dituela azaldu zuten Tapiak: industria, teknologia barne; merkataritza eta turis-

moa; eta lehen sektorea. Adierazi zuten, helburua dela hiru sektoreak lehiakortasun eta garapen ekonomikoaren ikuspuntutik lantzea. Euskadi marka potentziatu egin behar dela ere esan zuten, besteak beste.

Ekintzailtza

Aitor Urtzelai, bestetik, azaldu zuten Euskadiko ekintzailtza mapa berriro aztertu beharko litzatekeela eta horretan dabiltzala hiru foru aldundiekin lanean, Euskadiko ekintzailtza zentroak oinarri hartuta. Lourdes Idoigarendako ohorea izan zen Urtzelai oñatiarra aurkeztea, herriko semea delako, ETEOn ikasitakoa, gainera.



Arantza Tapiak, Aitor Urtzelai eta Lourdes Idoia. | AMAIA TXINTXURRETA

Mikel Ilarramendi eskoriatzarra hil dutela-eta, dolua Eskoriatzan

JULEN IRIONDO | ESKORIATZA

Mikel Ilarramendi eskoriatzarra zapatuan hil zen goizaldeko ordubatetan jazotako eraso baten ondorioz. Oñatiarra jaiotzez, Ilarramendi Eskoriatzan bizi zen baina Panaman zegoen lan kontuengatik. Iturrien arabera, beste bi lankiderek zegoen etxean eraso gertatu zenean; ezezagun batzuk sartu eta labanez eraso egin zieten. Ondorioz, Mikel Ilarramendi hil egin zen eta beste lagun bat zauritu.

Haren senideak oraingo asteo eguaztenean abiatu ziren Panamara, han ahalik eta bizkorren egiten saiatzeko egin beharreko tramite denak. Auke-

ra desberdinak aztertuta erabakiko du familiak nola eman azken agurra Mikel Ilarramendiri.

Doluminak

Eskoriatzako Udalak oharra atara du Mikel Ilarramendiren sendiari doluminak eta elkartasuna adieraziz.

Eta Herrira mugimenduak ere doluminak eta babeska eskaini dizkie Ilarramendiren sendi eta gertukoei, izan ere, Ilarramendi preso ohia zen. Hain justu, 2003ko uztailearen 30ean atxilotu zuen Frantziako polizia eta 2011ko maiatzaren 19an geratu zen aske.



Mikel Ilarramendi Oñatin, ongi-etorria egin ziotenean. | KONZEUJUPETIK

Komunikazio arloarekin lotutako ordezkari ugari MUren inaugurazioan

Eguaztenean inauguratu zituzten Aretxabaletako campuseko instalazio berriak

JULEN IRIONDO | ARETXABALETA

Jaurlaritzako Hezkuntza, sailburu Cristina Uriarte; Gipuzkoako ahaldu nagusi Martin Garitano; Aretxabaletako Udaleko Hezkuntza zinegotzi Iñigo Louvelli; MUko errektore Josu Zabala; Huheziko dekanek Nekane Arratibel; Berriako ordezkari Martxelo Otamendi eta Juan Mari Larrarte; Hamakako zuzendari Iñaki Uria, Tokikomeko presidente Mikel Irizar eta Hekimeneko presidente eta Goienako zuzendari Iban Arantzabal izan ziren, besteak beste, eguazteneko inaugurazioan. Hain justu, 2012-2013 ikasturte hasieran atek irekitako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatearen Aretxabaletako campusean, 100 bat lagun elkartu ziren. Agintariak hitzaldiak egin ostean, campuseko instalazioak bisitatu zituzten.

Hala, hitzaldietan, inauguratutako instalazioen eta unibertsitateak ikus-entzunezko komunikazio ikasketen alde egiten diharduen apustuaren gauean jardun zuten. "Aipatu nahiko nuke proiektuak berrikuntzatik garapenera emandako urratsa. Graduak jakintza arloa sortu du eta besteak beste ikerketa aplikaturako bidea ireki du", esan zuen Uriartek.

Arratibelek, berriz, Hekimen eta Tokikomekin batera gauzatu den Goikolab egitasmoak (komunikazio ideia-laborategia) sortzen dien ilusioa azpimarratu zuen. "Bi dira helburu nagusiak: ikasleengan berrikuntza, ekintzailtasuna eta sormena bultzatzea eta euskarazko komunikazio esparrua sendotzen



Agintariak fakultate berriko zinta mozten. | JULEN IRIONDO

laguntzea. Goikolaben, sormena, berrikuntza eta ekintzailtasuna izango dira giltzarri. Sinetsita gaude, gainera, egungo testuinguruan sormenak, berrikuntzak eta ekintzailtasunak ematen dutela balio erantsia, produktu edo zerbitzuari, eta baita horretan lanean diharduenari ere".

Lurralde kohesioa

Martin Garitano ahaldu nagusiak Mondragon Unibertsitateak Debagoieneko herrietan izan duen zabalkundearen eragina nabarmendu zuen: "Fakultate honek hori erakusten digu, lurralde kohesioa landu behar dugula, eta ez garela denok Donostiara begira egon behar. Tokian tokiko garapena hezkuntzan ere bermatu behar dugu eta, horretarako, MU eredugarria da".

Aretxabaletako Udaleko ordezkari Iñigo Louvelli zentzu berean mintzatu zen, eta Uriarte sailburuari eskatu zion murrizketarik

ez egiteko, hezkuntza delako, bere esanetan, krisitik ateratzeko inbertsio onena.

Josu Zabala MUko errektoreak, azkenik, Goienarekin duten lankidetzaz azpimarratu eta desioa agertu zuen etorkizun hurbilean biak egon daitezkeen ingurune berriari kokatuta. "Helburua prestatuntza eta esperimentazioa elkartzeko da, gure unibertsitateko beste tituluekin egiten dugun bezala. Horrela, ikasitako ezagutzak praktikan jartzen ditugu bizitza errealean. Kasu honetan merkaturaren lehian dabilen ikus-entzunezko enpresa batean".

Beste erakundeenarekin batera, Aretxabaletako Udalaren laguntza bereziki eskertu zuten eguazteneko ekitaldian.

Informazio gehiago:
eskaneatu QR kode hau
poltsikokoarekin.



T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.aren OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baltzuren estatutuen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.aren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2013ko ekainaren 11n egingo da, **arratsaldeko sei etan** lehen deialdian eta, hala balegokio, **sei eta erdietan bigarren** deialdian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko **Aranzadi Ikastolan**.

GAI-ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea.
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2012/13 ikasturteko memoria.
4. 2013/14 ikasturteko egitasmoa.
5. 2012 urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea.
6. Soberakinen banaketa.
7. 2013 urteko aldirako kuoten onarpena.
8. Artezkaritza Kontseiluko kide berriak hautatzea.
9. Galde-erantzunak.

Bergaran, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria
Mireia Gallastegi Inziarte



Arizmendiren identitate definituari eutsi egingo dio zuzendari berriak

Iñaki Etxezarreta urretxuarrak izango da Arizmendi Ikastolako zuzendari berria. Asteon jakinarazi dute izendapen berria. Etxezarretak urte askoan Ikastolen elkartearen egin du lan eta oso gertutik ezagutzen du Arizmendi ikastolaren izaera berezi eta erreferentziala. Txaro Iraetaren lanari eta ikastolaren identitate definituari eutsiko diola azpimarratu du zuzendari berriak.



Iñaki Etxezarreta. | GOIENA

ZABALIK

IBAN PEREZ
http://goiena.net/iritzia/



Oztopoak igaro beharra

Aire librean aktibitateak egiteko ohitura dugu ontzat udaberri gogorra izaten ari da -eguraldiaren inguruan antzerako iritzia bota nuen zutabe honetan azkeneko jardun nintzenean-. Uda gerturatzen ari da, baina eguraldi onak ez du ezarri nahi, bisita laburrak egin dituen arren gure lurretara (eguraldi ontzat hartzen dugu 20 eta 30 tarteko temperaturak eguzki gozoan, gutxi gorabehera).

Natura, kasu honetan, oztopoak jartzen ari zaizkigu. Azken egun hauetan gure gorputzeko atalik gehienak erakusten aritzea litzateke normalena, baina hori ez da horrela ari izaten. Kanpoan ezin gauzak egin eta teilatupera igarotzen gara; Debagoieneko gimnasioetako korrikako zintetan edo spinning bizikletetan sortzen den energia erabiliko bagenu, ziur ehunka auto elektrikoren bateriak betetzeko adina indar izango genukeela.

Baina, zoritxarrez, eguraldiaren jolasak ez dizkio oztopo handienak jartzen gure egunerokotasunari. Gizakiok gure artean ere trabatzen dugu gure ibilbidea. Batzuetan nahita eta beste batzuetan nahi gabe. Gainera, edozein toki eta momentutan. Horrelakoe-tan, arazoei aurre egin behar zaie. Zerbaitek ez badauka soluziorik, aurrera jarraitu lehenbailehen. Baina uste bada konpondu daitekeela, ez geratu besoak gurutzatuta. Beti aurrera eta, ahal baldin bada, pentsamenduan egin ahal zitekeen guztia egin dela.

Tamalez, orain dela aste batzuk bailaran ezaguna zen pertsona bat joan zen gure artetik. Baina familiak, lagunak eta gizarteak erakutsi duten aurrera egiteko gaitasuna ikusgarria izan zen pasa den igandean. 300 txirrindulari baino gehiago bildu ginen bizikletaren gainean errepidean dagoen segurtasunik eza salatzeko. Adibide bat besterik ez da, baina pisu handikoa.

Ez nuen Joseba ezagutzen, baina animorik handienak fami-liari eta lagunei. Nik, nire partetik, bihar errepidera ateratzen jarraituko dut, oztopo (eta segurtasunik eza) guztien gainetik.

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.com

Zorte on, Mondra!

Ez naiz futbolzalea; zergatik ukatu? Ez naiz ez futbolzalea, ez saskibaloizalea, ez pilotazalea... Kosta egiten zait partiduetan arreta jartzeta, eta joko arauak ere ez ditut ezagutzen; nola, bada, atentzio minimoa ere jarri barik? Baina futboleant, gustatzen zait gure taldeek zer egin duten jakitea; eta gustatzen zait Realak, Athleticen eta Osasunak irabaztea. Eta orain, 12 urte daramatzadanean Ormaiztegitik Arrasaterako bidea egiten, kolore zuri-moreak ere nire sentitzen ditut apur bat. Horregatik, gustatuko litzaidake Mondrak mailari eustea, jaitsiz gero, gorako bidea urtetako bide gogorra izan daitekeela. Ohorezko Erregionalean geratuta, urteurrena borobilduko luke, gainera. Animo, mutilak!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Purrustada

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Espainiako gotzainen bozeramailea ari zen telebistatik: "...eskola ebanjelizazioaren espazioa baita..."

Ondoan neukan laguna marmarrean hasi zen, ardo mindua irentsi balu baino ozpinago.

"Alferrik aritu behar trista, zer dira ba itsuak! Mendeetan eta mendeetan hor eduki gaitizte espazio publiko eta pribatuak oro ebanjelizazioaren espazio zituztela, baina gizarteak, beren itzalpetik askatu zenean, ospa egin zian".

Beste albiste batek hartu zion tokia bozeramailearen jardunari.

Lagunak berean jarraitzen zuen. "Mundutik aparte bizi dituk, eta egunero galtzen dutena eskolaren bizkar irabazi nahi ditek. Irabazi? Erakunde pribatu batek ezin dik gizarte osoa dotrinatu gizarte puskatu gabe, horretan tematzea beti aterako zaiek txarki eta garesti".

Laguna oinarrizko sare kristau bateko partaidea da, eta ez ninduten ez

purrustadak ez akaberako arrangurak harritu: "Kristau izatea berez zaila bada, mortal zailagoa gixot horiekin!".

Emakumearen gorputzaren brutalizazioa medikuntza modernoan

Onintza Iureta
argia.com/blogak/onintza-irureta/

Izenburu hori dauka Marc Girarden liburuak, *La brutalisation du corps féminin dans la médecine moderne*.

Bere blogean honela hasten da liburuari buruzko erreseina motza: "Zoriz aukeratu ehunka emakume. Denek egin behar izan diote aurre haien sexuari bereziki lotutako medikalizazioari: errubeolaren aurkako txertoa, hormonak, menopausia, metodo antikonzeptiboak, ugalketarako laguntza, episiotomiaren orbainak, zesarea, histerektomia, mamografiak eta abar. Gizonezkoek zer dute horren pareko?".

Matematikaria da ikasketaz Marc Girard eta ikerketa kliniko eta epidemiologikoan da aditua, bereziki tratamendu medikoen ondorio kaltegarriak lantzen ditu.

Girarden ustez, medikuntza emakumeen balizko ahuldadetan tematuta dago.

Emakumeen kontrako arbuio medikoa milaka urtetako historian ikus daiteke.

XVI. mendean ondorioak larriagotu ziren, medikuntza beste tradizio izugarri misogino batekin gurutzatu zenean, alegia, katolizismoarekin.

Era berean, feministen premisa garrantzitsuak behe jo dezake, hau da, emakumearen jabeakuntza medikalizazioan oinarritzea (batez ere pilula antisorgailuan).

Kontua ez ote da emakumeak pozik direla, eta zapaltzailea aldatu baino ez dutela egin?

Marc Girardek 140 orrialdeko liburua autoedizio bidez argitaratu du urtarrilean. Frantsesez idatzia da eta bere blogean liburua erosteko aukerak azaltzen ditu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Zierza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Utalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Josebaren omenaldiaren harira, zorionak eta eskerrik asko, denoi!

Gorka Etxabe
Aretxabaleta

Domekako ekitaldiak aurreikuspenak gaititu zituen. Xumea, hunkigarria eta ondo antolatutakoa izan zen. Hedabideetan ere oihartzun polita izan du (Goiena, *DV*, *Noticias*, EITB, Euskadi Irratia, *Mondraberrri...*), eta horrexegatik, eskerrik asko.

-Urtzi (Athlon), dotore koordinazioan eta antolakuntzan.

-Iñigo eta Junkal (Dorletako Ama), inplikazioan eta medioetan elegante.

-Xabi eta Sergio, Goienari esker onak, hedabideetan eskaintako tarategatik eta bideo bat egin nahi izategatik (besteak beste).

-Pifo, Alfredo, Jon, Oier, Txefo... zer esanik ez!

-Eskoriatzako klubekoei (domekan maillotik ikusiena), eskerrik asko!

-Tiratu taldekoei ere mila esker.

-Ertzaintzari eta Arrasateko Udaltzainei (disposizio dotorea).

-Parte-hartu zuten guztiei, familiakoei... eskerrik asko!

Domekan piztutako sugarra datoen urteetan mantentzen ahaleginduko gara!

PNV: istorioa errepikatzen da

Eñaut Aiausti
(Oñatiko Ernai)
Oñati

Apirilaren 10etik 15era beste askegune bat eraiki dugu Ondarroan. Oraingoan, Urtza Alkorta gaztea babestea genuen helburu, zein ustez ETari laguntzeagatik 5 urteko

espetxe zigorra betetzera kondenatua izan zen duela gutxi. Azpimarratu beharra dago sententzia hau sostengatzen duen froga bakarra inkomunikazioan eta torturapean eginiko autoinkulpazio bat dela.

Donostian gertatu zen bezala, herri ekimen honen amaiera Ertzaintzaren interbentzio bortitz batekin amaitu zen, dimentsio astronomikoetako dispositibo polizial bat bidaliz. Gainera, poliziaren jarrera Donostiakoa baino oldarkorragoa izan zen oraingoan: ukabildakak, porrakadak, ostikoak... etengabeak izan ziren. Ertzaintzaren esku-hartzearen erantzule politikoei gidoilari onak dauzkagula diote. Ez gaude horrelako irainik onartzeko prest. Guk herritar guztiak hurrengo herri harresira gerturatzea gonbidatzen ditugu, beraiek epaitu dezatela Ertzaintza deituriko munstro horien jarrera.

Asko izan dira EAJk arreta beste toki batzuetara desbideratzeko egin dituen adierazpenak: horrelako ekimenek baliabide publikoen xahutzea dakartzatela, Ertzaintzaren betebeharrak legea betearaztea dela... Nahikoa da! Zer betearazten dute, irregularitasunez jositako sententzia politikoa? Kostu ekonomikoa bai, baina zer deritzozue espetxeratze hauek eragiten duten sufrimenduaz? Gainera, zuen abstentzioari esker Eusko Legebiltzarrak preso politikoen existentzia ukatu berri du. Zertan zabiltzate? Nola ulertzen duzue normalizazio politikoa?

Egoera honen aurrean, Euskal Herritarrok herri harresia deituriko tresnaren aldeko apustua berresten dugu. Horrela, era sinboliko eta baketsu batean herri honen desadostasuna erakusten dugu, eta kondenatuei maitasuneko elkartasun keinu bat helarazten diegu. Gizarteko gero eta sektore zabalago bat gara gertaera tamalgarri hauek amaitu behar dutela

deritzogunak, eta hori argi eta garbi islatzen dugu era honetako ekimenen bitartez. Zuek jakingo duzue zertan zabiltzaten, guk hautua egin daukagu. Eta irabaztera goaz. Gora, herri harresia!

Trukaketa, gure autonomia handitzeko

Josu Garitaonandia
(Equo Bergara)
Bergara

Euroak bere onurak ekarri dizkio gizarteari; Europan zehar bidaiatzea muga bakoitzean txanpon kontuan ibili barik; herrien arteko harremanak hobetzen ditu beraien artean ideiak, esperientziak eta zientziak transmitituz.

Baina gure eguneroko bizitzan erosi behar ditugun gauza eta zerbitzuendako atzerapausoa izan da; mundu mailan edozein arazo edota Europako Batasuneko estatu batek eztula egiten badu, euroa gaixotu egiten da eta ez du betetzen bere funtzioa, gure eguneroko erosketak oztapatuz.

Toki askotan, arazo honi aurre egiteko eta krisialdiak areagotuta, trukaketaren lehengo ohitura berreskuratu dute. Talde baten lehen beharrak asetzeko antolatzen dira; hori bai, dirurik eta bitartekorik erabili barik. Taldean denek dakite zerbait egiten; hau da, denak dira ekoizleak eta denak dira kontsumitzaileak, eta, taldea bere autonomia handitzen doan heinean, komunitate horretako erlazioak sendotu egiten dira eta beraien autoestimua igo.

Taldea koxkortzen doan neurrian, baleak edota diru ez ofizialak erabili edota denbora bankuak sortzen dituzte; baleen kasuan, esku gutxitan ez pilatzeko, denborarekin balioa galtzen doaz beraien trukaketa mugimendua areagotuz; denbora bankuetan,

berriz, zuk eman dezakezun ordu bateko zerbitzua berdin balio du zuk taldetik har dezakezun ordu bateko edozein zerbitzurekin.

Batez ere, langabeak animatu nahiko nituzke trukaketa jardueretan parte hartzera; momentu honetan ongizate estatua atzerantz doa eta inork ez daki non amaituko den; badaezpada, hobe gure kontu antolatzen hastea gure lehen beharrak betetzeko.

Kristautasuna eta foruak

Jon Otero Uribarren
Arrasate

Eusko Alderdi Jeltzalea, non *Jel*-etik datorren Jaungoikoa eta Lege Zaharra.

Zein Jaungoiko?
Zein lege zahar?

Zeren Jainkoa bakarra baita unibertsoan, eta anitza, gutariko bakoitza berpiztu egingo garenez.

Ba ez!
Badirudi Josuz bakarrik ari direla.

Kristoz.
Eta beste erlijioak hor konpon, gezurra omen diote.

Lege zaharra.
Zein lege zahar?
Foruak, noski, izan ziren gurean lege zahar.

Baina foruzaleak erregezaleak ere baziren, eta gaur egun independentzia nahi dugu erregerik gabe, noski.

Hala, ba, Sabino Aranak asmatu zuen Euzkadi izena, lege zaharrari jaramon gutxi eginda.

Berak ere asmatu zituen EAJ siglak.

Beraz, nola konpaginatu lege zaharra eta berak nahi zuen Euskadiren independentzia?

Berarentzat Euzkadi zazpiak bat ziren.

Eta ohartu zen, aspaldi ohartu ere, ez zela posible, Nafarroa ez zelako abertzalea, eta are gutxiago Iparraldea. Nola, ba, independizatu Euzkadi?

Beraz, hautu zuen lege zaharraren eratorritako estatutuaren aldea.

Hori bai!
Zazpiak bat.
Nik diot, ez!
Euskadi ez da Euskal Herri politikoa.

Euskadi da Euskal Herriaren abertzale nagusi diren herrialdeen nazio izena. Hau da, hirurak bat.

Hori da Euskadi.
Nafarroa ez da Euskadi, ezta Iparraldea ere.

Abertzaleek zinez ematen diogunean amore Nafarroari eta Iparraldeari, orduan Espainiak emango dio amore Hirurak Bat-i; hots, Euskadiri.

Eta demokratikoki bananduko da Euskadi independentea Espainiatik.

Baina noiz emango diote EAJk eta EH Bilduk amore Nafarroari?

Aspertzen direnean gazteleraz.

Zeren Konstituzio espainiarrak baitio, hirugarren artikuluan, gaztelera betebeharrak dela.

Jasanezina euskaldunentzat.

Eta EAJk, abstenitu egin zenez konstituzio erreferendumean, irabazleen jite maltzurra ondo jasaten du.

Horrela, ba, "Legeak dioelako betebeharrak dela" haurreskoletan nahi du gaztelera sartu.

Ni Frankismoko ikastoletan hazi nintzen eta ume nintzela dena euskaraz egiten zidaten.

Noiz esango dio EAJk ezetz Konstituzio espainolari?

Amore ematen diotenean Nafarroari, Estatu berria sortzeko xedean.

Zeren Hirurak Bat estatu berrian, hots, Euskadi independentean, gaztelera soilik eskubide bat izango da, eta orduan, ez da zertan sartu beharko gaztelera haurreskoletan.

Argi?
Euskara ere eskubidea izango da, ez betebeharrak, gehiegi baita euskalduntzea hainbeste basko.

Poliki-poliki, gora Euskadi askatuta!

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

PEDALKA

FRANTZIAKO ALPEAK ALDERIK ALDE BIZIKLETAZ JULEN IRIONDOREKIN
GOIENA TELEBISTA | MAIATZAK 30, 21:50



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

Arcadi Oliveres | Ekonomialaria

"Orain ere, kapitalismoak ez dauka sistema alternatiborik; poliki-poliki eraikitzen goaz"

- ▶ Desazkundearen ideologo ezagunenetariko bat da Arcadi Oliveres ekonomialari katalana
- ▶ Hainbat GKEk gonbidatuta, hitzaldia egingo du astelehenean Arrasaten, 19:00etan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Economía, cooperación y conciencia delako hitzaldia egingo du Arcadi Oliveres (Bartzelona, 1945) ekonomialariak astelehenean, Amaia antzokian, 19:00etan, Harreman, Ale, Lanki, Elkarheitzten, Bagara, Open3 eta Mundukidek antolatuta. Desazkundearen aldeko bere mezua konbentzimendu osoz zabaltzen dio Oliveresek entzun nahi dionari.

Zure iritziz, desazkundera da aurrera bide bakarra.

Zalantza barik. Nazio Batuen datu bat esango dizut: munduko 7.000 milioi biztanleetatik 1.000 milioi ondatsun gehienak ditugu. Beste 6.000 milioiek guk daukagun ura, mineralak, petrolioa... gura izango balituzke, lau planeta behar izango lirarteke. Eta hirugarren mundukoek ondatsun horietarako guk adina eskubide dutenez, gutxiago kontsumitzea da gure irtenbide bakarra.

Orain arte egin ez badugu, zergatik orain bai?

Orain arte, krisiak hegoaldeari bakarrik eragin dio, eta bakarrik orain, iparraldeari ere bai. Baina gauzak ezingo dira aldatu kapitalismoa, sistema zeharo eraman-gaitz hori daukagun bitartean.

Badago benetako alternatibarik, ordea?


Machadok dioten moduan, bidea eginez egiten da. Sistema bat bukatu den aldi baten ere ez da egon beste bat armairuan haren ordez ipintzeko; poliki-poliki sortzen doa. Orain ez gabiltza ezer asmatzen; hobeto egin daitezkeen eguneroko gauzak dira.

Kapitalismoko botereek ez dute gutxiago hazi gura izango...

Jendeak eskatu ezean, ez. Eta hemen oinarritzko beste elementu bat dago: komunikabideen rola. Komunikabide handiak oso jabe gutxiren esku daude, eskandalua da. Eta guk amen esaten diogu denari. Baina baikorra naiz: lehen partaide pasiboak ginen informazioan, eta orain interaktiboak izan gaitzake, eta webgune, blog, bideoekin... informazio alternatiboa eman. Honek bide luzea du, baina krisi hau jasanezina da eta, ingurumena bukatzen doan heinean, behar-bada jendeak aldatzeko presioa egingo du.

Kooperatibak gorai patzen dituzu. Soluzioaren zati bat dira?

Jakina. Oso pozik nator berriz Arrasatera; 1982an izan nintzen, eta espiritu kooperatiboa, kapitala eta lana pertsona bakarrean lotuta egotea Mondragonek oso ondo egin du, bere arazo guztie-



Arcadi Oliveres. | JUSTIZIA ETA BAKEA

kin. Katalunian ere izan genituen kooperatiba onak. Irakurri dut, gainera, soldaten arteko aldean inguruan, lan falta dagoenean orduak murrizten direla jendea ez kaleratzeko... eta hori betidanik gustatu izan zait.

Zuk diozu eztanda soziala ez egoteko freno batzuk daudela; besteak beste, ekonomia ezkutua. Hainbestekoa da?

Bai, bai, asko dago. Espainiako ekonomiaren % 25 eta % 30 artean ezkutuko ekonomia da. Eta hori, familiaren babesarekin batera, iraultza sozial orokorra ez gertatzeko faktore bat da.

M-15, bi urte. Bizirik jarraitzen du mugimendu horrek?

Lehen baino biziago. Lehen ikusgarriagoa zen; Puerta del Solen edo Katalunia Plazan 3.000 lagun ikusten zenituen, baina orain, horiek auzoan, herrian, eskualdean daude, debateak, zine-forumak, eztabaidak, agerraldiak... egiten. Eta sektorializatu egin da M-15; orain, arloko mugimenduak daude: hipotekenak, transgenikoak, anbulatorioak, hezkuntza... Ezinbesteko arlo askotan dabil lanean jende hori.

Sektorializazio horrek ez dakar jendeak mugimenduetan ez identifikatzeko arriskua?

Ez, ez; gaur bertan irakurri dudan inkesta baten arabera, jendeak

begi onez ikusten du M-15. Beste gauza bat da ea mugak dituen, ea ikuspegi politikoa eman behar zaion...

Politikarien ze iritzi duzu?

Ez dira denak berdinak. Alderdiz alderdi eta programaz programa begiratzen baditugu, alde handiak daudela konturatuko gara. Baina jendeak ez du hauteskunde-programa irakurtzen; irakurriko balu, behar-bada hauteskunderen emaitzak oso desberdinak izango lirarteke.

Hauteskundeetara begira, plataforma bat sortu duzue Katalunian.

Bai, baina ez gara hauteskunderetara aurkeztuko. Ideia laburterraza dauka: Kataluniako legebiltzarrerako hauteskundeetan,

"Ebanjelioak zeharo ezkertiarak dira, nire irakurketaren arabera"

"Kristautasunak zerikusi handiagoa du ezkerrekin eskumarekin baino"

2016an, sistemarekin ados ez dagoen jendeak hautagaitza bakkarra osa dezala. *Suminduak*, giza-mugimenduak eta ezkerreko alderdiak eskuzabalak izan daitezten eta euren hautagaitzari uko egin diezaioten, bakar bat sortzeko, hori da nahi duguna, Generalitat-era sartzeko. Oraingoan, 35.000 lagun atxiki zatzaizkigu.

Escrache-ak balekoak iruditzen zaizkizu?

Zeharo balekoak eta legezkoak eta demokrazia perfektionatzeko modua, errespetuz eta bultzatzen barik egiten bada; hori ezinbesteko baldintza da. Baina zer egin behar duen esatea politikariari haren soldatan dagoela esan daiteke. Britainia Handian, politi-

"Baliabide naturalak bukatu baino lehen aldatu behar dugu eredia"

"Krisia ez da inoiz bukatuko, baina gauza asko salba daitezke"

kariak astero hartzen dituzte herritarrek. Hemen ez dago sistema hori, eta politikaria etxeko atean agurtzera joan behar da; modu onean, espero dut.

Justizia eta Bakea erakunde kristautaren Bartzelonako presidentea zara. Ez gaude ohituta ezkerreko ideologiak kristautasunarekin lotuta ikustera.

Ebanjelioaz egiten dudana irakurketa da zeharo ezkerrekoa dela. Zorionbideak irakurtzen badituzu, komunismo hutsa dira. Latinoamerikan hori betidanik bizi izan da, eta abade eta moja asko Videlak-eta, Pinochetek-eta hil egin zituzten. Kristautasuna oso ezkertiarra da: pobreei eman, gehiegikeriarik ez egin... Eta Jesukristo benetan haserretu zen bakarrik merkatariak tenpluan ikusi zituenean: hor daukazu finantzen kritika gogorra. Mundu honetan, pentsaera kristauak ezkerrekin zerikusi handiagoa izan beharko luke eskumarekin baino.

Zuk diozu krisia ez dela bukatuko.

Orain den moduan, ezin daiteke bukatu, gobernatzeko gaituztenekin egin behar luketenaren kontrako egiten dutelako, eta baliabide naturalak mugatuak direlako. Kapitalismoa bukatu behar dugu, agudo, gaur egungo belaunaldiak gosez hil baino lehenago. Etor-kizunean, beste sistema batekin, gauzak alda daitezke, bai; borondate ona badago, gauza asko salbatu daitezke: enpleguan, osasunean, ongizatean... baina gaur egun ez daukagun politika bat behar da horretarako.

Bizimodu berri horretan bizi izango gara, baina sinistuta, konbentzimenduz?

Naturak behartuko gaitu horretara. II. Mundu Gerra bukatu zenetik, Lurrean zegoen petrolioaren % 70 kontsumitu dugu, eta hemendik 40 urtera ez da bat ere geratuko. Autoz ibili nahi badute, ordukoek beste neurri batzuk hartu beharko dituzte. Eredu hau sustraitik aldatu behar da, eta ona litzateke baliabide guztiak bukatu baino lehenago aldatzea. Ur garbi tantarik ez eta petroliorik ez dugun arte, planetaren tenperatura igo den arte... itxoiten badugu, gurek egin du. Argiak izan behar dugu. Baina horretarako, enpresa handiek eta komunikabide handien kontra egin behar dugu. Ez dakit ze ekonomia bozeramaleri entzun nion krisitik irteten garenean automobil gehiago egin ahal izango ditugula. Bada, ez; hori guztiz ezinezkoa da.

Maiatzean, eskaintza berezia sukaldeko altzarietan

**%25eko
beherapena
sukaldeko altzarietan**



Zerbitzu osoa

www.kibuc.com jarrai gaitzazu  


KIBUC Gure Ametsa

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 15 16 81

KIBUC

Azkenean gure etxean

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

HERRIAK

ONATI

Naturaren eta historiaren batuketa, Arantzazutik

- ▶ Arantzazu Parketxeak sei ibilaldi gidatu antolatu ditu 2013rako
- ▶ Asmoa da gure paisaia kulturala ezagutaraztea eta balioan jartzea

UBANE MADERA | OÑATI

Kondairaren arabera, Arantzazuko Ama Birjina Aralarko San Migeletik bueltan zetorrela atsedean hartu zuen Biozkornia inguruan. Harkaitz baten eseri zen, aulki itxura duen harkaitz baten.

Durun gora eginda iristen da leku horretara, Biozkorniara. Urbiara iristeko pasabide oso garrantzitsua da hori goierritarrentzat, bereziki, Zerain eta Zegamatik datozen erromesentzat. Eta Ama Birjinaren Silla, Biozkorniako pasoa eta, orokorrean, Urbia bera sakon eta historian atzera eginez ezagutzeko aukera paregabea izango da ekainaren 9an, Arantzazu Parketxearen eta Arantzazuko Adiskideen bitartez.

Urbia, poljea

Izan ere, Urbia ondo ezagutzen dutela pentsatzen duten askok ez dute jakingo haitz arteko lautada berde oparo horren jatorria zein den. Izen berezia dauka: poljea. Labur esanda, poljea zera da, Wikipediak esanda: *Haran luze eta itxi antzeko sakonune bat, tamaina handikoa, arroka karsitiko mendiartearen dagoena, hondo laua duena eta inguru ez erregularrak. Ertzak oso maldatsuek*



Aitzulo kobazulora egindaok irteera. | ARANTZAZU PARKETXEA

dira eta bertan kareharria azaltzen da. Hobi batetik desagertzen den erreka batek zeharkatzen du. "Kanpoan dauden sedimentuak joaten dira metatzen sakonune horretan eta sedimentu horiek sortzen dituzte belardi oso emankorrak, eta poljeak normalean izaten dira artzain lekuak, belardi emankor horiengatik. Urbia da polje bat eta Degurixa da beste bat", jakinarazi du Arantzazu Parketxeako Miren Elgarresta zuzendariak. "Naturaren bidez sortutako lekuak dira eta gizakiok halako lekuetan nola egokitu garen ezagutarazten dugu, kasu honetan jarduera ekonomiko bat aurrera eramateko".

Ikusi eta ikasi

Bada, halakoak eta beste ikusi eta ikasten dihardute laugarren urtez Arantzazu Parketxeak Arantzazuko Adiskideekin batera antolatutako ibilbide gidatuaren parte hartzen dutenek.

Eta justu horrexegatik ibilaldi bereziak dira horiek, ohiko mendi-bide edo sendak albo batera lagata, berriak ezagutarazten dituztelako, eta, gainera, adituek gidatuta, dituzten aberastasunak agerian lagata. "Gehienetan, parketxeak arduratzen gara inguruari dagokion dokumentazioa batzeaz eta bisitariari helarazteaz,

baina, batzuetan, bestelako adituak gonbidatzen ditugu gidari lanak egin ditzaten. Ez ditugu oso azalpen magistralak egiten; taldea oso anitza izaten denez, bitxikeriak -eta kontatzen ditugu batez ere".

Urrira bitartean, lau ibilaldi

Aurtengo sei ibilaldi antolatu dituzte. Bi eginda daude (Orka-

tzategi eta Degurixa). Eta egutegian hurrengo datorren hitzordua ekainaren 9koa da. Andraitz-Aizkorri-Aratzeko karst-ak ezagutuko dituzte egun horretan. "Geologian oinarrituko gara, batez ere. Aloñatik Aizkorriarako mendi-zerra, Urbiako poljea; lur azpian benetan dagoela ur erreserba handienak, azalean ikusten ez

direnak... Hori guztia ikusiko dugu Ama Birjinaren Sillatik Zegamako bidea hartuta, gorantz eginda, Andraitz pasabidera helduz, leporaino. Ez goaz gailurra egitera. Andraitz pasabidetik garai batean, eta oraindik ere, artalde batzuk hortik ere sartzen dira Urbiara. Urbiako oso ikuspegi ezberdina izango dugu".

Hitzordua 09:00etarako egin dute, Arantzazuko aparkalekuan; hiruzpalau orduko ibilbidea izango da. Eta, behin bukatuta, nahi duenak aukera izango du taldean Urbiako fondan bazkaltzeko.

Egun erdi eta familia osoa

Gutxi gorabehera, horietan dira Arantzazutik antolatutako ibilbideen ezaugarri orokor eta komunak: 09:00etan aterata eta egun erdiko ibilaldia egiten dute. Beste bat aipatzearen, azpimarragarria da, baita ere, familia osoari zuzendutako ibilaldiak direla. "Irteera aurretik zailtasun maila adierazten ahalegintzen gara, eta, adibidez, Andraitzerako irteera zaila moduan ipini dugu, batez ere, egin beharreko distantziaren inguruetan. Baina gainontzeko guztiak oso eskurakoak dira, nahiz eta aldapa izan. Gomendatzen da, hori bai, jantzi erosoak, botak eta makila ekartzea. Mendira etortzen garenean, eta parke honetara, bereziki, aldapak daude. Eta oso kontuan hartu behar da hori", adierazi du Arantzazu Parketxeako zuzendariak.

25-50 laguneko parte hartzen dute. "Lehen deialdian 90 lagun azaldu ziren. Gero, gorabeherak izan genituen eta aurtun, 25-50 bat lagun buek bueltan ibiltzen gara", zehaztu du Elgarrestak. "Gainera, datozenak oso gustura eta babestuta sentitzen dira. Arantzazuko Adiskideko lauzpabost laguneko sherpa lanak egiten dituzte, inor ez da bakarrik uzten; erritmo guztietara egokitzen gara".

Parketxearen eginkizuna

"Gizaldiz gizaldi gizakiok naturan idatzi dugun historia interpretatzea da gure asmo orokorra. Baita ere jendea ezagutaraztea sendak. Parke handiena da Gipuzkoan eta sendaz josita dago. Bi-hiru... baino ez ditugu ezagutzen eta saiatzeko gara senda berriak-eta erakusten. Eta transmititzen naturak merezi duen errespetua. Demonstratuta dago ezagutzen diren gauzak maitatzen direla, eta, hala, errespetu eta sentsibilitatea piztea da asmoa. Dudarik gabe, parkea ezagutaraztea da helburu orokorra".

DATOZEN MENDI IBILALDIAK

UZTAILAK 20

Aloñako ilunabarra: 18:00etan Arantzazutik aterata, asmoa da ikustea gailurrean eguzkiaren jaitziera. Eta era berean, iluntzean mendi buelta egitea ezohikoa da, jende gutxi izaten duen esperientzia. "Ipurtargiak ikusteko egunik politena. Umeendako irteera zoragarria da".

IRAILAK 15

Sekilaga-Zurkutz, Calahorrako bidea: bitxia da bide hori, Gipuzkoa eta Araba arteko merkatarien bidea, eta, ondorioz, estraperloa ere egiten zen. San Inazio de Loiola bertan egondakoa da. Gure historiaren errepasoa egiten dute.

URRIAK 13

Oñati-Arantzazu: errepidetik igo beharrean, basoak zeharkatzen... Arrikutzetik igotzea da asmoa.

Parketxeak egiten dituen jarduerak

HARRERA LEKUA Parke naturala ezagutzera etortzen diren bisitari guztientzat ateak irekita daude nahi duten informazioa jasotzeko. Normalean, jendea inguratzen da aisialdiaren helburuarekin.

INTERPRETAZIO ZENTROA

600 m² pasako erakusketa du. Kanpoko elementu esanguratsuenak daude islatuta museografiaren bitartez. "Bisita gidatuekin interpretatzen laguntzea da eginkizun nagusia. Baina erakusten dugu benetan parkearen edertasuna kanpoan dagoela. Ingurumen heziketa eta txangoak finkatuta ditugu".

ARGAZKIGINTZA* Bigarren modulua egin gura dute, ekainaren 29an eta uztailaren 13an. Izena eman daiteke.

OLERKIA* Iaz Gandiagarekin egindakoaren moduko ekimen bat, olerkia balioan jartzeko.

POTTOKAK* Pottoka Lekurekin elkarlanean, pottokaren historia eta garrantzia adierazteko.

GASTRONOMIA* Jaki dastatze edo tailerren bat.

ZUHAITZAK* Zuhaitz motzak, eta zehatzago, pago motzak ezagutuko dituzte.

*Aurtengorako ekintza espezifikoa.



Emakumezko eta gizonezko edadetuenei egindako omenaldia, iaz. | GOIENA

Erretiratuaren omenezko bazkaria bihar kiroldegian

SUDC elkarteak urtero antolatzen duen bazkarian 835 bat lagun batuko dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

SUDC elkartearen urteko egun handietako bat izango da biharkoa. Izan ere, herriko erretiratuaren omenezko bazkaria egingo dute, ohi bezala, Musakolako kiroldegian. Juan Luis Arkauz SUDCeko presidentek aurreratu duenez, 835 bat lagun batuko dira aurten: "Pozik gaude kopurua mantenduko dugulako, ea ez den arazorik egoten".

Eguerdiaren San Juan Bataiatzailea parrokiaren egin behar den mezaren ostean, eguneko protagonistak autobusez, ambulanziaz edo oinez joango dira kiroldegira. 13:15ean hasiko dute garraio zerbitzu berezia. Mugikortasun arazoak dituztenendako ambulanziaz zerbitzu berezia egoten da egun horretarako. 14:00 aldera hasiko dira bazkaltzen eta bazkalostean opariaren zozketa egingo da.

Omenaldia edadetuenei

Gero, herriko gizonezko eta emakumezko edadetuenei omenaldi xumea egingo diete: "Aldez aurretik ez dugu esaten zeintzuk diren edadetuena, omenduek sorpresa atsegina jaso dezaten", dio Arkauzek. Omenaldia bukatu ostean dantzaldia egongo da, 18:00ak arte.

Eneritz Urrutia

Sanjuanetako esaldiaren egilea

"Parrandarako gertu egoten gara, baina ez halako ekimenetarako"

J.B. | ARRASATE

Jaiaren antolakuntzan inplikatzeko den horietakoa da Eneritz Urrutia (Arrasate, 1990), eta, beraz, ez da harriztekoa sanjuanetarako esaldi laburren lehiaketan parte hartu izana. Harrituta egilea geratu da, haren esaldia aukeratu dute-lako: *Jaixetan egiSu*.

Zein da esaldiaren mezua?

Oinarrien arabera, jaiak eta euskara bultzatzea zen helburua. Eta *egiSu* hitzak helburu



Eneritz Urrutia. | JOKIN BEREZIARTUA

Egungo bizimoduak eragin dituen krisiak berbagai

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Zero Zabor taldeak maiatzeko azken bi asteetarako antolatutako hitzaldi zikloaren barruan, asteon Inigo Inurrategi Huheziko ikerlaria izan da gonbidatua. Inurrategi egungo eta etorkizuneko bizimodua ulertzeko oinarritzko klabe batzuk eman zituen. Krisi ezberdinak aipatu zituen: ekonomikoa, energetikoa, klimatikoa... eta bertaratutako galderak egiten aritu zen eten-gabe, saioa elkarreragile bihurtuta. Jende gutxi egon zen, baina

agertu zirenek adi-adi jarraitu zituzten Inurrategiaren zein gainerakoek ekarpenak.

Ikerlariak hainbat datu interesgarri eman zituen; honakoa, esaterako: Hego Euskal Herriko biztanleen %1,30ek aberastasunaren ekonomia finantzarioaren ikuspuntutik - %44,4 kontrolatzen dute. Zaborraren gaineko datuen bat ere eman zuen: Gipuzkoan sortzen den zabor kopurua urtero %3,5 handitzen da, eta, beraz, azken 20 urteetan bikoiztu egin da kopuru hori.



Inurrategi hainbat datu interesgarri eman zituen eguaztenean. | J. BEREZIARTUA

Antolatzaileak, "gustura"

Hitzaldiek nahi baino jende gutxiago erakarri arren, Zero Zabor taldekoak "gustura" daude orain

arteko saioekin. Azkena hilaren 28an izango da: *Hondakinak... Geuk sortu, geuk kudeatu*; Kulturaren, 19:00etan.

ETAk eragindako zaurien aurrean memoria aldarrikatu du PSE-EEK

J.B. | ARRASATE

Paco Gartzia Arrasateko PSE-EEko idazkari nagusia "minduta" agertu da asteon Debagoieneko EH Bilduk Arrasateko sozialistei egindako azken eskaeren harira. Hala, Gartzia euskal presoei "azterketa kritikoa" egin eta publikoki barkamena eskatzeko dei egin die: "Argitu gabe jarraitzen duten 326 krimenetan lagun dezatela", gaineratu du.

Era berean, zauriek itxi gabe jarraitzen dutela dio sozialistak: "Zauriak oraindik zabalik daude familien, lagunaren eta alderdikideen artean eta hala egon behar-lukete euskal gizartearen, osotasunaren. Zauri horien tratamen-

du bakarria da memoria eta egia; eta gero justizia, iraganaren eta etorkizunaren arteko zubia eraikitzeke".

"Beste aldeko sufrimendua"

Debagoieneko EH Bilduk, joan den astean, ETAk eragindako sufrimendua onartu zuen, baina ezin daiteke oztopo izan, uste dutenez: "Ukertzen dugu errezeloak izan ditzakezuela, adibidez, presoaren gairi soluzioak topatzeko. Baina kontuan izan zuena ez ezik, beste aldeko sufrimendua ere badagoela; hemen biktima asko egon dira eta eurengatik sentitzen dugun mina ezin da izan bake bidean lan egiteko oztopo".

Al-Andaluseko 23. Kultura Astea azken txanpan sartuko da aste bukaeran, denetariko ekintzekin

Arrasateko andaluziarren 23. Kultura Astearen ospakizunak azken txanpan sartzerako doaz. Gaur, umeendako jokoak (18:30) egongo dira, eta gero, Blas Infanteren gaineko pelikula ikusteko aukera egongo da (20:00). Bihar izango da egun handia: sevillanak eta parrillada (12:30), Al-Andaluseko koruaren saioa (13:30), gala-afaria (21:30) eta, eguna borobiltzeko, Roc-tulador umoristaren bakarriketa eta dantzarako tartea. Domekan, amaitzeko, Alegria de la Sierra koruaren emanaldia egongo da, 13:30ean.

Abaroak Alemaniara antolatu duen irteeran izena emateko aukera, ekainaren 17tik 23rako txandan

Alemaniano Oihan Beltzera txangoa antolatu du Abaroa elkarteak. Ekainaren 10etik 17ra arteko bidaiaren hartuta dutenak Etxaluzeko bulegotik pasa daitezke, ordaintzeke dutena ordaindu eta txartela eskuratzeko. Bestalde, jakinarazi dute ekainaren 17tik 23rako txandan izena emateko aukera dagoela oraindik. Prezioa da 890 euro: hegaldia, bertan ibiltzeko autobusa, Titisee laku inguruan hiru izarreko hoteleko egonaldia, pentsio osoa eta gidari batek lagundutako bederatzi txango sartzen dira prezioan.

horiek betetzen ditu: euskaraz ondo pasatzeko deia eta sanjuanetako sua batzen ditu.

126 lanetatik zurea aukeratu izana poztekoa izango da, ala?

Nik lau bidali nituen. Pozik hartu dut albiste, ez nuen espero. Hala ere, argi daukat jende gehiagok hartu ahal duela parte. Esaldi horietako batzuk eskoletatik bidali dira; nire esaldia, adibidez, nire ikasleek bidalitakoarekin batera -20 ikasletatik 16k hartu zuten parte- bidali nuen.

Gazteen eta ez hain gazteen inplikazio faltaz ari zara?

Bai. Jaietan parranda egiteko gertu egoten gara, baina ez halako ekimenetarako; jendea ez da inplikatzeko. Txosna batzordeko kideok ia astero biltzen gara eta laster hasiko gara txanden berri ematen; ea jendeak erantzuten duen.

Dragoi Jana, hilaren 22an

AEDren 30. urteurrena dela-eta Dragoi Jana ekainaren 22an egingo dute, hilaren 24an beharrean. AEDko Itxaro Artolaren arabera, "euskaltzaleen topagune" bihurtu gura dute plaza. Bestalde, haurren danborradarako hurrengo entsegu bihar izango da, Gaztelupen (San Viator). Helduek, berri, hilaren 27an egingo dute lehen entsegu, leku berean.



Eguraldia dela-eta, umeendako gunerik ez da egongo aurten. | JOKIN BEREZIARTUA

Beste Bat! Eguna egokitu egin behar izan dute eguraldi txarragatik

J.B. | ARRASATE

Biharko iragarrita dagoen eguraldi txarra dela-eta, St. Pauli taldearen aldeko Beste Bat! lagunartek antolatzen duen ospakizun eguna egokitu egin behar izan dute. Dirk Morenweiser antolakuntzako kideak adierazi duenez, ez du merezi eguraldi txarrarekin Seber Altube plazako ekitaldiekin aurrera jarraitzea: "Min handia egiten digun arren, erabakia hartu behar izan dugu", dio.

Beraz, bertan behera geratu dira edo beste leku batera eramango dituzte Seber Altubeko ekintzak: orain arte horren arrakastatsua izan den umeendako gunea eta herri bazkaria ez dira egingo. Era berean, Iñigo Albandoz magoaren saioa (16:00) eta Lekeitioko McOnak taldearen kontzertua (17:00)

Iluntz tabernara pasako dituzte eta Soraluzeko ZZ Blues Band taldeak, berriz, DAT tabernan joko du. Antolatzaileek bi taberna horien laguntza eskertu gura izan dute: "Eskerrak eurei, bestela egitaraua oso motz geratuko zen-eta".

Oil musika gaztetxean

Gainerako ekintzak bere horretan mantenduko dira: 11:00etan Iluntz tabernako futbol taldeak -Zaldibarko futbito txapelketa- kampo daude dagoeneko -Beste Bat! taldearen aurka jokatu du Iturripen.

Bere horretan mantentzen dira, era berean, gaueko kontzertuak (22:00): Ordiziako Brutal Calling eta Arrasateko Fight to Life eta Aggressive Combat taldeek joko dute. Sarrera bost euro ordaindu beharko da.



IMANOL GALLEGO

Ardoaz gozatzeko astea Kajoin

Ardoaren Astea izan da Kajoi tabernan. Lau egunetan zehar hiru upategi ezberdin gonbidatu dituzte eta atzo, azken egunean, ardo beharrezko olio dastatu zuten. Bertaratu direnek goi mailako ardoak dastatzeko aukera izan dute, doan; mokadutxo egiteko aukera ere izan da: "Ekimen irekia da eta izena ematea ez da beharrezkoa".

Herriko industria-tradizioaren omenezko makinak jarriko dituzte bi biribilgunetan ekainean zehar

Asteon onartu du Tokiko Gobernu Batzarrak Eroski pareko eta Markuleteko biribilgunetan Arrasateko industria tradizioaren omenezko makinak jartzea. Makina bana jarriko dute; tornu bat Eroskikoan eta prentsa bat Markuletekoan. Udalak onartu berri duenez, Frixi Eraikuntzak enpresa arduratuko da lanez eta Usabiaga Elevacion enpresak tornua Eroskiko biribilgunera eramanez eta ezartzeko ardura hartuko du. Obra osoaren aurrekontua izango da 3.600 euro pasatxo.

Amaia Vazquez | Psikologoa eta sexologoa

"Gazte izateari agur esan behar diogu, baina dramatismo barik"

Udaleko Sexologia Zerbitzuaren eskutik Kulturaten egongo da hilaren 29an

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Publikoki gutxitan lantzen diren gaien gaineko hitzaldia eskainiko du Hernanin bizi den Amaia Vazquez (Bilbo, 1961) psikologoa hilaren 29an: *Menopausia eta andropausia. Gure bizitza aukera berriez hornitzeko erronkak*. Kulturateko Jokin Zaitegi gelan izango da, 18:00etan.

Hasteko, zertaz egingo duzu berba maiatzaren 29ko hitzaldian?

Menopausiaz eta andropausiaz arituko naiz. Bigarren helduaro horretan ematen den krisia ikuspegi baikor batetik aztertuko dut. Krisia aldaketarako eta aukera berrietarako garaia dela ulertuta, aro horrekin lotuta dauden emozioak desmitifikatzen saiatuko naiz. Izan ere, sozialki emozio horiek guztiak ezkorrek dira gehienetan. Gizartean gaztetasunaren inguruan dauden balioak garrantzia handia dute eta badi-rudi menopausiaren eta andropausiaren aro horretan sartzen garenean zahartzaroari, gaixotasunari eta heriotzari begira jarri behar gara.

Norendako da hitzaldia bereziki? Edonor dago gonbidatuta, baina batez ere 45 urtetik gorako gizon eta emakumeendako.

Emakumearengan eragin handiago duela uste al duzu?

Emakumearengan ematen den balio-galera askoz handiagoa da. Historikoki edertasuna eta sexualki erakargarritasuna galtzearekin lotuta dago menopausia eta oraindik ere askok hala ulertzen dute. Hori guztia modu kritiko baten landu gura dut. Era berean, nabarmendu gura dut menopausia eta andropausia ez direla gaixotasunak, askok uste duten moduan. Beste aro bat da, besterik gabe.

Bestalde, gizonen artean ematen den krisia oso lotuta dago indar sexuala galtzearekin; gizonen krisiaren ezaugarriak hortik datoz gehienetan.

Nola gaintzen dira krisi horiek?

Gaztetasuna agurtzeko dolua egin behar dugu. Gaztea izateari agur esan behar zaio baino modu baikorrean, inongo dramatismo barik. Adin horretan, ginekologia eta psikologia aldeko adituen arabera, jakituriaren aroan sartzen gara. Autoestimuan sortzen zaigun zauria emozio baikorren bidez sendatzea lortzen badugu asko dugu eginda. Autoestimuan gaia oso garrantzitsua da nire ustez; amatasunak, aitasunak eta bestelako balioen garapenaren ondorioz gozamaena modu biziago baten ematen da. Egia da, era berean, aldaketa ekonomikoek, sozialek eta politikoek eraginda gure gurasoak menopausia eta andropausia amona edo aitona bihurtzen zirenean bizitzen zutela. Egun lehe-



Amaia Vazquez. | MIKEL PLAZA

nago harrapatzen gaitu, bete-betean ama edo aita garenean eta, aldi berean, amona edota aitona zaindu behar ditugunean.

Bigarren nerabezaroa moduan ere ezagutzen da aro hori. Zergatik?

Hala da. Aldaketa hormonal handiak ematen dira eta horrek aldaketa fisiologikoak dakartza. Horien gainean ere egingo dut berba hitzaldian.

Bestalde, aro horretako sexualitatea ere landuko dugu, hau da, aro horretan nola egokitu gure bizitza sexuala.

Sexuari dagokionez ez da arorik emankorra. Ala?

Garai polita izan daiteke. Nerabezaroan, gaztaroan edo lehen helduaro hartan izaten genituen joera sexualak berreskuratzeko aroa izan daiteke. Azken finean, produktibitatea ugalketarekin amaitzen da eta beraz, beste mundu bat irekitzen zaigu. Bikotean bizi direnendako erronka polita izaten da, nola berreskuratu bikote bizitza eta baita, nola kudeatu aro horretan eman daitezkeen bikoteen arteko banaketak, ematen direlako.

"Menopausia eta andropausia ez dira gaixotasunak, beste aro bat baizik"

TARIFA FINKOAK INFORMATIKAN

- Word.
- Mekanografia.
- Access.
- Sistema Eragileak.
- Power point.
- Excel.
- Internet.

IRAKASLEEN FORMAZIOA

- Irakasleen formatzailea. (Lanbide prestakuntzara edo etengabeko prestakuntzara zuzendu nahi duten profesionalentzako ikastaroa.)

INGELESA

- Azterketetara prestatzeko ikastaro trinkoak.
 - Pet
 - First
 - Advanced
- Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten irakasleentzako Didaktika eta Metodologia.

ESKOLA PARTIKULARRAK

- LMH / DBH
- Batxilergoa
- Enpresa ikasketak
- Ingeniaritza

Infomazio gehiago: 943793533
bastida@bastida.es
www.bastida.es



Mondrako ordezkariekin batera, Iñaki de Mujika esataria, lehengo eta oraingo futbol jokalariekin, berbaldua hasi aurretik. | XABIER URZELAI

Tertulia, Mondra eta Reala bihotzean daramatenekin

- ▶ Lehengo eta oraingo futbol jokalaria batu zituzten Kulturaten
- ▶ Mikel Gonzalezek dei egin zien zaleei zapatuan Mojategira joateko

XABIER URZELAI | ARRASATE

Iñaki de Mujika gidari, Kulturateko aretoan denboran atzera saltoa egin eta garai bateko futbolaz eta gaur egungoaz jardun zuten Mondrako eta Realeko elastikoa jantzi duten arrasatearrek. Izan ere, Mondraren 100. urterrena aitzakia ederra izan zen martitzenean koadrila hau batzeko: Aitor Lopez Rekarte, Inaxio Kortabarría, Mikel Gonzalez, Txomin Artzamendi, Jon Sagas-ta eta Jesus Aranbarri.

Anekdotak izan ziren berbal-diaren abiapuntua –irratiko mai-suak ondo daki jendeak zerekin gozaten duen–, eta gonbidatuak joko horretan sartu ziren; bete-ranoak, batez ere. Eta saioaren amaieran Mikel Gonzalezek eskaera bati erantzun zion, asteburuan Mondrak izango duen partidura-ko deialdia eginda.

Anekdotak, eta beste

Ia bi ordu iraun zuen berbal-diak askorako eman zuen: garai bateko futbola eta gaur egungoa; gustuko futbol zelaiak, garaiko jokalaria *gogorrak*... Azpimarratzekoak izan ziren Inaxio Kortabariak esandakoak: futbola utzi zuenean hartu zuen lasaituaren gainean egin zuen berba; hor bai, serio: "Nire ustez futbol jokalaria-riaren bizitza oso gogorra da, eta gaur egungoek dirutza jasotzen badute, ni poztu egiten naiz. Badi-rudi ametsetako bizimodua dela, baina ni erretiratu nintzenean sekulako lasaitua hartu nuen. Gainera, nire sentsazioa da fut-bola amaitutakoan, 35 urterekin, 16 urteko edozein gazte presta-tuago dagoela bizitzari aurre egiteko".

Hausnarketa egin zuten, bai-ta ere, bizi izandako une gogorrez;

Mondra, mailari eusteko lehiara

Mondraren 100 urteak ospatzeko modurik onena kategoriari eustea da. Hala, zapatuan (18:00, Mojategi, sarrera doan), Mondrak urteko partidu garrantzitsuena du, Aurreraren kontra. Talde zuri-moreak garaipena behar du, besteen emaitzei begira ez egoteko –Mikel Gonzalezek deialdia egin die zaleei, partidura joateko–. Partidu aurretik Ford Mugarri Arrasate eskubaloi taldea omenduko du klubak, txalotzeko moduko detailea.

Rekartek, zelan ez, Aitor Zabale-ta izan zuen gogoan, eta Calde-ronen bizi izandakoak: "Baina futbola gizartearen isla ere bada, eta aurrera egin behar da".

Arratsaldeak, hala ere, serio-tasunetik gutxi izan zuen. Sagas-tak erakutsi zuen ez dela plaza-gizon makala, eta, Aranbarri ondoan, barrezka jarri zituzten ikusleak. Gaur egun hegazkinez erraz bidaiatzen dela esan zien De Mujikak, baina garai hartan Puertollanora joan egin behar zela, eta Aranbarrik hartu zuen hitza: "Autobusean masajistak eskopeta eramaten zuen, ehizta-ri amorratua zen-eta. Eta *Gazte-lu*-k eta biok egiten genuen txakur lana. Hau da, autobusetik jaitsi, usoei tiro egin, eta gu bidaltzen gintuen ehizatutakoa batzera". Halakoekin, pentsa zelan joan zen arratsaldea...

Zaldibarko finalerdiak domeka goizean

X.U. | ARRASATE

Iriztu, Ostantz, Lasagabaster eta Dribling, horiek dira domekan Zaldibarko finale-ra iristeko lehiatuko diren taldeak.

11:00etan Iriztuk eta Ostan-tzek neurtuko dituzte indarrak eta 12:00etan Lasagabaster eta Dribling izango dira zein baino zein gehiago.

Ezustekoak kanporaketan

Final-laurdenetako partidu irekiena Driblingen eta AT Betrayerren artekoa izan zen (8-3), eta, kontrara, elkarren arteko errespetu handiz joku-tu zuten Iriztuk eta Sonogra-fosek (2-1). Bi talde horiek nahikoa lan izan zuten kontrarioaren atea zulatzen, eta, Iriztu sailkatzea ezustea ez bada ere, Sonografos kalera-tzea bada albiste.

Arrasateko gimnastak Aretxabaletan eta Durangon

X.U. | ARRASATE

Oraingo asteburuan Arrasa-te Dragoiko gimnastek bi hitzordu izango dituzte, Aretxabaletan eta Durangon. Batetik, Ibarra-ko kiroldegian egingo dute bihar (16:25ean hasita) Udaberri Torneoko bigarren fasea. Hala, alebin eta infantil mailetan Arrasateko ordezkari-tza zabala izango du, gimnasta mordo-a eramango ditu-eta klubak hara.

Domekan, ostera, Aero-bikeko Euskadiko Joko Esko-larren txapelketa egingo dute Durangon (Landako kirolde-gian, 10:00etan), eta han ere alebin eta infantil mailetakoe-k jardungo dute, bakarka, biko-teka, eta baita hiruko taldeak osatuta ere.

zenbaki 
aholkulariak-abokatua



• Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun- txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50


edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



Joan den urteko arte azokan ateratako argazkia. | GOIENA

Arrasateko margolariak kalera irtengo dira bihar

Hirugarren urtez arte azoka egingo dute, zapatuan, Seber Altube plazan

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Arrasateko Margo Taldeko kideak dagoeneko zerura begira ipinita daude. Haien hitzetan, eguraldiak zeresan handia izan du orain arte antolatutako arte azoketan. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da. Beraz, esan daiteke Arrasaten finkatzen hasia den ekimena dela. "Eguraldi ona egin duenetan jende dezente gerturatu da azokara, bai goizean eta baita arratsaldean ere. Ea aurten zorte apur bat daukagun", kontatu digu Arrasate Margo Taldeko Amaia Arantzabalek.

Herrira zabaltzeko aukera

Arte azokarekin Arrasateko margolarien helburua da euren lanak herritarrei erakustea:

Arte azokaren ordutegia:
10:00-14:00
17:00-20:00

DATUA

15

ARTISTA

Arrasate Margo Taldeko hamabost artista inguruk hartuko dute parte azokan.

"Tailagileek edo zeramikagileek, esaterako, santamasetan izaten dute euren lana erakusketa aukera, baina margolariok ez geneukan horrelako plazarik. Hortik dator, hain justu, arte azoka antolatzeko ideia", azaldu du Arantzabalek.

Azoka 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; bazkaltzeko eten txiki bat egingo dute 14:00etatik 17:00etara bitartean.

Margolariak bertan

Azokan parte hartuko duten margolariak Seber Altuben bertan izango dira egun osoan. Eta, modu horretan, bisitariak zuzenean artistekin hitz egin eta edozein galdera egiteko aukera izango dute.

Ekitaldiz betetako aste bukaera Al-Andalusen

Elkartekoek 24. aste kulturala astelehenean hasi arren, zapatuan izango da egun handia

I.G. | ARRASATE

Musika, dantza, *playback* jaialdia... Askotariko aukera egon da Al-Andalus elkartearen 24. aste kulturalan. Gaur, egubakoitza, 18:30ean hasita, gazte-txoentzako jolasak eta merienda egingo dituzte. Hori bukatzean, 20:00 inguruan, Blas Infanteri buruzko filma eskainiko dute, eta, eguna borobiltzeko, barraskilo-jana izango dute.

Zapatua, egun handia

Ohiturak hala agintzen duenez, zapatuak batuko ditu ekitaldi gehienak. Eguerdian hasita, ez da atsedenik egongo. 12:30ean,

sevillanek emango diote hasiera egunari, eta, horrekin batera, sabela bete nahi dutenek parrillan erretako txuleta eta txorizoa dastatzeko aukera izango dute. 13:30ean, Al-Andalus koru errozieroak emanaldia eskainiko du.

Gauean, Al-Andalus elkartearen bazkide eta lagunentzat gala afaria izango da eta afa-lostean, Roc-tulador artistaren monologoa eta 70eko eta 80ko hamarkadetan girotutako dantzaldia egingo dute. Domekan, astea borobiltzeko, Alegria de la Sierra taldeak emanaldia eskainiko du, 13:30ean.



Playback jaialdiak parte hartzaile asko izaten ditu. | GOIENA

Domekan, Musikodromoaren barruan, La Banda del Abuelo taldearen kontzertua gaztegunean

Erdiguneko gaztegunean maiatzeko domeka arratsaldeetan ez da tristurarentzat tokirik egon, musikari esker. Musikodromo ekimenak gazteen gustuko taldeak ekarri ditu gaztegunera. Aste honetan La Banda del Abuelo taldearen txanda izango da eta haren rock doinuek ederto girotuko dute gazteguneko arratsaldea. Aste bukaerako azken arratsaldea sofán botata eman beharrean dantzan eman nahi dutenek ekitaldi aproposa dute erdiguneko gaztegunean 18:30ean hasita.

Marta Izagirre | Arrasate Musikaleko zuzendaria

"Artzamendiri, eskolaren sortzaileari, hark egindako lana ez erortzea zor diogu"

Zapatuan ospatuko dute egun handia; hala ere, kurtso amaiera arte ekintza asko antolatu dituzte

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Marta Izagirre 1995a ezkeror Arrasate Musikaleko zuzendaria da, eta harekin, musika eskolak bete berri dituen 40 urteez gain, akademiaren etorkizunaz ere hitz egin digu.

Nola doa 40. urteurreneko ospakizuneko festa?

Gustura gaude. Otsail aldean hasi genituen ospakizunak bandaren kontzertu batekin. Orain, kurtso amaiera honetan, kontzertu eta ekintza gehiago antolatu ditugu. **Zapatuan izango da ospakizun nagusia, ezta?**

Hala da. Musika kalera atera nahi dugu. Egia da kontzertu



Marta Izagirre Arrasate Musikaleko egoitza. | IMANOL GALLEGO

gehienak eskolatik kanpo egiten ditugula, Kulturaten, Amaia antzokian... Kasu honetan, baina, kalera irten gura dugu. 12:00etatik aurrera, egun osoan zehar, Arrasateko kaleei musika jarriko diegu.

40 urteren ostean, zeintzuk dira Arrasate Musikalen erronkak?

Lortu dugun mailari eutsi nahi diogu. Azken urteotan, musika ezberdin ugari jorratu ditugu eta instrumentu ezberdinak sartu ditugu. Juan Artzamendiri, eskolaren sortzaileari, hark egindako lana ez erortzea zor diogu. Haren lan eta ilusioak aurrera egiten laguntzen digu. Dena den, ins-

trumentu herrikoi gehiago irakastea gustatuko litzaiguke: txalaparta, alboka...

Instrumentuak ez ezik, ikasle motak ere ugaritu egin dira.

LOGSEa martxa jarri zenetik, adin minimoa 4 urtera jaitzi zen. Goitik ez dago adin mugarik, eta azken urteetan ikasle nagusi kopurua izugarri hazi da.

Lokarekin aldaketa ugari izan dituzue.

Duela bost urte, Saiolan eraikineren joango ginela entzuten genuen, baina guztia gelditu dago. Krisia aitzakia bezala erabiltza ez nuke nahi proiektu hori kanpoan gelditzerik.

Zein izan da Arrasate Musikalen arrakastaren sekretua?

Taldeak aipatuko nituzke. Musika etxean eta eskolan ez ezik, taldeen bitartez beste arlo batzuetara ere iristen gara.

Euria, Pazkoetako gonbidatu berezia

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Euripean hasi eta euripean amaitu dira aurtengo Pazkoak. Zalan-tza barik, jaietako protagonistak aurten euria eta hotza izan dira. Astelehenean, zorionez, euri zaparradek atseden hartu zuten eta Koadrilen Eguna behar bezala ospatzeko aukera izan zen.

800 lagun Labegaraietan

Koadrilen arteko jolasekin hasi zen asteleheneko parranda. Seminarioko zezen-plazako harmailetan jendetza batu zen; bost talde aritu ziren lehian.

Koadrilen arteko olinpiadak amaituta, Labegaraietako kiroldegian jarraitu zuen festak. Jaietako hitzordu garrantzitsuenetako bat bihurtu den herri bazkarian 800 lagun batu ziren.

Dantza eta kantu artean sekulako parranda giroa sortu zen kiroldegian.

Martitzenean eguraldi umela itzuli zen eta horrek herri kirolak edo bingoa, esaterako, goibeldu zituen. Gauean benetako negu giroan agurtu zituen jaiak Bitorianatxok.



Voces Navarras taldea.

Txosna Batzordea pozik

Txosnagunean jende asko ibili da aurten eta Txosna Batzordea oso pozik dago horregatik: "Oraindik ez gara batu balorazio formala egiteko, baina egia dena da gauetan, kontzertuetan, jende asko gerturatu dela txosnagune-ara aurten. Horrez gain, pozik

gaude domekarako prestatutako egitarauarekin, gure nahia lortu genuelako: txosnagunera denetarikoa jendea erakartzea. Irriren Lagunen ekitaldiarekin eta Anje Duhalderekin lortu genuen gazteez gain bestelako herritarrak ere etortzea", azaldu digu Txosna Batzordeko Unai Aranzabalek.



800 lagun elkartu ziren Labegaraietako kiroldegian herri bazkarirako.



Aizkolaria martitzen goizean.



Lagun koadrila bat asteleheneko herri bazkarian.



Pello Garitano beti bezain umoretsu.



Koadrilen arteko jokoetan bost talde lehiatu ziren.



Barraketan topatu zuten aterpea gaztetxoek. | ARGAZKIAK: IMANOL GALLEGO



Koadrilen arteko jokoak.



ALVARO MACHO

"Jolasetan ez gabiltza oso fin, baina gustura gabiltza. Jausi eta zikindu egin gara, baina jaiak horretarako dira".



UXUE LAZKANO

"Parte hartzen dugun lehenengo aldia da eta nahiko ondo goaz, baina neu oraindik ez naiz plazara irten".



ANA BALENTZIAGA

"Eguraldia ez dabil askorik laguntzen. Irteten naizen lehenengo eguna da eta oso ondo doa".



IÑIGO LARRAÑAGA

"Bazkari ederra eman digute: entsalada eta paella. Hori ardo apur batekin lagunduta, ezin hobeto gaude".

LEIRE IRUIN
KULTURA ZINEGOTZIA

"Ez da istilu berezirik egon; sekula baino jai lasaiagoak izan dira"

Jaietan, hara eta hona, lanpetuta ibili da Kultura zinegotzi Leire Iruin, baina

pozik dago Pentekoste jaiak aurten emandakoarekin. Okerrena, jakina, bost egunetako eguraldi petrala.

Eguraldiak makina bat buruhauste sortu dizue aurten.

Bai. Hala izan da. Uneoro egitaraua moldatzen eta bestelako planak topatzen ibili behar izan dugu. Kalean ziren ekin-tza gehienak barrura eraman behar izan ditugu.

Horrek kaleko giroa apur bat zapuztu du. Ez da hala?

Bai. Ekintza guztiak barruan egin behar hori dakar; kalean ez dela girorik ikusten. Dena dela, oso pozik gaude. Herri-tarren parte-hartzea izugarria izan da.

800 lagun batu ziren Labegaraietan asteleheneko herri bazkarian. Sekulako arrakasta aurten ere.

Bai, eta, beti bezala, giro bikaina izan zen bazkarian. Gainera, bazkalostean atertu egin zuen eta txarangarekin guztiok batera etorri ahal izan ginen kalera. Oso momentu polita izan zen.

Istilu berezirik izan al da jaietan?

Ez. Sekula baino jai lasaiagoak izan dira eta udaltzainek ere ez digute istilu berezirik aipatu. Egia esan, oso pozik gaude. Txosnetan ere jende mordo ibili da egunero, eta mota eta adin askotariko jendea, gainera. Horixe zen aurtengo egitarauarekin lortu nahi zutena, eta lortu dute.

Bideak ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikoarekin.



Goienar RENT
Ibilgailuen alokairua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIKUA ONATIN

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko

WWW.GOIENARENT.COM

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

AMAIA ZABALETA IRAZABALBEITIA
Abokatua

HELBIDE BERRIAN:
Artekale 16, behea - BERGARA - Tel.: 943 76 21 71

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Zer eskaintzen digu **LANBIDE HEZIKETAK** Mariaren Lagundia Ikastolan?



**Mariaren Lagundia
Ikastola**
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net

Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria

Esperientzian eta bizipenetan oinarritutako ikasketak.



kalitatea

konfiantza



esperientzia



AURREMATRIKULAZIOA:
maiatzaren 27tik
ekainaren 7ra

Gizarte Integrazioako Goi Mailako Teknikaria

Aurten adibidez, Gallineroko umeeekin gozatzeko aukera izan dugu, bai Madrilen bertan eta baita gurean ere.



estimulazioa

inplikazioa



hurbiltasuna

praktikak

lan munduratzea

AURREMATRIKULAZIOA:
maiatzaren 27tik
ekainaren 7ra



San Joxepe abesbatzak abestuko du mezaren amaieran. | SAN JOXEPE

87 urtetik gorako 74 pertsona omenduko dituzte domekan

San Joxepetik eta Udalak urteroko omenaldia prestatu dute: meza, oroigarri banaketa eta luncha

MONIKA BELASTEGI | BERGARA
San Joxepe elkarteak eta Udalak elkarlanean, 87 urtetik gorako herritarrek omenduko dituzte domekan urteroko ohiturari jarraituz. 74 lagunek jasoko dute omenaldia, 50 emakumek eta 25 gizonek. Ekitaldira joateko, dena den, 44k eman dute izena, San Joxepetik aurreratu dutenez.

10:30ean hasiko dituzte ekitaldiak, Santa Marina parrokiaren

egongo den mezarekin. Mezaren amaieran San Joxepe abesbatzak emanaldi txiki bat egingo du; hiru bat doinu abestuko dituzte parrokiako aldarean.

Horren ondoren, kalejira egingo dute Jardun euskara elkarte trikitilariak lagunduta San Joxepe elkartearen egoitzaraino.

Elkartean harrera egingo diete Jesus Elortza alkateak eta

Iñaki Zabala San Joxepeko lehendakariak. Eta horrekin batera, oroigarriak ere banatuko dizkiete: Udalaren zein San Joxepe elkartearen irudia eta omendua-zen izena daukan figuratxoak jasoko dute oroigarri gisa. Horrez gain, San Joxepe elkarte bazkide diren omenduek diploma ere jasoko dute. Aipatzekoa da, ekitaldira joaterik izan ez duten edadetei ere helaraziko dizkietela opariak.

Domekako ekitaldiari amaiera emateko, luncha izango da.

Mendi martxa Irunera

Eguaztenez Irunera mendi martxa egingo dute San Joxepekoek, Legazpi, Errenteria eta Irungo erretiratuekin batera. 07:00etan abiatuko dira Iburgaraiko geltokitik. 09:15ean egingo diete harrera, Irungo Luis Mariano elkartearen eta Hondarribia eta Irun inguruan ibilaldia egin eta gero, Vagon de Cola jatetxean bazkalduko dute.

Taldeak sortuko dituzte atzerriko hizkuntzak praktikatu ahal izateko

M.B. | BERGARA

Atzerriko hizkuntzak ikasten ari direnei ikaskuntza prozesuan laguntzeko asmoz, hizkuntza taldeak jarriko ditu martxan Udalak. Hala, hizkuntzak ikasten ari diren herritarrek mintza praktika egiteko aukera izango dute, astean behin, ordubetez. Taldeak gehienez, zazpi lagunekoak, eta gutxienez lau lagunekoak, osatuta egongo dira. Bestalde, parte hartzeko ez da mailaketa probarik egingo; hasiera batean, behintzat, izena ematen duen edonork parte hartzeko aukera izango du, hizkuntza maila edozein izanda ere.

Izenematea zabaltzeaz

Interesatuak zein hizkuntza praktikatu nahi duten eta zein egutegi eta ordutegi interesatzen

zaizkien adierazi beharko dute, elkarrekin adosteko. Taldeak autonomoak izango dira, beraz, ez da irakaslerik egongo akatsak zuzentzeko ezta eztabaida bideratzeko ere. Dena den, taldeak astero arduradun bat izango du, hurrengo asterako eztabaidarako gai bat hautatu eta taldekideei aurkezteko. Hala, arduradunak gai horrekin lotutako hiztegi espezifikoak, esamoldeak... landuko ditu taldekideei aurkezpena egin ahal izateko.

Hizkuntza taldean parte hartzeko kultura etxera jo edo 943 77 91 60 zenbakira dei daiteke, maiatzaren 27tik ekainaren 5era arte. Ekainaren 10ean taldeen aurkezpen batzarra egingo dute, 18:30ean, Irizar jauregian.

Gaur jasoko dute saria argazkilariek

Bergara Hiria lehiaketaren 29. aldiko argazkiak ikusgai jarriko dituzte gaur Aroztegin, ekainaren 24ra arte. Irabazleek ere gaur jasoko dituzte sariak, 20:00etan. Zuri-beltzeko sailean lehen saria Irungo Oscar Gaskonek jaso du eta herriko onena, berriz, Juan Jose Lopez Azurmendi izan da. Koloretan, Javier Fernandez Ferrerak ere jaso du lehen saria eta herriko onena Jose Agustin Gurrutxaga izan da.



JUAN JOSE LOPEZ AZURMENDI

Maneten eta Ainara LeGardonen kontzertua gaztetxean

Egubakoitzak Kartzelan egitasmoaren hirugarren kontzertua izango da gaur, egubakoitza, 22:00etan. Getxoko Manet taldeak lantzen duen pop amerikarra erakutsiko du gaztetxean. Ainara LeGardonen bilbotarrak, berriz, intentsitate handiko folk-rocka.

Ludoteka ezagutzera emateko jardunaldiak antolatu dituzte

Gaur hasi eta ekainaren 21era arte Agorrosingo ludoteka ezagutzera emateko ate irekiak egingo dituzte martitzen eta egubakoitzetan. Interesa duten guztiak joan ahal izango dira. Osintxuko ludotekak, berriz, plazan antolatuko ditu ekintzak, martitzen eta egubakoitzetan, hilaren 28tik aurrera.

Trukearen abantailen gaineko hitzaldia astelehenean

Bergarako Equo taldeak antolatu du berbaldia eta 19:30ean izango da, kultura etxean. Dirurik eta bitartekariarik erabili barik, gauzak trukatzeko dakartzen onuren gainean egingo dute berba, eta beharretan autonomo izatearen abantailak ere bai.

Bihar, zapatua, banatuko dituzte Koldo Eleizalde lehiaketako sariak

M.B. | BERGARA

Bihar banatuko dituzte Koldo Eleizalde literatura lehiaketako sariak Udal Pilotalekuan 12:00etan egingo duten ekitaldian.

Bost sailetan banatuta egon da lehiaketa eta Udala pozik dago jasotako lan kopuruare-

kin, "parte-hartzeari dagokionez aurreko urteetan baino txikixeagoa" izan bada ere. Gehitu dutenez, "nabarmen-tzekoa da bai ipuin idatzien sailean eta baita ipuin-kontakteta/ antzerkian nagusien kategorietan izan den gorakada. Horrek berorrek ekarri du genero eta kategoria horietan lanen kalitatea jasoa eta kasu batzuetan bikaina izatea".

Ipuin idatzien sailean 302 lan jasotuz; bertsoen sailean, 21; komikian, 45; ipuin-kontakteta/antzerkian, 32; eta txiste eta umorezko pasadi-zoetan, 20 lan.

Emanaldiak ere egongo dira Bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan egingo den ekitaldian, sariak emateaz gainera, ikastetxeek prestatutako zenbait emankizun ere izango dira eta saritutako lan batzuk ere ikusi edo entzungo dira.

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Promozio berezia inaugurazioagatik

%10eko deskontua produktu guztietan, txartel hau aurkeztuta*



- Sendabelarrak
- Dietetika
- Kosmetika naturala
- Elikagai biologikoak
- Zereal biologikoak soltean

- Pisuaren kontrola
- Kontsulta naturista

Bidekurutzeta 20
BERGARA
Tel.: 943 762927

*Uztailaren 31ra arte baliagarria

Aloñako larreetara ia 4.000 abelburu igotzeko eskaria jaso dute Udalean

O.E. | OÑATI

Guztira, 3.000 ardi, 400 behor eta 200 behi igo dituzte Aloñako larreetara herriko abeltzainek. Maiatzaren 1etik aurrera eraman ahal izaten dituzte gora, eta ia 4.000 abelburu igotzeko eskaria jaso dute Udalean. Aloñara ez ezik, Artiara eta Araotz-txirialekura ere eraman dituzte. Maiatzaren 1etik otsailaren 28ra bitartean dute aukera abeltzainek euren abelburuak Aloñan izateko; askok, baina, negu parterako etxera ekartzen dituzte. Tarteko bi hilabetetant, gutxienez, atsedean hartzen uzten diete mendiko larreei.

363 partaidek bukatu dute fosilen jolasa, Txandarekin

Guztira, 590 eskuorri banatu dituzte Oñatiko Udalak, Garen Agentziak eta Txandak elkarrekin antolatu duten fosilen erakusketa-jolasarekin; 363k bukatu eta opari bana jaso dute. Madagaskarko enborraren zozketaren irabazlea, berriz, 6 urte dituen Maddi Ugarte izan da.



Eguaztenean kultura etxean egindako prentsaurrekoa. | J.I.

Atez atekoari ongietorri festa bihar, zapatua

Oñati Zero Zabor taldeak egin du deialdia eta mosaiko bat egin gura dute 'Zorionak' hitzarekin

JULEN IRIONDO | OÑATI

Oñatin atez ateko hondakin bilketa hasteko eguna gerturatzen ari dela-eta, Zero Zabor taldeak dei egin die herritarrei zapatuan plazan egingo duten ongietorri ekitaldian parte har dezaten. "Gure hondakinek ez dute osa-

sunerako kaltegarriak diren errautsik sortuko. Gure hondakinak ez dira ingurumena kutsatzen duten zabortegietan metatuko. Gure hondakinekin ez dugu gure ondorengo ongizatea baldintzatuko. Gure hondakinekin ez. Oñatiarrokin ez. Eta hau ospa-

tu baharra dagoela iruditzen zaigu. Urteetan zaborrarekin sudur puntan jartzen zaiguna egitetik, ondorengoekiko eta ingurumenarekiko errespetuz jokatzeko pasako garelako", adierazi zuen Imanol Biainek, Oñati Zero Zabor taldeak eguaztenean egin zuen prentsa agerraldian. Bihar, zapatua, eguerdian egingo dute ekitaldia, 13:00etan, Foruen plazan, eta ordu erdi iraungo du. Pankarta handi bat egingo dute eta haren inguruan argazki bat aterako dute. Ondoren, mosaiko txiki bat egiteko ahalegina egingo dute, *Zorionak* hitzarekin.

Oñati Zero Zabor taldeko kideek poza adierazi dute ekitaldia iragartzeko agerraldian, euren esanetan hondakinak egoki kudeatzeko helburuz egindako bi urteko lanaren ostean sistema berria ezartzera doazelako herrian. Sistemarik eraginkorrena, %80rainoko gaikako bilketarako modua ematen duena, azaldu dutenez.


Adierazi dute Gipuzkoako beste bederatzi herrirekin eta munduko beste hainbatekin batera eredugarri izango dela Oñati, eta hondakinak prebenitu, berreskuratzea eta birziklatzearen garrantzia nabarmendu dute.

Bestalde, arduragabekeria eta arinkeriatzat jo dute Gipuzkoako atez atekoaren kontrako plataformek oñatiarrei etxerako edukiontzia ez jasotzeko egindako deia, eta konfiantza agertu dute jendeak ez diela kasurik egingo. Sortuk, bestalde, bat egin du biharko deialdiarekin.

Hondakinak gaika biltzeko kuboak banatzen dabilta

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Eguaztenean hasita, Bidaurretatik gora bizi direnei ari zaie banatzen hondakinak gaika jasotzeko materiala. Astelehenetik aurrera, Bidaurretatik behera bizi diren oñatiarrei banatuko zaie. Kiroldegian jaso beharko dute materiala, nortasun agiria erakutsita. Organikoa, errefusa eta papera biltzeko kuboak, plastiko eta ontzi arinendako poltsa horiak, hiztegitxoak eta hondakin bakoitzaren zein egunetan atera behar den gogorarazten duen imandun egutegia ari dira banatzen. Landa-gunean, auzo alkateen bidez egingo dute banaketa.



Eguazten goizean ETEOn. | O.E.



JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Osakidetzako edozein ospitaletan
- Osakidetzako ambulategietako kontsultetan
- Ospitale pribatuetan
- Zaharren egoitzetan
- Eguneko zentruetan
- Kontsulta pribatuetan
- Hortz kliniketan
- Etxez etxeko gaixoen zaintzan
- Adimen urrituentzako zentruetan
- Bainuetxeetan

AURREMATRIKULA:

Maiatzaren 27tik 7ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Uztailaren 8tik 12ra (biak barne)



J.M. IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g - 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxe: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
www.jmiparragirre.hezkuntza.net - 012286aa@hezkuntza.net

Martitzenean egingo dute maiatzeko Ostegun Kontalariak

Datorren martitzenean, hilak 28, egingo dute Ostegun Kontalariak ekimeneko maiatzeko ipuin kontaketa. Berez, hileko azken egunean egiten da, baina, 30erako greba deituta dagoenez, erabaki dute ipuin kontaketa martitzenean egitea.

Ipuin kontaketa 3 eta 6 urte bitarteko umeendako izango da eta Saioa Aizpurua etorriko da istorioa kontatzera haurren liburutegira. Joan gura duten umeek gonbidapena jaso dezakete haurren liburutegian.

Jaietako txosna batzordea hasi da bilerak egiten

San Migel eta Errosaixo jaiak urrutu samar dauden arren, txosna batzordea hasi da dagoeneko jaietara lanean. Aurtengo jaietako egitaraua prestatzeko bilerak egiten hasiak dira txosna batzordeko kideak. Asteleheneretan egiten dituzte, arratsaldeko zazpitan, Antixena gaztetxean. Irailaren 28an hasiko diren jaietako egitaraua osatzeko, herritarren ideiak entzun gura dituzte, eta, horrenbestez, edonor joan daiteke batzar horietara.

Bigarren bizikleta tailerra antolatzea ari da pentsatzen Udala, ekainerako

O.E. | OÑATI
Bizikleta tailer soziala antolatu du Udalak biharko, zapatua. Dagoeneko beteta daude plazak, baina, herritarrek erakutsi duten interesa ikusita, baliteke beste tailer bat antolatzea datorren hilean, ekainean. Horregatik, nahiz eta oraingorako tokirik ez egon, izena emateko animatzen ditu Udalak herritarrak. Antton Zubia oñatiarra izango

da biharko bizikleta tailerraren gidaria. Zuazola institutuaren aurrealdean egingo dute, goiz eta arratsalde. Nork bere bizikleta eraman beharko du eta haren mantenua eta mekanika erakutsiko die Antton Zubiak. "Izan ere, zenbat eta gehiago ezagutu bizikleta, orduan eta gehiago erabiltzen da, eta horixe bera da helburua", zehaztu du Zubiak.



OIHANA ELORTZA

Uliaspiko egoiliarren argazkiak

Bergarako Uliazpi zentroan arreta jasotzen duten eta adimen urritasuna duten pertsonak ezagutzera emateko asmoz ekarri dute *Zu bezalakoa naiz* erakusketa kultura etxera. Alicia Gartzia, zentroko zaintzaileak, atera ditu ikusgai dauden formatu handiko 18 argazkiak. Bihar, zapatua, da erakusketa ikusteko azken eguna.



Aitor Arregi zuzendaria azalpenak ematen. | TXOMIN MADINA

Oroitzapen onak Guriako azken egunak ikusita

TXOMIN MADINA | OÑATI

Zinema aretoko eserlekuak ez ezik, aldameneko pasilloak ere jendez bete ziren eguzten iluntzean Aitor Arregik zuzendutako *Azken egunak Gurian* izeneko dokumentala ikusteko.

Beste emanaldi baten eskan

Duela bi urte itxi zuten Guria taberna, eta haren azken 15 egunak jasotzen ditu Arregiren lanak: herri bazkaria, kontzertuak, azken eguneko jaiak eta taberna itxita dagoela, barrua husten, besteak beste. Eta irudiekin batera, Guria senideen eta ohiko bezeroen testigantzak, besteak beste, Guria euredako eta herriarendako zer

izan zen gogoratzen: telebistarik gabekoa, musika zaintzen zuena, berrikerian egiteko gunea... eta, zelan ez, Espe ere bai.

Azpiazu anaia-arreba guztiak egon ziren eguzteneko aurkezpenean. Eta baita Aitor Arregi zuzendaria ere. Taberna itxi zutenean, Klementx eta Anton Azpiazu anaia larrosak banatu zituzten inguruko komertzio eta tabernetan, agurtzeko eta eskerrak emateko. Hura ere grabatu zuen Arregik, eta haren ustez, dokumentalaren zatirik politenetakoa da.

Aurkezpenak izan duen harreara ona ikusita, litekeena da beste emanaldi bat ere egitea.

berriak 10 urte

zatoz gurekin ospatzera

Webgune berezia:
www.berria.info/berriataldea
izan zaitez
berrialaguna



Antolatzailea: **berria**
Laguntzailea: **hitza**

berria
hamarnaka
kontatzekoak gara

Babesleak:



LABORAL
kutxa



Maiatzak 25, Elgeta



Kontzertua **Bizardunak**

22:30ean • Espaloia Kafe Antzokian

Sarrerak aurrez:

- Interneten: www.berria.info/berriataldea
- Elgetan: **Espaloia Kafe Antzokian**
- Bergaran: **Jardun** elkartean
- Arrasaten: **AED** elkartean
- Aretxabaletan: **Loramendi** elkartean

Sarrerak egunean bertan: **Espaloia Kafe Antzokian**

Sarrera: 5 € berrialagun harpidedunentzat
eta berrialagunentzat. Gainerakoentzat: 10 €

Oharra: Harpidedun edo BERRIALAGUN txartela erakustea ezinbestekoa izango da, eta txartel bakoitzarekin bi sarrera eskuratu ahal izango dira gehienez.

Laguntzailea:



Musikan igarotako urteak, kontzertuan gogora ekarrita

Drakes taldearen 10. urteurrena eta duela 30 urte herrian izandako punk kontzertua oroitzeko dituzte

IURE EIZAGIRRE | OÑATI

Gaztelekuak lau talderen kontzertua hartuko du bihar. Drakes oñatiarrek, Basura eta Odio oreretarrek eta Sutura trintxerpearrek bertan joko dute, 22:00etan hasita. Ez da nolanhiko kontzertua izango, ia guztiek dutelako urteurrenen bat gogoratzeko.

Hamar urte pasa dira gaztetxo osatutako Drakes taldeak lehen kontzertua eman zuenetik. Gaztelekuan izan zen emanaldi hura, eta, ordutik hona kontzertu pila

bat eman badituzte ere, oholtxa gainera lehen aldiz igo ziren lekura bueltatuko dira 10. urteurrena ospatzera.

Kontzertua grabatzeko asmoa du talde oñatiarrak, zuzeneko diskoa kaleratzeko gero.

Punk kontzertu mitikoa

1983ko apirilaren 16an punk kontzertua izan zen Oñatiko plazako pilotalekuan. Cicatriz en la Matriz, RIP, Vulpess, Odio, Basura, Cirrosis, Desorden eta Ultimo Resorte taldeek jo zuten orduko hartan,



Drakes taldeak 2010ean aurkeztu zuen azken diskoa. | GOIENA

eta zenbait oñatiarrek gogoan du oraindik.

Orduan bizi izandakoa oirtzeko aukera izango dute talde haietatik bizirik dirauten Odio eta Basura taldeekin. Berrikuntzak izan dituzte biek, kide berrie-

kin indarberritu dira, baina aldarrikapen mezuak zabalitzen jarraitzen dute.

Sutura taldea, berriz, bere 15 urteko ibilbidea jasotzen duen *15 años* diskoa aurkeztera dator Oñatiko Gaztelekura.

Urgainen festa umeendako jardueraz beteta dator

I.E. | OÑATI

Haurrak izango dira bihar ospatuko den Urgain Eskolaren Jaiko protagonista nagusiak. Eskolarekin duten lotura euren zentroetatik atera eta plazara eramango dute.

Arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara, eurendako ekintza ugari antolatu dituzte Foruen enparantzan. Xaboa eta kandelak egiten ikasiko dute, baita aurpegia eta maskarak margotzen ere. Barre artean saltoka ibiltzeko ohe elastikoak egongo dira plazan. Gainera, arku tiratzearekin eta globoflexiarekin gozatu ahal izango dute. Eta altuerei beldurrik ez dietenendako, tirolina jarriko dute udaletxeko balkoitik plazara.

Herriko ikastolen bilgune

Oñatiko ume guztiendako antolatu dute zapatuko festa. Hori da, hain zuzen ere, Urgain Eskolaren helburua. Iaz abenduan batu ziren herriko lau ikastetxe publikoak izen horren pean. Oñatiko euskal eskola publiko baten irudia ematea eta izaera bakarra izatea du helburu.

Bertsolari eta trikitilari artean ospatuko dituzte Araotz auzoko Trinitate jaiak

I.E. | OÑATI

Auzoetako jaien garaia da eta Errekalde Araotzi pasako dio lekukoa asteburuan. Helduek emango diete hasiera zapatuan, 16:30ean jokatuko duten mus txapelketarekin. Txikienentzako haur jolasak ordu erdi geroago izango dira. 21:00etan mahai baten inguruan batu, eta Julio Soto eta

Andoni Egaña bertsolariarekin gozatu dute afaria. Trikitilariak ere izango dira. Gauerdian bola txapelketa jokatu dute.

Domekan 11:00etako mezarekin helduko diote bigarren egunari. 11:30ean salda eskainiko diete bertaratzin direnei. 12:30ean herri kirolak eta herriko bertsolariak eta trikitilariak egongo dira.

Cabezafuego bakarlariak kontzertua emango du domekan Pako tabernan

I.E. | OÑATI

Atom Rhumba, Mermaid eta Bizardunak taldeetan ibili ostean, Cabezafuegok bakarkako ibilbidea hasi du. Ikus-entzuleek domekan izango dute haren lana ezagutzeko aukera; izan ere, kontzertua emango du, 19:30etik 21:00etara, Pako tabernan. Emanaldian, ikusleak

harritu eta jokoz kanpo uzteko ahalegina egingo du.

Abestiak Interneten

Sarean hilean abesti bat zintzilikatzeko erronka du Cabezafuegok. Dagoeneko *El traje del emperador* eta *Cruces de Hierro* entzungai daude haren bandcamp gunean.

DEBAGOIENENKO LANBIDE HEZIKETAREKIN

ARETXABALETAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 22an, 18:00etan

ALE – Aretxabaleta Lanbide Eskola

☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43

www.iaretxabaleta.com



BERGARAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 25ean, 11:00etan

IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara

☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40

www.imaltuna.com



OÑATIN:

Ate irekiak: Maiatzaren 28an, 18:30ean
(Larrañako egoitzan)

RM Zuazola – Larraña Institutua

☎ 943 78 21 50

www.onati.net

"etorkizuna zure esku"



AURREMATRIKULA: maiatzaren 27tik ekainaren 7ra. • **MATRIKULA:** uztailaren 8tik 12ra.

Aste honetan banatu ditu Udalak 'Kantu eta jolasak' DVDak 4 eta 5 urteko neska-mutilen artean

Kurtzebarriko eta Basabeazpiko ikasleek eguaztenean jaso zuten Debagoieneko euskara zerbitzuek 2006an sortu zuten *Kantu eta jolasak* izeneko DVDa. Horren bidez, gurasoei umeekin euskaraz jolas egiteko aukera eskaintzen zaie eta, gainera, hizkuntza ohituratan modu egokian eragiteko aholkuak jasotzen dituen Kike Amonarrirek idatzitako *Biharko euskara, gaur* liburuxka dago.

Herrirak antolatuta, lehenengo aldiz egingo dute bihar Herriko Plazan bigarren eskuko azoka

Herrirak bigarren eskuko azoka antolatu du biharko, zapatua. Gisa horretako ekintza bat herrian antolatzen duen lehenengo aldia da. Egun osoan -11:00etan hasi eta 20:00ak bitartean-, Herriko Plazan, herritarrek emandako hainbat kontu prezio onean aurkitu ahal izango dira: "Arropa dezente batu da, umeentzako jostailuak daude, puzzleak, etxerako tresnak...". Aretxabaletar guztiei egin diete dei plazara joan daitezen.

Aitatasunari eta maskulinitateari buruzko berbaldia antolatu du Kuku Mikuk ekainaren 6rako

Kuku Miku elkarteak ikasturteko azken berbaldia antolatu du; Iñaki Kasares bizkaitarrak *Aitatasuna eta maskulinitatea* izeneko berbaldia eskainiko du ekainaren 6an, 17:30ean hasita, Kuku Mikuren elkartearen bertan. Gizonezkoentzako bakarrik izango da saioa, eta, aditzera eman dutenez, interesa duten guztiek aurrez eman beharko dute izena; ekainaren 3ra arte kukumikuelkarte@gmail.com helbidera idatz dezakete.



Pablo Lombardo izan zen lehiaketan azkarrena. | LARA GARABATEA

Trebezia eta azkartasuna erakutsi zuten lehiaketan

'Bertikal' jokoaren lehenengo lehiaketa egin dute eta uztailean umeen txanda izango da

Z.V.D.M. | ARETXABALETA
Maiatzaren 16an jokatu zuten Aretxabaletan *Bertikal* txapelketa. 20 lagunek eman zuten izena; azkarrena Pablo Lombardo izan zen, eta 700 euro eskuratu zituen. Lombardok 18,84 segundoan amaitu zuen zirkuitua eta errekorra egin zuen.

bardo izan zen, eta 700 euro eskuratu zituen. Lombardok 18,84 segundoan amaitu zuen zirkuitua eta errekorra egin zuen.

Antolatzaileak, pozik

Pablo Lombardo, Gorka Jimenez eta Eider Encina izan ziren lehenengo *Bertikal* lehiaketaren hiru irabazleak; 700, 300 eta 100 euroko sariak eskuratu zituzten, hurrenez hurren.

Antolatzaileak pozik azaldu dira aurreneko txapelketan izandako parte-hartzearekin: "Jendea, gainera, oso prestatuta etorri da".

Bestalde, umeentzako txapelketa egingo dutela eman dute aditzera: "Oraindik data zehaztu ez badugu ere, uztailean aldean izango da".

Aretxabaleetako Udalak 114.850 euro bideratu ditu aurten dirulaguntzetara

Kontratazioa sustatzeko, euskara ikasteko eta udal tasak ordaintzeko laguntzak daude, besteak beste

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aretxabaleetako Udalak herritarrentzako hainbat dirulaguntza atera ditu: kultura, euskara, hezkuntza, gizarte zerbitzu, kirol eta enplegu arloetan emango dira; guztira, 114.850 euro. Xabier Mendizabal udal idazkariak aditzera eman duenez, krisiak krisi, mantendu egin dituzte laguntzak: "Nahiz eta zenbait kasutan jaitsi egin den apur bat horietara bideratutako aurrekontua".

Egoitza eta jardun eremua herrian daukaten pertsona zein elkarteek egin dezakete eskaera. Salbuespenen bat bada, halere: egoitza Aretxabaletan ez eduki arren herrian jarduera eremua dutenek ere aurkez dezakete eskaerak. Horretarako azken eguna ekainaren 14a izango da.

Kopuru handiena GKEetara

Nabarmentzekoa da Udalak garapenerako lankidetzara programek bideratu duela aurrekontu handiena: 27.000 euro. Hau da, gobernu kanpoko erakundeei zuzenduta dago kopuru hori.

Enpresei laguntza

Enpresa ekimen berriei zuzendutako laguntzen kopurua ere esanguratsua izango da 2013an: 20.000 euro. Eskatzaileek bete beharko duten baldintzetako bat da gutxienez 3 urtean egoitza herrian mantendu beharko dutela.

Eta krisi egoera hobetu alde, kontratazio berriak ere sustatu gura ditu Udalak; 10.000 euro bideratuko ditu. Aintzat hartuko



Txirrindularia bidezidorrean. | GOIENA

ditu, besteak beste, lanpostuetarako emakumeak kontratatzen dituzten, 45 urte baino gehiagoko pertsonak diren...

Kirol jarduerak sustatuz

Kirol arloan, taldeen ohiko jarduerak antolatzeko dirulaguntzak daude: 16.500 euro. Asier Muxika Kirol teknikariak adierazi duenez, "kirolari federatu kopurua, entrenatzaile kopurua eta beraien titulazioaren arabera banatzen da dirua". Eta ekintza bereziak antolatzeko, aldiz, 1.500 euro egongo dira: "Mendiko bizikleta lasterketak, trialsin txapelketak eta beste antolatzeko, besteak beste".

Kultura jarduerak, euskara...

2013an kultura proiektuak eta programak gauzatzeko dirulaguntza

tzen aurrekontua 15.000 euro izango da. Programak kulturari egiten dion ekarpena, taldeak urtean zehar antolatzen dituen ekintzak eta taldeak Udalak antolatutako ekimenetan parte hartzea baloratuko dituzte laguntzak emateko orduan. Gainera, urtero, herriko talde ugari eta partikularrek euren produkzio lanak ordaintzeko finantzazioa bilatzen dute. Hori jakinda, 3.000 euro bideratuko dituzte aurten grabazioetara.

Euskararen kasuan, laguntza ezberdinak emango dira. Erabilera sustatzen duten entitateei zuzenduta 2.350 euroko laguntza dago. Eta errotuluak, irudi korporatiboak eta beste euskaratu gura dituztenentzat, 1.000 euro.

Hezkuntzarako prestatutako laguntzen artean, guraso elkarteek ekintzak antolatzeko eska dezaketena (4.000 euro) dago. Bestetik, euskara ikasteko edo euskararen normalizazioaz zerikusia duten ikastaroak egiteko, 500 euro.

Urte amaierara arte

Uraren, estolderiaren eta zaborraren udal tasaren zati bat ordaintzeko laguntza ere badute herritarrek -2.000 euro-. Bestalde, 4.000 euro jarri ditu Udalak, EAETik kanpoko espesietan preso dauden senideak laguntzeko asmoz. Eta 3.000 euro bideratu ditu droga zein beste mendekotasunen bat dutenen tratamenduetara. Hiru kasu horietan, urtea amaitu arte egin dezakete herritarrek laguntza eskaera.



Festa egin zuten GSR Debagoienako egoiliarrek

Aretxabaleetako GSR Debagoienako egoiliarrek arratsalde-pasa ederra egin zuten eguaztenean. Nagusilanean antolatuta eta Jose Maria Soroak eta Jesus Mari Zalduak gidatuta, kantaldia egin zuten eta txistek kontatu zituzten. Amaieran, oparien zozketa egon zen. Nagusilanean gogora ekarri zuten egoitzan boluntarioak behar direla.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Berba bako lengoaiaren erritmora dantzan

Tango taldea duela hiru urte sortu zen Aretxabaletan; zortzi kide ditu eta astelehenero elkartzen dira

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Tangoa dantza soila baino askoz gehiago da praktikatzeko dutenentzat. Berbarik gabeko lengoia da, sentimendu berezi bat.

Konplizitatea oinarri

Aretxabaletan ere badira pasio hori sentitzen dutenak. Duela hiru urte sortu zen tango taldea herrian; zortzi lagun elkartzen dira astelehenero Kurtzebarri ikastetxeke gimnasioan, 20:00etan.

Gasteizko bi irakasleren gidaritzapean barneratzen dituzte herriko dantzariak tangoaren sekretuak. "Emaztea eta biok beti dantzatu izan dugu; salsa, esaterako. Baina, duela zazpi urte, tangoa ikasi guran Gasteizera joaten hasi ginen. Gerora, berriz, *harrapatu* egin gintuenez, herrian ere aukera egon zedin gura genuen

eta duela hiru urte sortu genuen taldea". Horrela azaldu du Mariano Romero aretxabaletarrak.

Beste dantza batzuek ematen ez duten zerbait dauka tangoak, aretxabaletarraren esanetan. "Lehenengo unetik, ikasten duzun aurreneko mugimendutik, indarra eta pasioa transmititzen dizu tangoak". Horrez gainera, funtsezko ezaugarri bat ere badu sustrai argentinarrek dituen diziplina artistikoak: dantza-bikoteak izan behar duen konplizitatea: "Hori gabe, ez dira gauza politik irtetzen".

Argentinako dantza gurean

Gizon-emakumez osatutako taldea da Aretxabaletakoa, modu orekatuan osatua, gainera. Eta nahiz eta jatorri argentinarreko dantza bikoteka egiten dela argi egon, historian aldaketak izan ditu.

"Hasieran, gizonzkoen artean dantzaten zen; ostean, gizonek portuko emagalduekin dantzaten zuten; eta gerora, erdi eta goi mailako pertsonak tangoak nola baiteko *glamour*-a eta erakargarritasuna zuela ikusi zutenean hasi ziren dantzaten".

Dantza Astearen barruan

Aretxabaletako lagunak asteen behin bakarrik elkartzen dira praktikatzeko, baina aste hau berezia izan da zortzi lagunentzako. Eguazten iluntzean Aretxabaletako Dantza Astearen baitan erakustaldia eskaini zuten Herriko plazan.

Askorentzako, kalera dantzazera irtetzen ziren aurreneko aldia

izan zen. Astero moduan, astelehenean elkartu zirenean urduritasuna nabari zen gizon-emakumeen artean. Eta azken unera arte tentsioa igarri arren, ongi joan zen guztia, Romerok emanaldiaren ondoren adierazi zuenez.

"Gure asmoa izan da jendeari herrian tangoa dantzatzeko aukera badagoela erakustea. Eta interesa duten guztiek taldearekin bat egin dezakete. Ez da adin kontua, ezta fisiko kontua ere; ikastearekin eta dantza egin gura izatearekin nahikoa da". Hala, herriko tango taldeak interesa duten guztiak animatzen ditu astelehenero Kurtzebarriko gimnasioan haiekin bat egitera.

Bihar milonga Herriko plazan

Bihar, zapatua, Herriko plazan. Bilbon bizi den Fernando Valsega abeslari argentinarrek Exilio New Tango orkestrarekin batera *La luna en el conventiyo* emanaldia eskainiko du 20:30 inguruan. Doinu argentinarrek nagusituko dira, eta bide batez, dantzatzera animatuko direnak ere egongo direla adierazi du Mariano Romero Aretxabaletako tango dantzariak: "Gu bertan egongo gara eta Gasteiztik ere etorriko direla badakigu".



Tango taldeko kideak astelehenero elkartzen dira. | Z.V.D.M.

Jatorri askotariko ardoak eta janari goxoak dastatuz, Atsedeen ardotegian

Aretxabaletako Izartu eta Atsedeen tabernak jabe berarenak dira. Azken horrek arduraduna, langileak, erabilera eta zerbitzuak aldatu ditu eta ardotegi moduan ireki ditu ateak.

Ardotegi moduan ireki zituen ateak Atsedeenek otsailaren 7an; aurretik taberna kudeatzen zuenak utzita, aurpegi berrituta agertu da Araba ibilbideko 27. zenbakiko lokala.

Edaria eta janaria

Ardoen karta zabala daukate Atsedeen: Erriberakoak, Arabakoak, Holandakoak... Horiek dastatzeko aukera bikoitza ematen dute, gainera: barran eskatuta edo makina berezi baten bitartez nork berea zerbitzatuta.

Jaten ere ematen dute ardotegian; 20 laguneko bitxandatan bazkari eta aforiak eskaintzen dituzte Portasolgo ardotegian. Menurik ez eman arren, plater konbinatuak zerbitzatzen dituzte, baita zer-



Ardoa zerbitzatzeko makina dute Atsedeen ardotegian.

“ Ez da ohikoa gurean horrelako makinak ikustea. Txartel bat ematen dugu doan eta bezeroak diruz betetzen du; ondoren, bertako edozein ardo dastatzeko aukera dago. ”

txobait landuagoak ere: "Bakailao zein txipiroi platerrek arrakasta izan dute orain arte probatu dute nengan". Eta eskaintza berezia daukate eguaztenero: egun horretan zerbait hartzera doazenei doako pintxoa ematen diete edarriarekin.

Jan osteko kafearen ondoren, konbinatu freskoak ere har daitezke; izan ere, daukaten makina berezi batek gehiago hozten ditu izotzak.

Ardo-dastatzeak

Atsedeen ardotegiko arduradunak hasi dira ardo-das-

tatzeak antolatzen. "Ideia 30 lagunentzako dastatze une atsegina sortzea da. Hainbat ardo berezi probatu eta mokadu bat jateko aukera izango dute bezeroek. Ekain erdialdean izango da". Informazio gehiago, Atsedeen eta Izartu tabernetan.

'Euskal Herria: Ezkutuko zorra' ikus-entzunezkoa astelehenean

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak antolatuta, ekologia ardatz duen ikus-entzunezkoa eskainiko dute astelehenean, hilak 27, Zاراia aretoan, 19:00etan hasita.

Euskal Herria. Ezkutuko zorra lana emango dute, eta horren osterako antolatuta dagoen hizketaldian, herritarrek iritzi, ideia eta beste konpartitzeko aukera izango dute.

Iparraldeko herriei kritika

"Historikoki gure kontsumorako zein industriarako erabiltzen ziren lehengaien jatorria Euskal Herrian zegoen, batez ere. Gaur egun, ordea, kontsumitzen ditugun material

gehienak oso urrutitik ekartzen dira". Hala hasten da astelehenean Zاراian eskainiko duten dokumentala.

Jarraian, Iparraldeko herriek modu horretan jarduteak Hegoaldeko herrialdeetan kalte ekologiko eta sozialak eragiten dituela azaltzen du Ekologistak Martxanek egindako lanak.

Olaizek gidatutako solasaldia

Asteleheneko ekitaldian parte hartuko du Kepa Olaizek, Ekologistak Martxan taldeko kideak. Hori horrela, bertaratzen direnek bideoa ikusi ostean Olaizek berak gidatutako solasaldian parte hartu ahal izango dute.

atseden

vinoteca

Araba ibilbidea 27
Aretxabaleta
943 08 10 66
vinoteca_atseden@hotmail.com

Ardo dastatzea ALTUN upategiarekin

Ekainaren erdialdean
Izen-ematea eta informazio gehiago:
Atsedeen ardotegian 943 08 10 66

Herriko toponimoen ahozko bilketa hasi dute

Datozen hilabeteotan, kaleko eta elizateetako tokien izenak jasoko dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Herriko toponimia aztertze lanaren bigarren faseari ekin dio hil honetan Udalak, Ikermap enpresaren eskutik. Maiatzetik uztailera bitartean, lekuen ahozko bilketa egiteko Oxel Uribe-Etxebarria eskoriatzarra kontratatu dute.

2011. urte bukaeran hasi zuen Ikermapek Eskoriatzako toponimoen azterlana. Hasieran, artxiboko eta erregistroko iturri dokumentalak aztertu zituzten eta orain, ahozko toponimiaren bilketa egingo dute. Lan horretarako deialdia egin zuten, eta Uribe-Etxebarria aukeratu dute. Hari dagokio hilabeteotan lur-jabeekin eta inguruaren ezagutza duten eskoriatzarrekin zuzenean egotea, toponimoak jasotzea eta kokalekuak egiaztatzea.

Eman beharreko pausoak

Ahozko bilketa amaitzean, Uribe-Etxebarriak egindako lana programa informatikoan jasoko du Ikermapek, eta, ikerketa amaituta daukanean, Euskaltzaindira bidaliko du, lana gainbegiratzeko. Azterketa ez da hor amaituko; izan ere, Euskaltzainditik itzultzean, Udalak jendaurrean jarriko du lana, eskoriatzarrek kontrastatzeko aukera izan dezaten.

Lan hori osatua eta egokia izan dadin, Udalak eskoriatzar guztien parte-hartzea eskatu gura izan du.

OXEL URIBE-ETXEBARRIA | ARDURADUNA

"Oso garrantzitsua da toponimo guztiak jasotzea eta gordeta izatea"

Herriko toponimia batzeaz arduratuko da datozen hilabeteotan Oxel Uribe-Etxebarria eskoriatzarra. Datorren lerroetan, egin beharrekoa azaldu digu Euskal Filologian lizentziatuta dagoen gazteak.

Zein da zure lana?

Udalak Ikermap enpresari agindu dio herriko toponimiari buruzko ikerketa egitea. Orain arte dokumentazio lana egin da, eta, orain, ahozko bilketa egiteko ni kontratatu naute. Tokien izenak jasotzea da nire lana.

Lan praktikoa orduan...

Hala da. Kale eta elizateetara joango naiz; bereziki, baserrietara, eta lur-jabeekin berba eginez toponimoak jasoko ditut uztailera bitartean. Bisita egin aurretik, baina, jabeen jakinaraziko zaie hara joango naizela. Elizateen kasuan, esaterako, Udalak dagoeneko abisatu die auzo alkateei, eta haien bitartez gabilta abisua ematen.

Herriko toponimoak galtzeko arriskurik badago?

Asko bai. Toponimoak belaunaldiz belaunaldi joan dira denborarekin transmititzen; baina, azken urteotan, jendea baserrietatik gutxiago bizi denez, apurka galtzen joango



M.B.

direla iruditzen zait. Hori dela eta, oso garrantzitsua da horiek guztiak jasotzea eta gordeta izatea. Lanean hasi berria naiz, bi baserri baino ez ditut bisitatu, baina suposatzen dut gazteekin baino gehiago jende nagusiarekin egingo dudala topo, nagusiek jakingo dituzte-eta, bereziki, tokien izenak.

Nolakoak izan dira orain arte egindako bi bisita horiek?

Oso ondo hartu naute, eta asko lagundu didate, euren eskuetan zegoen guztia emanda. Asko eskertzen dut hori. Horren harira, espero dut hemendik aurrera ere horrelakoa izatea eta eskoriatzarrek gai honekin kolaboratzen jarrai dezatela.

Fibrosi kistikoa ikertzen laguntzeko, borroka arteen jaialdia dago bihar

M.B. | ESKORIATZA

Fibrosi kistikoaren ikerketa bultzatzeko, borroka arteen jaialdia izango da bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan. 10:00etatik 20:00etara bitartean, askotariko modalitateetako irakasleek eskainitako emanaldi ikusgarriak ikusteko aukera izango da, hala nola judo, kenpo kai, kick boxing, kenpo full defense, kenkido aikido, nae system, brazilian jiu jitsu eta keysi fighting method.

Azken modalitate horren ikuskizuna bere fundatzaile Justo Dieguezek eskainiko du. Besteak beste, *Batman*, *Jack Reacher*, *El Caballero Oscuro*, *Furia de titanes*, *Juegos de tro-*

nos eta *Misión imposible* film ospetsuetako koreografoa da.

Gaixotasun larria

Sarrerak lau eurotan salduko dituzte; ikusleen artean Jakion produktuz osatutako otarra zozketatuko dute. Jaialdian lortzen den dirua Arnasara, Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkartera, bideratuko da. Arnas eta digestio aparatuetan eragiten duen gaixotasun genetiko larria tratatzeko aurrerapenen gaineko informazioa eta ikerkuntzarako laguntza eskaintzen du elkarteak, eta baita gaixoaren egoera fisikoa hobetzeko zerbitzua ere. Horren guztiaren finantzaketan lagunduko du lortutako diruak.

Etxeetako balkoiek eta leihoek ekainaren 14rako gertu egon behar dute loreen lehiaketarako

Udalak seigarrenez antolatu du leiho eta balkoien loreen lehiaketa. Parte hartu ahal izateko ez da beharrezkoa izenik ematerik; nahikoa da leiho eta balkoiak loreekin, aihen-belarrekin edo beste edozein landarerekin apaintzea. Diseinua librea da; baldintza bakarra da ekainaren 14rako balkoi guztiek prest egon behar dutela epaimahaiak baloratu ahal izateko. Bestalde, sari bakarra egongo da, bertako produktuz osatutako saskia. San Pedro bezperan, ekainaren 28an, jakinaraziko dute irabazlea.



OLAZAR ERRETIRATUEN ELKARTEA

Musean eta tutean txapelkunak

Altzan jokaturako Gipuzkoako Mahai Jokoen Txapelketako finaleraino iritsi zuten Eskoriatzako Olazar erretiratuen elkarteak ordezkariek. Musean erakustaldi bikaina eskaini zuten Eugenio Crespok eta Paco Gomezek, eta garaileen txapela jantzi zuten; tute txapelketan, berriz, bigarren izan ziren Jose Zubiria eta Maximo Iñurrategi. Zorionak!

OHARRAK

PERKUSIOA GAZTELEKUAN

Aste bukaeran perkusioa izango da nagusi gaztelekuan. Gaur ikastaroa dute gazteek eta bihar eta etzi bertso-perkusio grabazioa egingo dute.

ATXORROTZ

Atxorrotz auzolanean txukuntzen dihardute. Asteon, bihar eta etzi ibiliko dira lanean, eta oraingoan ere boluntarioak behar dituzte.

Laguntzeko gertu daudenek nahikoa dute 09:30ean Atxorrotzen bertan agertzearekin.

LARGERU EGUNA

Bihar, zapatua, Llargero Eguna egingo dute Mendiolan. 11:00etan elizan elkartuko dira Llargero batzen hasteko; 14:00etan, bidean, bazkaltzeko atsedean hartuko dute; eta 18:00etan jolasak, luncha eta dantzaldia izango dira.

ARETO FUTBOLA

Bihar, etxeokak eta Adava Bar Atari lehiatuko dira, 17:00etan.

ORIENTAZIO ZIRKUITUAK

Etzi, orientazio zirkuituak egingo dira Garaiora. 10:00etarako egin dute hitzordua, plazan.

BIGARREN ESKUKO AZOKA

Etzi, bigarren eskuko azoka dago plazan, 11:30etik 14:00etara.

LENIZ
E S K O R I A T Z A



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Autodefentsa feminista tailerra egingo dute bihar

Udalak honelako tailer bat antolatzen duen lehen aldia da eta jendearen erantzuna ikusi nahi du

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Inguruko beste herri batzuetan duen arrakasta ikusita, Antzuolako Udalak autodefentsa feminista tailerra antolatu du lehen aldiz. Berdintasun Planaren barruan, hastapen modura, garatu da eta sentsibilizatzeko du helburu. Gisa horretako jarduerak nolako erantzuna duten ere jakin nahi dute. Oraingoan, harrera ona izan du; izan ere, adin askotariko 20 pertsona batuko dira Olanaren, 09:30etik 13:30era.

Bertarazten direnek indarkeriarekiko iritziak eta bizipenak konpartituko dituzte. Nagore Dos Santos Gizarre Ongizate zinegotziak azaldu duenez, emozioez berba egin eta indarkeria egoerak identifikatzeko ahaleginduko dira: "Guztontzako topagunea izatea da helburua. Beldurra ematen digunaren inguruan berba egin eta estrategiak garatuko ditugu,

indibidualki eta kolektiboki zer egin daitekeen aztertuko. Autodefentsa modura zer ulertzen dugun ere zehazten saiatuko gara".

Bilgune Feministaren eskutik

Bilgune Feministako ordezkariak emango dute biharko tailerra. Elkarrekin esperientzia zabala du mota horretako ekintzetan, eta egunerokotasunean emakume guztiak indarkeria jasaten dutela ondorioztatu dute.

Elkarteko ordezkarien esanetan, eraso sexista fisikoak dira publikoki gehien azaleratzen direnak, baina emakumeek indarkeria modu sotilagoan jasaten dute askotan.

Hori aztertuko dute taileraren zati batean. Kontzeptuak zehazten saiatuko dira, indarkeria eta autodefentsa, adibidez. Arlo experimentalak ere landuko dute, baina ez bakarrik eraso



Martxoaren 8ko ekitaldiekin batera, berdintasunerako aurtengo ekintzarik azpimarragarrienetakoa da tailerra. | GOIENA

fisikoari aurre egiteko erakutsi ohi diren teknikak ikasita. Izan ere, beste elementu batzuk ere garrantzitsuak izan daitezke emakumeen aurkako indarkeria saihesteko. Jarrera, ahotsa, begirada eta ondoren arlo fisikoak landuko dituzte".

Berdintasun Plana

Biharko tailerra Udaletik aspaldian garatzen ari diren Berdintasun Planaren barruan antolatu dute. Antzuolako Udalak Bideberri mankomunitatean lantzen

du plan hori, beraz, Leintz Gatzagako eta Elgetako udalekin elkarlanean ari da antzularren artean ere gizon eta emakumeek esku-bide berdina izan ditzaten.

Berdintasun Planaren barruan, ekintza batzuk elkarrekin garatzen dituzte hiru udalek, baina beste batzuetarako bakarka funtzionatzen dute. Kasu honetan, autodefentsa tailerra Antzuolako Udalak antolatu du.

Urtean zehar berdintasunaren aldeko antolatutako ekintzen artean hiru dira azpimarratzekoak

aurten: Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta antolatu zuen jardueraren programa, Indarkeriaren Aurkako Protokoloa eta biharko autodefentsa feminista tailerra.

Indarkeriaren Aurkako Protokoloari esker, Antzuolako Udalak zehaztuta dauka zer egin behar duen herrian emakumeen aurkako indarkeria kasuren bat salatzen bada. Udal moduan nola erantzun behar duen eta norekin jarri behar duen harremanetan zehazten du protokoloak.

Arrola mendizale elkarteak irteera egingo du ekainean Aralarrean

I.E. | ANTZUOLA

Mendizale antzularrek euren gustuko inguruneaz eta paisiaiaz gozatzeko aukera izango dute berriro ere ekainean. Izan ere, Arrola mendizale elkarteak mendi-irteera antolatu du hilaren 2rako Aralar mendizerrara.

Aralar inguruak aukera asko eskaintzen ditu, eta, ondorioz, elkarteak sei orduko ibilbidea prestatu du. Goiz abiatuko dira Antzuolatik; 08:30ean batuko dira Olanaren aurrean.

Izen-ematea

Duela aste batzuk zabaldu zuten irteeran parte hartzeko izen-ema-

tea Internet bidez. Horretarako, elkartearen posta elektronikora (arrolamt@gmail.com helbidera) idatzi behar da. Aurrez aurre egin nahi izanez gero, berriz, Arrolako ordezkariak astelehenean egongo dira mendizale elkarteak Olanaren etxean duen lokalean 19:00ak eta 20:00ak bitartean.

Irteera ordaindu egin behar da. Ohi bezala, Arrola mendizale elkarteak bazkideek gutxiago ordainduko dute: 8 euro. Bazkide ez diren helduek 10 euro ordaindu beharko dute eta gazteek, berriz, 8 euro.

Urteak pasa dira Arrola mendizale elkarteak azken aldiz Arrola



Arrolara egindako irteera. | ARROLA M.T.

rrera irteera antolatu zuenetik. Horrek ez du esan nahi, ordea, geldirik egon direnik, eta azkenaldian Mutrikun eta Arrola mendian ibili dira, bestek beste.

Baserri inguruneetako plastikoa bilduko dute martitzenean

I.E. | ANTZUOLA

Herriguneko hondakinak jasotzeaz gain, baserriko egunero lanetan sor daitezkeenak ere biltzen dira Antzuolan. Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak egiten du bilketa urtean zortzi aldiz eta martitzenean izango da hurrengoa. Baserriarrek ekarpen gunearen ondoan utzi beharko dute plastikoa.

Lau plastiko mota batuko dira: siloa estaltzeko eta belar boletan erabiltzen diren plastiko beltzak, berotegietan eta ortuetan lurra estaltzeko erabiltzen direnak eta berotegie-

tako plastiko zuria. Bolak biltzeko plastikozko sokak, berriz, ez dira jasoko.

Hurrengo bilketa uztailean

Plastikoen bilketa bi hilabete behin egiten ari dira udaberria ezkerreko. Martxoan egin zuten azken bilketa, eta, apirilko hutsunearen ostean, martitzenean egingo dute berriro. Hurrengoa, berriz, uztailean izango da.

Arratsaldean utzi behar dira plastikoa, eta, zehaztutako lekutik kanpo utzi nahi badira, 943 76 25 47 telefono zenbakira deitu behar da.

Elkarbizitza prozesuko bigarren bilera izango da martitzenean Olanaren

Lehenengo astean martxan jarritako elkarbizitza prozesu parte-hartzaileko bigarren bilera egingo dute martitzenean Olanaren etxean. Lehenengo bileran elkar ezagutu ostean, orduan ateratako gogoetak erabiliko dituzte elkarbizitzarako hainbat oinarri zehaztu eta balioak ezartzeko. Bilera 18:30ean izango da eta herritarrak parte hartzerako gonbidatu dituzte.

Jaietako lepo-zapiaren lehia egubakoitzera arte egongo da zabalik

Gero eta hurbilago daude herriko jaiak eta ordurako dena prestatzen ari dira dagoneko. Udalak jaietako lepo-zapiaren lehiaketa antolatu du eta egubakoitzean amaituko da lanak aurkezteko epea. Denak batuta, erakusketa egingo dute eta herritarrak izango dira lepoko zapiko irudia aukeratuko dutenak.

Elikadura eta AHT izango dira berbagai Iraunkortasun Astean

Gaztetxeak Iraunkortasun Astearekin jarraituko du. Martitzenean *AHTaren eragina Antzuolan. Gaztiok honen aurrian, zer?* hitzaldia izango da eta eguaztenean, *Gure lurra, gure etorkizuna* filma. Gazteek grebara deitu dute eguneko. Zapatuan amaituko da Iraunkortasun Astea, ibilaldi eta parrilladarekin.

Ipuin kontalaria eta txistulari-diana izango dira domekan herrian

Kultura ekitaldiak izango dira nagusi domekan Antzuolan. Goizean, 10:00etan, txistularien diana ibiliko da herriko kaleetan. Arratsaldean, berriz, Mar Ortega ipuin kontalaria, aktore eta pedagogoak *Cuentos marimundiales* ikuskizuna eskainiko du. Helduentzako ipuina da eta 19:00etan hasiko da, Torresoroan.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Energia hizpide, eta omenaldia argindar sarea eratu zutenei

Egun Aramaioko Argindar Banatzailea enpresa dena posible egin zutenen lana errekonozitu dute asteon

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Alaiak erretiratuen elkarteak energiaren gaineko hitzaldi interesgarria antolatu zuen martitzenerako kultura etxean. Urteko ekintzen barruan, Aramaioko erretiratuendako interesgarriak izan daitezkeen hitzaldi informatiboak antolatzen dituzte, eta, oraingoan, energia aukeratu dute. Krisi energetikoa bizi dugun garaiotan, Aramaion ere pil-pilean dagoen gaia da.

Batetik, Aramaioko argindar sarea izan zuten berba eta sare hori posible egin zuten udal korporazioko kideak omendu zituzten. Bestetik, Ramon Ajuria egungo alkateak biomasa proiektuaren gaineko argibideak ere eman zituen.

AAB zer den azaltzen

Hasteko, Aramaioko Argindar Banatzailea enpresaren gainean jardun zuten. Izan ere, antolatzaileen arabera, herritarrek badakite jakin enpresa bat dagoela energia eskaintzen diena baina, era berean, gehienendako ezezaguna da. 1988a ezker Aramaioko energia elektrikoaren horniduraren kudeaketaz arduratzen den Xabier Arriolabengoak hainbat xehetasun eman zituen. Aurretik, baina omenaldia egin zieten 1980ko hamarkadaren hasieran argindar sare hori Aramaion ezartzea posible egin zuten orduko udal korporazioko kideei. Arriolabengoak euren



1979 eta 1983 urteen arteko udal korporazioko kide batzuk, Julian Untzueta orduko diputatuarekin. | JOKIN BEREZIARTUA

ESANAK

"Euren lanagatik ez balitz, egungo argindar sarea ez litzateke posible izango"

XABIER ARRIOLABENGOA | AAB

"Alkate nintzela ni neu igotzen nintzen zutabeak konpontzera, kobratu gabe"

JULIAN UNTZUETA | DIPUTATUA (1979-1983)

"Omenaldi xumea egin gura izan diegu hau guztia posible egin zutenei"

RAMON AJURIA | ARAMAIOKO ALKATEA

lana goraiatu zuen: "Aramaioko Argindar Banatzailea ez litzateke existituko euren konpromiso barik. Euren lanagatik ez balitz ez litzateke posible izango".

Garai hartan egin zuten lana kontatu digu Arriolabengoak, Julian Untzueta orduko nekazaritza diputatuaren lana nabarmenduz: "Diputazioan mugitu zen guztia. Euren lortu zuten dirua eta sarea martxan jartzea". Untzueta ere harrapatu genuen eta orduko zutabe elektrikoaren egoeraz egin zigun berba. Ederto gogorazten ditu sare berria osatu aurretiko garaiak, alkate zenekoak: "Zutabeak jausi egiten ziren elurragatik-eta. Alkate nintzela, ni neu igotzen nintzen horiek konpontzera. Orduan ez nuen soldatarik, lan horiengatik ez nuen ezertxo ere kobratzen".

Bestalde, Ramon Ajuria biomassaren gaineko hitzaldia eskaini zuen. Proiektua nahiko aurreratu dago eta hainbat erakunde onartu dute proiektu hori aitzindari moduan. Horien artean daude Eusko Jaurlaritza, Arabako Diputazioa eta Energiaren Euskal Erakundea. Aurretik ere argindar sarearen gainean ere egin zuen berba Ajuria: "Orain unerik egokiena da enpresarendako, etorkizun ona dugu aurretik. Bide batez, omenaldi xume bat egin gura izan diegu hau guztia posible egin zutenei".

Antolatzaileak pozik

Amaieran, zalantzak argitzeko aukera egon zen. Alaiak elkarteak pozik daude hitzaldia oso interesgarria eta hizlarien maila ona izan zelako. Adierazi dutenez, pena bakarria izan zen jorrotutako gaiak hain interesgarriak eta garrantzitsuak izanda, jende gazterik ez zela egon apenas. Guztira, 30 bat lagun elkartu ziren, ia guztiak erretiratuak.



ARAMAIOKO HERRIRA

'Kanto' herriratzeko aldarria

Herrira mugimenduak deituta, hilaren 18an 15 bat aramaioar elkartu ziren Bizente Goikoetxea plazan hasi eta Arexolarainoko ibilbidean. Luis Mari Azkargorta Kanto izan zuten bereziki gogoan; besteak beste, gutunak idatzi zizkieten euskal preso aramaioarrari. Horrez gain, kanpai errepikak entzun, Iturrieta sagardotegian mokadutxo egin eta plazan amaitu zuten aldarrikapen eguna.

Eguzkierripa Rock bihar: Andra Mari ermita rock doinuz bustiko da

Eguraldi txarra iragarrita badago ere, bazkarian 65 bat lagun elkartuko dira, iaz batutako bikoitza

J.B. | ARAMAIO

Gazte Asanbladak antolatuta, badator Eguzkierripa Rock bosgarren urtez. Eguraldi txarra dago iragarrita baina orain arteko jendetsuena izango dela espero dute antolatzaileek. Izan ere, 65 bat lagunek eman dute izena Andra Mari ermitan egingo den bazkarirako: "Iaz erdiak-edo elkartu ginen. Eguraldi txarra egiten badu ere moldatuko gara", esan digu Jone Arriolabengoak.

Limitadua jokoan

Rock kontzertuez aparte, otxandiarren aurkako pikea nabarmendu beharra dago. Iaz Otxandion egin zuten eta orain Aramaion egitea tokatzen da. Joko ezberdinen bitartez erabakiko da norena izango den Limitadua urtebetez. Giro ona eta barre algarak bermatuta daude.

BIHARKO EGITARAUA

12:30 Bertso-poteo musikatua. Aramaioko bertako bost bertolarik hartuko dute parte.

14:30 Bazkaria Andra Marin. Txartelak salgai herriko tabernetan, 12 eurotan.

16:00 Limitadua jokoan: Aramaio eta Otxandion bako bako nor bako nor gehiago. Jolas ezberdinen bidez erabakiko da aurtengo irabazlea.

20:00 Kontzertuak: Gorroto, El Exterminio de la Raza del Mono, Dirty Brothers, Bertso Tabern, Runba Gerrilla eta Izargi.

Ekainaren 8ko Uema Eguna aurkeztu dute asteon Donostian

Aurten Aramaion egingo dute Uema Eguna, ekainaren 8an. Asteon aurkeztu dute egitaraua, Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean. Egun osorako denetarik ekitaldiak antolatu dituzte eta laster jarriko dituzte salgai herri bazkarirako txartelak, herriko tabernetan. Bestela, 94 627 91 95 telefonora deituta ere eros daitezke.

Kopako lider sendoa da Aramaio, hiru lehiak irabazi ostean

Azken jardunaldian Bar Copo taldea 6-1 menderatu ostean, sendo jarraitzen du Kopako lidergoan Aramaioko taldeak. Kopan jokaturako hiru partiduetan erraz irabazi dituzte eta Edorta Bolinaga ligaxkako goleatzaile nagusia da. Hurrengo partidua etzi jokatu dute Gasteizko Ibaiondo kantxan, 12:00etan.

ELGETA

OHARRAK

BISITA GIDATUA ELIZARA

Zapatuan, 12:00etan, elizako harribitxiak ezagutzeko bigarren eta azken bisita gidatua egingo dute. Prezioa bi euro da. Argibideak: 943 79 64 63.

IPIIN KONTALARIA

Zapatuan, 21:30ean, Maialde landetxean afaria eta Mar Ortegaren ipuin kontalari saioa. Prezioa 26 euro. Erreserbak: 943 789 107.

BIZARDUNAK

Berriak 10 urte bete dituela ospatzeko, zapatuan, 22:30ean, Bizardunak taldearen kontzertua Espaloian. Sarrera: hamar euro da, Berria bazkideendako bost euro.

BISITA LUBAKIETARA

Hileko azken domeka izanik bisita gidatua lubakietara 10:00etan abiatuta. Argibideak: 943 718 911 edo 943 796 463.

NAGUSIEN BAZKARIA

80 urtetik gorako elgetarrek zabalik dute ekainaren 7an egingo den bazkarirako izena emateko epea. Kontaktua Pedro Mari Ubera da.

UDALEKUAK 2013

Uztailaren 1etik 24ra egingo diren udalekuetan izena emateko epea zabalik dute udal-txean ekainaren 14ra arte.



Alizia Gartzia, Tomas Agote eta Ibai Larrañaga parte hartzeko dei egiten. | L.Z.

Sentsibilizazioa dute helburu domekan Mundumob jaialdiarekin

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Umeendako papiroflexia tailerra eta oskol-bilketa jokoa, eta helduendako konposta erakusketa eta bideo emanaldia antolatu ditu Elgeta Zero Zabor taldeak domekarako. Ekintzak 11:30ean hasiko dira plazan, eta jarraian, 12:30ean, Mundumob dantzaren grabaketa egingo dute. Gipuzkoa mailako ekimena da, eta dantza prestatzeko entseguak ere antolatu dituzte elgetarrendako. Gaur, gaztetxean elkartuko dira 18:00etan. Bihar, zapatua, 16:30ean, umeendako saioa egingo dute gimnasioan, eta 19:00etarako entsegu orokorra deitu dute plazan. "Aurreko urteetan Gipuzkoa Zero Zabor taldeak ekimen erral-

doi bakarria antolatu izan du; ideia, aurten, ekimen hori herri guztietara zabaltzea izan da", esan du Elgeta Zero Zabor taldeko Ibai Larrañagak.

Sentsibilizazioa helburu

Antolatzaileek azaldu dute ekimenaren helburua sentsibilizazioa dela: "Leloa da *Eman hartu nahi duzun mundua*, eta hori da domekako ekitaldiekin aldarrikatuko duguna", adierazi du Tomas Agotek. "Jendeak polemika handia eragin duten gaiekin lotzen du *zero zabor* filosofia; esaterako, atez atekoarekin. Baina uste okerra da hori. *Zero zabor* filosofia hori baino zabalagoa da, eta eza-gutzera eman nahi dugu".

LEINTZ GATZAGA

Zuhatzako uhartera joateko aukera, ur-kirolak eta beste egitera

Abuztuaren amaieran da irteera, baina izena maiatzaren 31 aurretik eman behar da, Labidean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Zuhatzako uhartera irteera antolatu du Gurel elkarteak. Asteburu pasa egin gura dute Arabako uharte hartan, abuztuaren 30ean aterata irailaren 1era bitartekoa. Eta egutegian hitzordua urrun ikusten den arren, orain apuntatu behar da norbere agendan, izan ere, izena emateko azkeneko eguna maiatzaren 31 da.

Labidea dendan hartuko dituzte izenak. Prezioa da nagusien-

dako 25 euro eta umeendako 15 euro, seinale moduan. Behin betiko zenbatekoa taldea sortu ostean zehaztuko dute. Jatorduek, ohe arropak eta bestelakoek zeresana izango dute-eta azken prezio horretan.

Nahiara Zubizarretak, Gurel elkarteko kideak esandakoaren arabera, izen guztiak hartu ostean, asmoa da taldearekin batzorra egitea eta xehetasun guztiak finantzatzea.

Erreserba egin beharra

"Urtero egiten dugun irteeretak bat da hauxe; iaz, adibidez, Gurlizen izan ginen. Orain arte eguraldiak ez du lagundu, eta horregatik ez dugu egin. Abuztu amaieran egitea erabaki dugu orain ikasleak azterketetan dudelako eta uztailean gurasoak lanean. Abuztu amaieran, berriz, guztiok gaude oporretan eta gehienak, bueltan. Horrez gainera, Zuhatza uharteak uretako kirolak praktikatzeko aukera eskaintzen du, hori gura dugu aprobetxatu eta jakina, horretan eguraldiak zeresan handia dauka. Eta izenematea horren goiz ipintzearen arrazoia da erreserba hartu beharra dagoelako", argitu du Zubizarretak.



Neska-mutikoak Zuhatzako uhartean. | GAZTIERAREN FORU ERAKUNDEA

Zabalik da udaberriko gazteleku zerbitzua; Udalak 19:00etan egingo du aurkezpen bilera gaztelekuan

Masaje eta sukaldaritza tailerrak, erretratu maratoia, bits festa, jolasak, irteerak Asentziora eta Sendavivara... zerbitzua gaur, barikua, ipiniko dute martxan eta bost asteburu luzatuko da. 2002. urtetik gora jaiotakoendako da, eta prezioa 38 euro —Sendavivarako irteera kanpo—. Gaur egingo dute aurkezpen bilera gaztelekuan; 19:00etan gazteekin, eta 20:00etan gurasoekin.

V. FRONTENIS TXAPELKETA

AURREKO ASTE BUKAERAKO EMATZAK

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Sergio Bouzas-Josu Arantzabal	25-14
Amaia Iribar-Luisan Alkorta / Idoia Sema-Asier Osoro	13-25
Maitena Mañarikua-Josu Mañarikua / Maria Irene Olabarria-Xanti Dosuna	atzeratua
Odei Zenitagoia-Fernando Zenitagoia / Ibon Untzetabarrenetxea-Eneko Ojanguren	25-21
Iban Retolaza-Xabier Ubera / Adrian Gorostiza-Asier Osoro	25-15
Rebeka Ubera-Xabier Ubera / Iratxe Bravo-Iker Lopez	25-12
Juan Carlos Gonzalez-Txema Cot / Etor Vallo-Ander Gorosabel	17-25
Eneko Maguregi-Andoni Elortza / Imanol Albisu-Julen Barrutia	25-12
Mikel Zubiaurre-Aitor Errarte / Xanti Dosuna-Oskar Sarasua	atzeratua

GAURKO PARTIDUAK, 20:00ETAN HASITA

Garbiñe Sarasketa-Benito Campos / Idoia Sema-Asier Osoro
Idoia Elkoro-Jesus Belamendia / Maria Irene Olabarria-Xanti Dosuna
Maider Osa-Anartz Agirre / Miren Zeziaga-Pello Larrea
Iban Retolaza-Xabier Ubera / Julen Barrutia-Imanol Albisu
Rebeka Ubera-Xabier Ubera / Maitena Mañarikua-Josu Mañarikua

ZAPATUKO PARTIDUAK, 16:00ETAN HASITA

Sergio Bouzas-Josu Arantzabal / Ibon Untzetabarrenetxea-Eneko Ojanguren
Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna
Mikel Zubiaurre-Aitor Errarte / Jon Ugarteburu-Josu Mañarikua

Jai batzordea osatzeko batzorra deitu dute gaurko, egubakoitza

Behin jai batzordea osatuta, asmoa da hamabostean behin-edo elkartzen segitzea

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Badago astia Gatzagako jaiak iritsi arte, baina kontuan hartuta abuztuko oporraldia dagoela tarteen, lanean hastea erabaki, eta gaurko, egubakoitza, lehen hitzordua egin dute jai batzordea osatzeko. 19:00etan, interesa duen edozeinek zabalik izango ditu udaletxeko ateak. "Helburua da ikustea ze ideia dauden jaietarako, eta mugitzen hasi. Iaz lehen aldiz antolatu genuen jai batzordea eta aurten berririo egingo dugu. Gonbita mota guztietako herritarrendako da, gazte zein nagusi", azaldu du Iñaki Agirreurreta zinegotziak. Hark emandako xehetasunen arabera, behin taldea

sortuta, asmoa da hamabostean behin-edo elkartzen segitzea, antolaketa bukatu arte.

10.000 euro jaietarako

"Oso zail daukagu kontua, 10.000 euro inguruko aurrekontua dugulako jaietarako, eta horrekin ezin izango da gauza handirik egin, baina... espero dugu, adibidez, otxandiarrak etorriko direla, erretiratuen bazkaria ere izango da jaien osteko asteburuan, Nobenaixua... ikusiko dugu. Orain, behintzat, hasi egingo gara", adierazi du Agirreurretak.

Aurten, irailaren 8a domeka da. Jaiak, beraz, egubakoitzetik domekara izango dira.

Herriko gaztetxoei zuzendutako film-emanaldia egingo dute Labidean, etzi domeka

Hileroko hitzorduarekin segituz, etzi, domeka, film-emanaldia egingo dute Labidea dendan. 17:30ean hasiko da saioa. Eta ordu horretan Labidean elkartzen diren neska-mutikoen eskaera eta beharren, eta antolatzaileek duten filmen eskaintzaren arabera, momentuan bertan erabakiko dute ze pelikula emango duten; "adin desberdinetakoak etortzen dira, eta alde aurretik ezin da jakin zelako taldea elkartuko den", adierazi dute Gureletik.

SASKIBALOIA

Oñatiko saskibaloiairen historian beste pauso bat ematera, Plasenciara

Gaurtik domekara arte Natra Oñatik igoera fasea jokatu du Extremaduran; LEB maila dute helburu

XABI URZELAI | ARRASATE

Asteburu hau da Oñatiko saskibaloiairendako inoizko garrantzitsuena. Esaldi potoloa da, seguruena, baina sinisteko zaila bada ere, oñatiarrak maila probintzialeko talde bat izatetik, urte gutxitan, LEB mailara igotzeko borroka egitera pasa dira. Eta hain zuzen, helburu hori lortzeko borrokatuko dira gaurtik hasi eta domekara arte, Plasencian.

Gaur (18:00) Estudiantes izango dute aurrean: "Ilusio berezia egiten dit euren kontra jokatzek, talde horretako zale naizelako", diosku Eneko Blancok, baina txarto datorkie fasea euren kontra hasia: "Joko erabat ezberdina dugu, talde gaztea da, azkarra, bat-bateko oso ona duena". Partidu hori ez da erabakigarria izango, baina dezente baldintzatu du fasea, eta ezingo lukete beste akatsik izan. "Zapatuan kataluniarrak izango ditugu aurrean, Hospitaletekoak, eta horiek bai, gure antzeko taldea dute. Esperientziaduna, joko motelagoaz. Baina, barne jokoa oso jokalaria onak dituzte, eta



Taldeko ordezkariak, eguazteneko azken lan-saioan; dena prest faseari ekiteko. | MIREIA BIKUÑA

gure barne jokoa dagokionez, albiste txarrak izan genituen joan den astean [De la Iglesiaren eta Cavadaren lesioekin].

Eta, Plasenciaren kontra jokatu dute domekan: "Ea zelan iristen garen bi taldeak partidu horretara. Berez gu izan gaitezke faborito, baina ligako azken partiduan 800 ikusle izan zituzten animatzen, eta fasean aurreikusiten da 1.000 izango dituztela".

Jarraipen zabala gurean

Igoera fasea urrun jokatu badute ere, asteburuan jarraipen zabala egingo zaio Natra Oñatiren igoera faseari. www.goiena.net atarian faseko partidu bakoitzaren informazio eguneratua izango duzue, eta Goiena paperak astelehenean bi orrikoa jasotzeaz batera, *Harmailatik* saioan (22:00) izango ditugu Iagoba Gamarra, Eneko Blanco eta Gorka Judez.

Gainera, taldeko prentsa arduradun Aratz Losada Goienarekin kolaboratzen izango da Plasencian; hala, igoera fasea barru-barrutik bizi ahal izango dugu astelehenean bertan. Losadak berak ere jarraipen zabala egingo dio faseari bere webgunean (www.ok-magazine.com), eta gaur bertan zortzi orriko gehigarria zintzilikatu du sarean, faseari buruz jakin beharreko guztiaz.

ENEKO BLANCO
ENTRENATZAILEA

"Goatzea da asmoa, eta gogor lehiatzea; ez goaz oporretara"

Autobusahartzeko ordu gutxiren faltan, entrenatzaile oñatiarrari igartzen zaio fasea geroago eta gertuago dagoela.

Ordu hauek izaten dira txarrenak.

Hilabete daramagu fasea prestatzen, eta bidaia hasteko deseatzten gaude. Beste kontrarioak orain arte egon dira liga jokatzeko. Ez dakit zer den hobe.

Prestaketa fasea garesti irten zaizue.

Bai, joan den asteko lagunartekoan Josean Cavadak eta Asier de la Iglesiak min hartu zutelako. Kantxan egoteko ahalegina egingo dute, han baloratuko dugu zelan dauden.

Zein da asmoa?

Urteko helburuak soberan bete ditugu, baina, hona iritsita, gogor lehiatzea goaz. Ez goaz oporretara.



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



19.500 €

> Renault Laguna G.T.

2012 | Diesela | 34.200 Km | Gris platinoa



RENAULT AUTOBERRI

San andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

IBILGAILU INDUSTRIALAREN HILABETEA

• Renault Espace	18.500 €
2011 Diesela 51.860 Km Beige	
• Renault Clio	9.500 €
2010 Diesela 22.500 Km Urdina	
• Ford Mondeo	6.500 €
2006 Diesela 125.460 Km Gris Platinoa	
• Renault Kangoo	10.800 €
2011 Diesela 19.340 Km Txuria	
• Renault Kangoo Furgoa	7.500 €
2011 Diesela 107.000 Km Txuria	
• Renault Megane	13.200 €
2011 Diesela 23.900 Km Gris Platinoa	
• Renault Latitude	18.500 €
2011 Diesela 15.780 Km Txuria	

Ibilgailu industrialetan aukera gehiago!

> CITROEN C3 eHdi EXCLUSIVE 90

- 2013
- Diesela
- 0 Km
- Rubi gorria

CHAPIME

CITROËN
Debagoieneko
kontzesionario ofiziala



15.750 €

San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

• Citroën C3 1.4i SX	4.300 €
2005 Berunik gabeko gasolina 92.500 Km Urdin argia	
• Citroën C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 2WD 150	30.000 €
2012 Diesela 500 Km Marroi iluna	
• Citroën C-Elysée 1.6Hdi Exclusive 90	14.000€
2012 Diesela 2.500 Km Urdin argia	
• Citroën Grand C4 Picasso Hdi EXCLUSIVE 112	21.500 €
2013 Diesela 750 Km Shark Grisa	
• Citroën DS3 eHdi STYLE 90	17.500 €
2013 Diesela 0 Km Shark grisa / Beltza	
• Citroën DS5 Hybrid4 Airdream Sport CMP	35.000 €
2012 Diesel eta elektrikoa 12.200 Km Zuri nakaratua	
• Citroën DS5 Hdi STYLE 160	29.000 €
2013 Diesel eta elektrikoa 200 Km Zuri nakaratua	

Debarroko finalera Bergara eta Arrasateko pilotariak

Deba eta Soralueko pilotarien aurka jokatu dute debagoiendarrek, zapatu arratsaldean

GUREN AUZMENDI | ARRASATE

Debarroko Pilota Txapelketako finalak zapatuan, hilaren 25ean, jokatu dira. Elgoibarko pilota taldeak antolatu du aurtengo edizioa eta hantxe izango dira partiduak; 16:30ean hasiko da lehenengoa.

Iritsi dira Debagoieneko eta Debarreneko pilota-txapelketako finalak; bertan izango dira Arrasateko eta Bergarako ordezkariak. Kadeteetan, Deba-koen aurka aritu beharko dute arrasatearrek, Josu Egiak, Josu Zezeagak eta Markel Moronek. Azken horrek dakien moduan jokatzeko badu, iaz lortutako garaipena errepika dezake. Gazteetan, Ander Aristi eta Dani Diez bergararrek jokatu dute; Soraluekoei egin beharko diete aurre. Nagusien mailan, Arrasateko pilotariak iritsi dira finalera, Haritz Zuzua eta Ibai Bolinaga; haiek ere soraluezatarrekin lehiatu beharko dute. Gure pilotariak bihar Elgoibarren izango dira, beraz. Ikusi egin beharko da nolako maila ematen duten eta, mailaz maila, zer emaitza lortzen duten.

Rezusta-Jaka txapeldunak

Beste alde batetik, astelehenean jokatu ziren Bergara Hiria lehiaketako finalak. Beñat Rezusta bergararrak helduen mailako txapela jantzi zuen Jakarekin batera. Yoldiren eta Tolosaren aurka aritu ziren eta erraz irabazi zieten, nagusitasunez: 22-8. Frontoian bildu zen jendetzak tanto luzeak ikusteko aukera izan zuen; aurrealdean joko azkarra eta atzelariak eusten. Rezustak partiduaren erritmoa ipini zuen, eta tanto politak egin; Jakarentzat izan zen jokalaria onenaren saria.

Gazteen mailako finalean, berriz, Altunak eta Ander Imazek Irribarriaren eta Xanet Imazen aurka jokatu zuten. Altuna aurrelari oso itxura ona eman zuen, jokatzeko oso modu freskoarekin, gainera. Aurkariei ez zieten aukerarik eman partiduan gora egiteko. Antolatzaileek aurtengo txapelketaren balorazio positiboa egin dute; jendearen erantzuna ona izan da. Merezitako atsedendiaren ostean, datorren urteko edizioari begira gogoz jarriko direla esan dute.



Korrikalariak iazko Zegama-Aizkorri lasterketan. | MIREN ARREGI

MENDI LASTERKETA

Bailarako korrikalariak prest daude aurtengo Zegama-Aizkorriko

Denera, Debagoieneko hogeita lasterkarik hartuko dute parte; hamabigarrenez egingo dute proba

G.A. | ARRASATE

Domekan, hilaren 26an, egingo da Zegama-Aizkorri mendi-maratoia. Aurtengo edizioan 521 korrikalari hartuko dute parte; horietatik 20 dira gure eskualdeko herrietakoak.

Domekakoa egun seinatuta da mendi-lasterketak gustuko

dituzten debagoiendarrentzat, Zegama-Aizkorri lasterketak aukera paregabea eskaintzen baitie maila goreneko proba batekin gozatzeko. Gainera, etxetik oso gertu izaten dute horretarako aukera; parte hartzen dutenek eta baita ikuskizunaz gozatzera doazenek ere. Sortzen duen ikus-

DEBAGOIENENKO KORRIKALARIAK

Arrasate:

- ▶ Aritz Kortabarria
- ▶ Josu Cascon
- ▶ Zigor Jimenez
- ▶ Mikel Navarro
- ▶ Luis Ruiz de Austri
- ▶ Ekaitz San Vicente

Bergara:

- ▶ Andoni Gomez
- ▶ Iñigo Olañeta.

Oñati:

- ▶ Lukene Igartua
- ▶ Pablo Arejolaleiba

Jokin Garai

- ▶ Imanol Larrea
- ▶ Josean Larrea
- ▶ Iban Letamendi
- ▶ Asier Urdanpilleta

Aretxabaleta:

- ▶ Igor Guenetxea

Eskoriatza:

- ▶ Aitor Aiala
- ▶ Iñaki Uribe-Etxeberria.
- ▶ Gaizka Zubizarreta

Elgeta:


- ▶ Oihana Kortazar

mina ez da edonolako: aurtun ibarreko 20 ordezkari izango ditugu lasterka. Goizeko bederatzietan hasiko da XII. nazioarteko maratoia.

Oihana Kortazar, irteeran

Azken bi urteetan lasterketa irabazi egin du elgetarrak eta domekan ere hantxe izango da. Iaz asko sufritu zuen eguraldi kaskarrekin, eta ikusteko dago balentria egiten duen, beste behin.

Ez hark bakarrik, mendian korrika ibiliko diren bailarako gainontzeko kirolariek ere gogotik bota beharko dute izerdia Zegaman emaitza ona lortzeko.



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.



Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETAKO

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO

KAFE MAKINA

NESCAFÉ Dolce Gusto Melody kafe makina dugu zozketatzeko!



Parte hartzeko

DolceGusto
BaserriSarea
Arrikruz
Bertikal
Mihiluze

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENeko BASERRI SAREAr esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



MIHILUZE

MIHILUZE joko irabaztea nahi?
Bi joko ditugu zozketatzeko.




BERTIKAL.COM

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako.
5 joko ditugu zozketatzeko.



DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KULTURA

Bergarako 'Peter Pan' berriro hegaz: Bilbora, Elorriora eta Donostiara orain

- ▶ Orain arte erakutsitako ikuskizuna egingo dute, baina hainbat berrikuntza ere eskainita
- ▶ Emanaldi gehiago egitea esfortzu handia da, baina handiagoa partaideek duten grina

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Pozik daude Bergarako Musika Eskolan, Gabonetan herrian arrakastaz estreinatu zuten *Peter Pan* musikala Euskal Herriko hainbat aretotan erakutsiko dute-eta. Elgetako Espaloian izan ziren otsailean; Bilbon, Elorrioren eta Donostian izango dira ekaina eta urria bitartean.

Estreinaldia bukatu ahala, konturatu ziren egindako ikuskizuna esportagarria zela eta aurrez egindako lanak merezi zuela ahalegin hori egitea; are gehiago, musikalaren inguruan batutako ikasle, irakasle eta gurasoak ere prest zeudela ikusita eta eskolak dituen diru beharrak oinarri hartuta. "Lan zailena proiektua martxan jartzea izaten da beti, errepikapenek ez dute horrenbesteko lanik ekartzen", dio Valen Moñuxek, musikaleko zuzendari artistikoak. Eta gaineratu du umeekin lan egitea abantaila dela eta duten ilusioarekin, segituan harrapatuko dutela berriz ere haria. Urrira bitartean, bospasei entsegu egingo dituzte Bergaran.

Oraingo, hiru tokitan

Hiru dira, oraingo, lotuta dituzten agertokiak; hala ere, ez dute baztertzeko beste hainbat lotzeko aukera. Dagoeneko jaso dituzte hainbat eskaera, nahiz eta aitortzen duten azpiegitura handia eskatzen duen ikuskizuna dela eta, ondorioz, *katxe* merkea ez duena. Era berean, Moñuxen esanetan, ez da batere samurra taularen gainean zein atzean dagoen 100 laguneko taldearen agendak egoki uztartzea: "Udako *boloak* lotzea ez da erraza izan, udalekuak eta oporrak tarteko daude-eta. Gurasoek horretan ere asko lagundu digute".

Ekainaren 15ean, Bilboko *Gau Zuria* egitarauaren barruan Euskalduna ondoan dagoen Itsas Museoan egingo dute lehenengoa. "Ez da ohiko emanaldia izango, 16 kanturekin osatutako laburpen bat baizik. Konpainia osoa joango garen arren, museoko bospasei gunetan banatuko gara aktoreak taldeka, bakoitzak musikalaren pintzelkada bat antzeztuta. Talde bakoitzak lau aldiz egingo du



Bergarako frontoian egin zuten *Peter Pan* musikalaren estreinaldia. | IMANOL SORIANO

MARIJE UGALDE | MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Peter Pan"-i esker egingo diegu aurre eskolako ohiko jarduera gastuei"

Eguneroko lan zerrendaz gainera, musikalak lagun askoren esfortzu handia eskatzen badu ere, Ugaldek ere ilusioa du *Peter Pan* Euskal Herrian zehar zabaltzeko.

Arrakasta lortzeko lan handia egin behar izan duzue askok.

Antolakuntzan lana da, bai; baina ingurukoek erakusten duten ilusioak asko laguntzen du guztia antolatzen. Estreinaldia bukatu ahala guraso eta ikasleek behin eta berriz galdetu izan didate ea ez dugun gehiagotan egingo.

Peter Pani eskolan aldarea jarriko diozuela diozu.

Horrela da, bai. [Barrez] Sekulako murrizketak izan ditugu Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dugun dirulaguntzetan, eta *Peter Pan* musikalarari esker ari gara ohiko jarduerako gastuei aurre egiten.

Ez zen hori, baina, hasierako helburua.

Ikasleei musikalean parte hartzeko aukera ematea zen hasieratik nahi genuena, eta, egia esan, proiektua sekulako ikasgaia izan



GOIENA

da guztiontzat. Orain, berriz, helburuak bestelakoak dira: egindako lana herritik kanpo ezagutzaraztea eta, bide batez, diru apur bat lortzea. Hala ere, ez da askorik ateratzen, musikala alde bate-tik bestera mugitzeak gastu handia dakar-eta. Gastuak estaltzea da lehentasuna.

Bergarako enbaxadore bihurtu zarete, neurri batean.

Guztioi esker, Bergarak, beste behin, lan artistikoagatik oihartzuna izango du. Eskerrik asko!

DATUA

5

IBILGAILU

Auto partikularrez gainera, bi autobus, kamioi bat eta bi furgoneta behar dituzte aktoreak, musikariak eta materiala garraiatzeko.

Euskarazko moldaketa

James M. Barrie eskoziarrak 1904an estreinatu zuen *Peter Pan* musikalaren euskarazko moldaketa da Bergarako Musika Eskolako 100 lagunek egindakoa.

Lan korala da hau, baina badira hainbat protagonista: besteak beste, Aitor Garitano (*Peter Pan*), Miren Gutierrez (*Wendy*), Karlos Etxaniz (*Darlin aita*), Valen Moñux (*Kako Oker...*).

dagokion zatia, 20:00etatik 00:00etara bitarteko ordubeteko saioetan. Zailtasun artistiko handirik ez duen arren, ondo koordinatzea da zailena", kontatu du Moñuxek. Orkestraren zuzeneko musikarekin beharrez, aurrez grabatutako soinuarekin egingo dute. Ez dute ia dekoraturik muntatu beharrik izango, paregabeak direlako museoak eskaintzen dituen aukerak. "Gustura izango gara hango itsasontzi, aingura eta bestelako itsas tresnen artean; eramango dugun dekoratu bakarria museo-ko auditorium dotorean muntatuko dugun Darlinen gela izango da".

Elorrioren izango da hurrengoa, uztailearen 7an, Bergarako Pikupe Ekoiztetxeak Musikaire jaialdiari egindako eskaintza onartuta. Moñuxen esanetan, horrek ere badu bergarrentzako berezitasuna, estreinakoz egingo dute-eta aire zabalean. Erroka bikoitza izango da, baina, antolatzaileek lehenengo aldiz aukeratu dute-eta musikal bat. "Plazan egingo dugu ikuskizun osoa orkestra eta dekoratu guztiekin. Niretako, Elorriokoa berezia da, asko miresten dudan herria da, kultura arloan egiten duten lan izugarriagatik", gaineratu du.

Donostiako Kursaalaren osteraren 26an izango dira eta bost orduko antzerki maratonia egingo dute, jarraian bi ordu eta erdiko bi emanaldi oso egingo dituzte-eta. Aurrez ezagutzen dute aretoa, laugarrenez izango dira-eta Kursaalaren Bergarakoak. Gustuko aretoa dela dio Moñuxek, eta teknikoki ezaugarri eta abantaila asko dituen: "Ohiko ikuskizuna egingo dugu, baina han dena politago ikusten da, ikaragarriak dira argiak eta aretoak duen akustika".

Sarrerak oraindik ez

Hiru emanaldietatik bi, Elorriokoa eta Bilboko, dohainik dira. Bilbokoan, baina, aurreko edizioetako datuak aintzat hartuta, ilara luzeak egoten direnez, Kako Oker kapitainari kukuka ibiltzeko eskatu diote ilarakoak entretentzen. Donostiako sarrerak ez dituzte oraindik salgai jarri.

Maite Toledo | Idazlea

"Liburu berri honetako poesiak gozamenetik daude sortuta"

Bakarkako bigarren poesia liburua argitaratu berri du eskarmentu handiko idazleak; 'glamour'–a oinarri duten 37 poesia batu ditu 'Hemen' bilduman

A. ARANBURUZABALA | ELGETA

Idazten eskarmentua du Elgetan bizi den Maite Toledo (1966) antzularrak. 2004an argitaratu zuen lehenengo lana; harrezkero, askotariko arloak jorratu ditu literatura eta kazetaritzan. Bakarka idatzi duen bigarren poesia liburua du *Hemen* (Beta) argitaratu berria.

Zergatik *Hemen*?

Olerkiak orainean daude idatzita, hemen *orain* da beti olerkietan. Hemen deiktikoa da, irakurlea olerkiaren leku eta unera lekualdatuko du.

Leku askotatik idatzi dituzu eta leku askotara eramango gaituzu.

Bai; *Hemen*-ek, besteak beste, itsasora, ozeanora, Etiopiara eramango gaitu; baina, eta batez ere, Sardiniara, liburuak ia olerki erdiak han idatzi nituen-eta, familiarekin iaz egin nuen bidaiaren batean.

Egin dezagun atzera... zergatik erabaki zenuen eta noiz hasi zinen *Hemen* idazten?

Etengabe nabil olerkiak idazten eta horretan nenbilen udaberrian Beta argitaletxetik liburua idazteko eskaera jaso nuenean. Enkarguaren ondorioz, nituen poesia batzuk batu eta beste berri batzuk sortuta, liburua atondu nuen. Aurrez banuen Beta argitaletxearekin harremana, bi lan argitaratuta nituen-eta haiekin.

Liburua eskuetan, azalari egingo diogu lehenengo begiratua.

Bai azalean eta bai barruan modarekin lotutako ilustrazioak daude. Liburua idazten ibili naizen bitartean, *glamour* hitzaren inguruan hausnartzen jardun dut. Normalean, zinemarekin eta dotoreziarekin lotzen dugu, baina, nire ustez, *glamour*-a haratago doan zerbait da. Idazten nenbilela, *glamour*-a artea dela konturatu nintzen eta arte horrek norberaren izaerarekin duela lotura: idazteko modu bat, estilo bat, besteak beste. Poesia-zerrenda osatu nuenean, ardatz moduan *glamour*-a izan nuela ikusita, moda diseinatzaile batzuegana jo nuen laguntza eske. Diseinatzaileek emandako irizpide eta aholku teknikoetatik sortu nituen azaleko eta barruko irudien zirriborroak. Argitaletxe-ko ilustratzaileak txikundu zituen gero liburuan jasotako irudiak. **Liburuan sartuta, mamitu ditzagun 37 poesiak batzen dituzten atalak.**



Maite Toledo idazlea. | MAITE TOLEDO

"Liburua idazten nenbilela, 'glamour' berbaz sakon hausnartu dut"

glamour-a artea dela konturatu nintzen eta arte horrek norberaren izaerarekin duela lotura: idazteko modu bat, estilo bat, besteak beste. Poesia-zerrenda osatu nuenean, ardatz moduan *glamour*-a izan nuela ikusita, moda diseinatzaile batzuegana jo nuen laguntza eske. Diseinatzaileek emandako irizpide eta aholku teknikoetatik sortu nituen azaleko eta barruko irudien zirriborroak. Argitaletxe-ko ilustratzaileak txikundu zituen gero liburuan jasotako irudiak. **Liburuan sartuta, mamitu ditzagun 37 poesiak batzen dituzten atalak.**

Liburua lau ataletan banatu dut; atal guztiek dute *glamour*-a oinarri, betiere, *glamour*-a norberaren izaera edo adierazteko kontzeptutik abiatuta.

Atalez atal azaltzera bagoaz, lehenengoari *Hilezkortasunera igaroa* izena jarri diot eta hor adierazten dudana da ez natorrela hutsetik, aurrez idatzitako *Jetlag* liburuari egiten diot, besteak beste, erreferentzia. Bigarren atala *Poesiak salbatuko gaitu* da eta hor, gaur eguneko gizarte gaiak jorratu ditut. *Zu zeu* da hurrengoa eta atal horretako olerkiek norberaren buruarekin fidela izatearen garrantziaz dihardute. Laugarrena *Nabigazioak* da; egunerokotasunean sortutako idatziak ekarri ditut.

Liburuari sarrera Sophia de Mello Breyner Andresen Portugalgo olerkariak ematen dio.

Orain dela hamar urte deskubritu nuen olerkari hura eta aspalditik nuen gordeta sarreran sartu dudana olerki hori, oso identifikatuta sentitu nintzen-eta. Laugarren atalari hark eman dio izena.

Olerkien gaiak azalduta, zer diozu olerkien ezaugarriez?

Poesia laburrak eta luzeak daude, nahiko ulerterrazak, nire ustez. Istorio laburrak modu sintetikoan kontatzen dituztenak. Plastikotasuna oso gustuko dut eta uste dut, gainera, irakurleak estimatu egiten duela idazkera hori. Nire poesia ez da barrokoa.

Nori gomendatuko diogu?

Publiko guztietara heltzeko moduko lerroarteak idatzi ditudala esango nuke; eta publikoak poesian hezten hasita dagoen ustea ere badut.



Kamio, Lizarralde, Muñoa eta Atxega taularen gainean izango dira. | LANKU

Musika, antzerki eta bertsoekin hausnarketa

'Ez gara Palestinaz ari': Muñoa eta Lizarralde bertsolarien barrenetara bidaiatzeko ikuskizuna

A. A. | OÑATI

Musika eta bertsoak antzerkiarekin eta poesiarekin tartekatzen dituen *Ez gara Palestinaz ari* ikuskizuna izango da Santa Ana aretoan gaur, egubakoitza, 22:30ean. Sarrerak 7 eurotan salduko dituzte, 22:00etan, leihtailan.

Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta du Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolariak eta Aitor Atxega eta Imanol Kamio musikariak protagonista izango dituen bertso saio bitxia.

Bertsoekin, barne bidai

Gehienetan, plazarik plaza, gai sozial eta politikoez jarduten duten Muñoak eta Lizarralde; oraingoan, barne mundurako bidai egitea proposatzen dute: "Gure minak, frustrazioak, orotzapenak, desioak, amorrak... kanporatzea dugu helburu nagusi, mezu argia helaraztearekin batera: hitz egin dezagun gutaz, ihesian ibili gabe eta adieraz gaitzean garen bezalakoak, gure bertute eta alde ilunekin", diote protagonistek.

Gitarra, akordeoia eta piano dira instrumentu nagusiak

eta bertso jarriak, berriz, doinu eta neurri ezberdinetan sortu eta kantatutakoak. Hainbat gai oinarri hartuta, hausnarketa sakonak egingo dituzte; besteak beste, berdintasunaren aldarriak indarra duen garaian, gizontasunaz jardungo dute; haurtzaroari arreta jarriko diote; egoaren gaineko etengabeko erreferentziak egingo dituzte, umorezko antzerki esketx zatien bitartez...

Bertsoz betetako saioa den arren, bertso saioa ez dela diote protagonistek eta bertsozale ez direnak ere erakarri gura dituzte giro goxoz eta energia positiboz bete nahi duten herriko Santa Ana aretora.

ESANAK

"Ez gatzazkio bertsozaleari bakarrik zuzentzen"

UNAI MUÑOA | BERTSOLARIA

Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure harkuntzan, Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarraitzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat erataria lagundu ahal diguzu: berriak emanez, albisteak idatziz, harpidetun edo bazkide eginez...

Gertu zaude?

Idatzi gertu@tokikom.com helbidera eta hitz egingo dugu!

Hirinet.net

Berton

Bilbo Hiria Irratia

Prest!

Uk

Ukberri.net

Aikor

Aikor.com

Anboto

Anboto.org

Goiena Papera

Goiena.net

Goiena telebista

Pil-pilean

Plaentxia.com

Barren

Elgoibarren.net

Baleike

Baleike.com

Erlo telebista

Uztarria

Uztarria.com

Goierri telebista

Galtzaundi

Galtzaundi.com

28 kanala

Karkara

Karkara.com

Antxeta irratia

Hernaniko Kronika

Kronika.net

Noaua!

Noaua.com

Txintxarri

Txintxarri.info

Alurri

Alurri.com

Ttipi-ttapa

Ttipi.net

Xaloe telebista

Mailope

Xorroxin Irratia

Guaixe

Guaixe.net

Beleixe Irratia

Euskal Herria Irratia

TOKIKOM

TOKIKO
KOMUNIKABIDEEN
BATERAGUNEA

Bizardunak taldearekin ospatuko dute 'Berria'-ren 10. urteurrena

Bihar eskainiko dute kontzertua Elgetako Espaloia Kafe Antzokian

IURE EIZAGIRRE | ELGETA

Hamar urte bete ziren otsailaren 23an Auzitegi Nazionalaren agindu batek *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuenetik. Hilabete barru beste hainbeste urte izango dira, herritarren babesarekin, *Berria* egunkaria sortu zutenetik.

Ospakizun garaia da, beraz. Eta egungo euskarazko prentsaren egoera samurra ez bada ere, Berria Taldeak urteurrena ospatzea erabaki du, urte hauetan jasotako laguntza eskertu nahi duelako.

Eskualdez eskualde, Euskal Herri osora zabaldu den kultura

bira egiten ari da horretarako. Debagoieneko hitzordua Elgetan izango da bihar, 22:30ean hasita. Bizardunak talde nafarrak kontzertua emango du Espaloia Kafe Antzokian.

Folka eta rocka lantzen dituen taldeak iaz kaleratutako azken diskoa aurkeztuko du, *Ur ederra kirats infinituan*.

'Berria'-ren bideoa

Kontzertuaren aurretik, egunkariari buruzko 15 minutuko bideoa emango dute. Kultura birako ekitaldi guztietan ari dira

ematen ikus-entzunezkoa eta *Berria* zer den azaltzen saiatu dira bertan. Ez, ordea, ohiko ikuspegiarekin, zerbait arina egiten saiatu direlako. Hedabidea osatzen duten esparru ezberdinetako pertsonen sentsazioak eta burutazioak ardatz hartuta erakutsi dute duela hamar urte sortutako egitasmoa. Sei-zortzi esketekin osatu dute bideoa eta irakurle, kolaboratzaile, kazetari zein Berrialagunek azaldu dute euren ikuspegia.

Juan Mari Larrarte egunkari-ko Gobernu Kontseiluko idaz-

karia Elgetako ekitaldian egongo da. Hark zuzenduko dizkie esker hitzak irakurleei *Berria* egunkariaren izenean.

Ekitaldiak eskualdeka

Irakurleak Euskal Herri osoan dituzten, kultura bira ahalik eta leku gehienetara eramaten saiatu dira, eta ia eskualde guztietan programatu dute zerbait.

Antolatzaileen esanetan, Debagoienekoa berezia izango da: batetik, gauean delako; eta bestetik, Bizardunak taldearen izaeragatik beragatik.

Eguna heldu aurretik, antolatzaileek eskerrak eman dizkio Espaloia Kafe Antzokiari, musu truk emandako laguntzagatik. Herritarrek ere gogoan izan dituzte, ekitaldi hori iragartzeko egindako ahaleginagatik. Behar izan duten guztietan laguntza jaso dutela azpimarratu dute.

Sarrerak poliki saldu dira

Duela aste batzuk jarri zituzten salgai Elgetako kontzerturako sarrerak. Kultura birako gainerako ekitaldietan bezala, 5 euro ordaindu beharko dituzte *Berria*-ko harpidedunek eta 10 euro gainerakoek. Egunkariak 10. urteurrena dela-eta informazioa emateko sortutako webgunean eta Espaloia Kafe Antzokian bertan eros daitezke sarrerak.

Salmentak poliki joan badira ere, Bizardunak taldeak ohiko giro alai jarriko du bihar gaueko kontzertuan.

'Erreleboa' antzezlan ikusteko aukera gaur gauean Eskoriatzan

GUREN AUZMENDI | ESKORIATZA

Erreleboa antzezlan ikusteko aukera izango da gaur Huheziko aretoan. Emanaldia gauean da, 22:30ean.

Joseba Usabiaga eta Iker Galartza aktoreak taularen gainean ikusteko aukera izango du hurbiltzen denak. Begoña Bilbaok zuzentzen du eta jatorrizko testua Ernesto Caballero madrildarra-

rena da, Galartzak berak moldatutakoa.

Lanean, Algecirasen soldadutzaren egiten ari diren bi euskaldun azaltzen dira: bata hara iritsi berria da eta bestea bukatzeaz dago. Soldadutzaren absurdoan topo eginda, eta gau bakarrean, herrimiaz, laguntasunaz, leialtasunaz... jardungo dute. Bost euro balio du sarrerak.



Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktoreak. | TXALO

Aurtengo Aretxabaletako Haurren Eguna domeka honetan izango da

G.A. | ARETXABALETA

Domekan, hilaren 26an, ospatuko dute aurtengo Aretxabaletako Haurren Eguna; umeek urtean zehar ikasi eta landu dituzten dantzak kalean erakutsiko dituzte. Guztira, 180 dantzari inguru bilduko dira Leizarra dantza-taldeak antolatutako egunean.

Txistularien goizeko kalejirarekin hasiko da aurtengo edizioa. Beste herrietako umeak 10:30ean iritsiko dira eta harrera egingo diete. Ezertan hasi aurretik, denek bildu eta hamarretakoa egingo dute eguna ganoraz hasiteko. Horren ostean, gogoz hasiko dira dantzan; herriko kaleetan ibiliko dira gora eta behera goiz

partean. Ordu batean plazan banatuko dira dantzariak, bazkaltzera joateko. 16:30ean denak elkartuko dira berriro, eta arratsaldeko dantza-saioarekin bukatuko dute eguna.

Aurten, sei talde

Leizarrako arduradunek esan dutenez, aurtengo Haurren Egunean bost dantza-talde etorriko dira: Aretxabaletako Leizarra, Arrasateko Lore gazteak eta Txikitxu, Oñatiko Oñatz eta Sorluzeko Urrats. Saiatu dira dantzariarentzat ez ezik, herritarrentzako ere egun ederra prestatzen. Dei egiten diete aretxabaletarrei kalera irten eta parte hartzera.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN
HASTEN DIREN AMETSAK.

“MU TELEBISTAN
PRAKTIKAK EGITEAK
LAN MUNDUA GERTUTIK
EZAGUTZEKO AUKERA
EMATEN DIT.”

Odei Esnaola, Ikus-Entzunezko
Komunikazioko 3.mailako ikaslea.



PREST

m

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Enpresagintza Fakultatea

BILBAO, Bilbao Lab · **MAIATZAK 25**
larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA · **MAIATZAK 25** larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien
Fakultatea-Basque Culinary Center

DONOSTIA · **MAIATZAK 25** larunbata, 10:30

Goi Eskola Poiliteknikoa
Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusia

ARRASATE · **EKAINAK 8** larunbata, 10:30

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest





Ane Egino, mendiaz gozaten.

ELENA EGINO

Ane Egino | Ingurumen Zientzietan lizentziaduna

"Irlandako Killarneyko parke nazionalean egoten gara egunero, boluntario, errodo dendroak kentzen"

JONE ALBENIZ | BERGARA

Ane Eginok (Bergara, 1989) naturarekiko interesa izan du betidanik. Duela bi urte Gasteizen Ingurumen Zientzietan lizentziatu ostean, gaur egun, beka bat lortu eta Irlandan dago praktikatzen. Killarneyko parke nazionalean dago boluntario, *Rhododendrum ponticum* espezie inbaditzailea eliminatzen.

Nondik datorkizu ingurumenarekiko interesa?
Betidanik gustatu izan zait mendira joatea, animaliak... Batez ere, horregatik animatu nintzen Ingurumen Zientziak ikastera.

Nolatan Irlandan? Zertan zabilta?
Karrera bukatu nuela jada ia 2 urte pasa dira eta ez nuen lanik topatzen Euskal Herrian. Beti gustatu izan zait bidaiatzea eta

hizkuntzak ikastea; beraz, atzerrian praktikak egiteko beka bat eskatu eta Irlandara etorri nintzen, aurreko urtean lagun bat bisitzaten egon nintzenez asko gustatu zitzaidan eta.

Killarneyko parke nazionalean nago boluntario, *Rhododendrum ponticum* espezie inbaditzailea eliminatzen. Momentuan, bost boluntario gaude: Belfasteko mutil bat, Dublingo beste bat, bi neska aleman eta bostok. Parkeko eremu desberdinetan egiten dugu lan, arazo larria diren errodo dendroak moztu eta berriro atera ez daitezela tratatzen.

Zertan datza lana?

Egunero parkean egoten gara 10:00etatik 16:00etara. Egun bakoitzean, tokatzen zaigun eremura joaten gara eta bertako errodo-

dendro guztiak eliminatzen ditugu: txikiak tirakada bidez edo artazi txikiekin eta handiagoak, *loper* izeneko artazi handi batzuekin edo aizkorarekin. Handiak direnean, herbizida bota behar zaie berriro atera ez daitezela, berriro ateratzen diren landareak indar handiagoarekin ateratzen baitira eta gero zailagoa delako haiek ezabatzea.

Zerk bultzatuta irten zinen Euskal Herrikan?

Egoerak. Karrera bukatu nuen eta ez nuen lanik topatzen Euskal Herrian. Momentu egokia iruditu zitzaidan kanpora joan eta ingelesa ikasteko. Nagusiago egiten zaren heinean, ardura gehiago dituzu eta zailagoa iruditzen zait kanpora joatea denboraldi baterako.

Desberdintasun handia dago Irlandaren eta Euskal Herriaren artean?

Klima antzekoa da, baina esango nuke Irlandakoa gogorragoa dela. Ni bizi naizen herria Irlandako herri euritsuena da. Ordugegi aldetik ezberdina da bizimodua: hemen oso goiz afaltzen dute, 18:00 aldean; eta pubak itxita daude 03:00rak baino lehen.

Ezberdintasun handia dago bertako eta hemengo jendearen artean?

Irlandarrak oso jatorrak dira, edozein taberna edo dendatan hasten dira zurekin hitz egiten. Guri gehiago kostatzen zaigu ezezagunekin hitz egitea. Oso bromazaleak dira, gainera.

Erronka?

Jendea naturaren garrantziaz jabetzea eta, behingoz, zaintzen hastea. AHT bezalako azpiegitura erraldoi eta alferrikakoak geldiaraztea gurako nuke.

Eta, jakina, egunen batean ingurumen arloan lan egin ahal izatea.

Zelan ikusten duzu gaur egungo gizartea?

Indibidualista eta materialista. Nor bere kontuez soilik arduratzen da eta bizitzaren helburua gauzak edukitzea besterik ez da.

Hiria ala landa eremua?

Bisitan joateko gustatzen zaizkit hiriak, ez bertan bizi izateko. Egia esan, gustura egon nintzen Gasteizen bizi izaten, bertan hirieta abantailak daudelako, baina herri bat bezala da aldi berean. Nahiago dut landa eremuan bizi, naturarekin kontaktuan.

Buruan bueltaka daukazu proiekturik bat?

Beti nahi izan dut Latinoamerikara bidaiatu luze bat egitea, denboraz, herrialde ezberdinak ezagutzeko.

Irlanderaz hitz bat?

Báisteach (euria).

PERTSONALA

Zure herriko txoko kuttunena: Goiko trenbidea.

Janari gustukoena: Txokolatzeko edozer.

Ahaztuko ez duzun momentu bat: Perun hiru hilabete pasa ostean, lagunak ongietorri sorpresa egin zidatenean.

Musika talde bat: Berri Txarrak.

Bizi izateko toki bat: Kuba.

Egingo zenukeen bidaiak: Latinoamerika zeharkatu.

Irlandako txoko maiteena: Killarneyko parke nazionala.

ASTEAGOIENAN



GOIENA

Huhezinema jaialdia ikusgai izango duzue

Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia antolatzen dute urtero Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatean. Aurten, seigarren urtez ospatu dute jaialdia eta horrek emandakoa ikusi ahal izango duzue Goiena telebistan martitzenean.

'Huhezinema'
Martitzena, 21:30



IMANOL GALLEGU

Bergarako jaien gaineko saio berezia

Pentekoste jaiak eman dutenaz gozatu ahal izango duzue gaur, egubakoitza, 22:30ean. Bitorianatxoren jaitsiera, bakailao lehiaketa, talo tailerra, koadrilen arteko jokoak, herri bazkaria eta herri kirolak izango dituzue ikusgai, Imanol Gallegoren eskutik.

'Bergarako jaiak'
Egubakoitza, 22:30

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 24

- 12:00 Planik bai?
- 12:20 Magazinea
- 13:05 Zorion Agurrak
- 13:10 Gurean gaur
- 13:40 Onein
- 14:08 Pedalka
- 14:38 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Planik bai?
- 15:33 AZK2012
- 16:03 Jaiak: Herri Urrats
- 16:38 Beranduegi.tv
- 17:08 Zorion Agurrak
- 17:14 Planik bai?
- 17:34 Berriak
- 17:59 Eguraldia
- 18:02 Planik bai?
- 18:22 Altxorren bila
- 18:54 Zorion Agurrak
- 19:00 28. Klip
- 19:32 Beranduegi.tv
- 19:57 Zorion Agurrak
- 20:02 Berriak
- 20:32 Eguraldia
- 20:37 Planik bai?
- 20:57 Gurean gaur
- 21:24 Pedalka
- 22:00 AsteON
- 22:30 Jaiak: Bergarako jaiak
- 23:15 Berriak
- 23:40 Eguraldia
- 23:43 AsteON

ZAPATUA, 25

- 10:00 Beranduegi.tv
- 10:25 Magazinea
- 11:25 Ikusmira: Bermeo hilabete eta gero
- 11:45 Klaketa
- 12:25 Onein: Begihandia
- 13:01 Jaiak: Bergarako jaiak
- 13:46 AsteON
- 14:46 Magazinea
- 15:46 Zorion agurrak
- 15:51 Onein: Patata txalupa
- 16:31 Pedalka
- 16:51 Harmailatik
- 17:18 Altxorren bila
- 17:48 Onein: Zainzuri pastela
- 18:16 Zorion agurrak
- 18:21 AZK2012
- 18:45 Magazinea
- 19:45 Planik bai?
- 20:05 Berriak
- 20:20 28 Klip
- 20:52 AsteON
- 21:28 Jaiak: Bergarako jaiak
- 22:13 Berriak
- 22:48 Pedalka
- 23:18 Magazinea
- 00:18 Berriak
- 00:33 AsteON
- 01:03 Euskal Herriko txistulariak

DOMEKA, 26

- 10:00 Magazinea
- 11:00 Zorion agurrak
- 11:05 Jaiak: Bergarako jaiak
- 11:50 Onein: Olagarroa plantxan
- 12:13 AZK2012
- 13:13 Hitzlandia
- 13:43 Onein: Zainzuri pastela
- 14:11 Magazinea
- 15:11 AsteON
- 15:46 Zorion agurrak
- 15:51 Jaiak: Bergarako jaiak
- 16:36 Pedalka
- 17:06 Planik bai?
- 17:26 Beranduegi.tv
- 17:50 Klaketa
- 18:30 Ikusmira: Bermeo hilabete eta gero
- 18:50 Magazinea
- 19:50 Berriak
- 20:05 Zorion agurrak
- 20:10 AsteON
- 20:40 Jaiak: Bergarako jaiak
- 21:25 Klaketa
- 22:05 Beranduegi.tv
- 22:30 Magazinea
- 23:30 AZK2012

ASTELEHENA, 27

- 12:00 Magazinea
- 13:00 Ekogune
- 13:30 Zorion agurrak
- 13:36 Pedalka
- 14:06 AsteON
- 14:45 Berriak
- 15:15 Eguraldia
- 15:18 Zorion agurrak
- 15:23 AZK2012
- 16:23 Pedalka
- 16:53 Zorion agurrak
- 16:58 Berriak
- 17:28 Eguraldia
- 17:31 Onein: Olagarroa plantxan
- 17:54 Berbetan: Iñaki Irigoien
- 18:24 Jaiak: Bergarako jaiak
- 19:14 Beranduegi.tv
- 19:39 Zorion agurrak
- 19:44 Berriak
- 20:09 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Gurean Gaur
- 21:30 Berriak
- 21:55 Eguraldia
- 21:57 Harmailatik
- 22:42 Magazinea
- 23:42 Berriak
- 00:07 Eguraldia

MARTITZENA, 28

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean Gaur
- 13:15 Zorion agurrak
- 13:22 Harmailatik
- 14:07 Ekogune
- 14:40 Zorion agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Harmailatik
- 15:53 Onein: Patata txalupa
- 16:33 AsteON
- 17:03 Zorion agurrak
- 17:08 Berriak
- 17:33 Eguraldia
- 17:36 AZK2012
- 18:06 Altxorren bila
- 18:38 Ikusmira: Bermeo hilabete eta gero
- 18:58 Harmailatik
- 19:43 Zorion agurrak
- 19:48 Berriak
- 20:13 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Gurean Gaur
- 21:30 Huhezinema
- 22:00 Berriak
- 22:25 Eguraldia
- 22:30 Magazinea
- 23:15 Klaketa
- 23:55 Berriak
- 00:20 Eguraldia

EGUAZTENA, 29

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean Gaur
- 13:18 Harmailatik
- 14:03 Pedalka
- 14:38 Zorion agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Klaketa
- 15:53 Onein: Begihandia
- 16:29 Harmailatik
- 17:14 Huhezinema
- 17:44 Zorion agurrak
- 17:49 Berriak
- 18:14 Eguraldia
- 18:16 Ikusi irratiak: Olarius&Brothers
- 18:56 Berbetan: Iñaki Irigoien
- 19:26 Beranduegi.tv
- 19:48 Zorion agurrak
- 19:52 Berriak
- 20:17 Eguraldia
- 20:20 Magazinea
- 21:05 Gurean Gaur
- 21:35 AsteON
- 22:05 Ekogune
- 22:35 Berriak
- 23:00 Eguraldia
- 23:02 Magazinea
- 23:47 Harmailatik
- 00:32 Berriak
- 00:57 Eguraldia
- 01:00 Magazinea

EGUENA, 30

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean Gaur
- 13:10 Huhezinema
- 13:40 Ikusi irratiak: Olarius&Brothers
- 14:20 Onein: Olagarroa plantxan
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Ikusi irratiak: Olarius&Brothers
- 15:53 AZK2012
- 16:23 Berriak
- 16:48 Eguraldia
- 16:51 Onein: Zainzuri pastela
- 17:19 Planik bai?
- 17:39 Hitzlandia
- 18:06 Huhezinema
- 18:36 Onein: Patorriloa
- 19:03 Zorion agurrak
- 19:08 Ikusmira: Bermeo hilabete eta gero
- 19:28 Planik bai?
- 19:48 Berriak
- 20:13 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:15 Gurean Gaur
- 21:50 Pedalka
- 22:20 Planik bai?
- 22:40 Berriak
- 23:05 Eguraldia
- 23:08 Magazinea
- 23:53 Klaketa
- 00:33 Berriak
- 00:58 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Zapatu eta domekan hainbat elkarrizketa dituzue entzungai

Arrasate Irratian asteen entzun ditugun hainbat elkarrizketa zapatu eta domekan entzun ahal izango dituzue 10:00etatik aurrera. Tartean, Maite Toledo Elgetan bizi den antzuolarrak idatzitako *Hemen* poesia liburuari buruz egingandako elkarrizketa entzun ahal izango duzue.

Mondraren partiduaren ondorengoak

Asteburuan Mondra futbol taldeak Aurrera taldearen kontrako partidu erabakigarria dauka. Bada, asteburuko partiduan gertatutakoen berri jasoko dugu asteleheneko *Igo autobusera!* irratsaioan. Partidu horrek uzten dituen ondorioei buruz ere hitz egingo dugu 107.7ko uhinetan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Egubakoitza, 24	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Zapatua, 25	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Domeka, 26	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Astelehena, 27	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
Martitzena, 28	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74
Eguaztena, 29	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguena, 30	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09

BERGARA

Egubakoitza, 24	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatua, 25	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Domeka, 26	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Astelehena, 27	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 28	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 29	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguena, 30	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15

ONATI

Egubakoitza, 24	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Zapatua, 25	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 26	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 27	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 28	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 29	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 30	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16

Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.altitria.es).

HILDAKOAK

Jose Urzelai Ondona. Arrasaten, maiatzaren 10ean. 74 urte.

Nerea Altube Arrese. Aretxabaletan, maiatzaren 17an. 34 urte.

Maxima Arrazola Beitia. Oñatin, maiatzaren 18an. 88 urte.

Mikel Illaramendi Zabaleta. Eskoriatzan, maiatzaren 18an, 46 urte.

Amia Mendikute Ibabe. Arrasaten, maiatzaren 18an. 53 urte.

Isabel Mugica Larrea. Bergaran, maiatzaren 22an. 80 urte.

URTEURRENA

Juan Ayastuy Agirre
'Kurtxe'



2012ko maiatzaren 25ean hil zen, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, maiatzaren 25ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

Berataratuko zaretanoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2013ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA

Mikel Illaramendi Zabaleta



Arizmendi Ikastolako gurasoa

2013ko maiatzaren 18an hil zen, 46 urte zituela.

Gure bihozmina adierazten diegu etxekoei.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz bailaran, 2013ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA



Mikel Illaramendi Zabaleta



Betiko gure bihotzetan, Txitxa!

Bas eta Bittor, Petti, Andoni eta Amaia, Liemi eta Patas, Josexto eta Ane, Antxon eta Axun, Aitor eta Idoia, Gorka eta Ana, Itziar, Jokin, Oihana eta gu guztion seme-alabak. Eskoriatzan, 2013ko maiatzaren 24an.



Trui eta Rosa

Trui eta Rosa orain dela 11 urte ezkondu ziren, maiatzaren 25ean. "Zorionak, amatxo eta aitatxo, zuen hamaikagarren urteurrenarenagatik! Muxu asko, loritz, Beñat eta familia guztia- ren partetik".



Mila eta Felix

Mila Egaña eta Felix Lizundia Antzuolan ezkondu ziren 1963-ko maiatzaren 22an. Zapatuan urrezko ezteiak ospatuko dituzte familia osoarekin. "Zorionak, ondo pasatu eta horrela jarraitu! Familiaren eta, bereziki, biloben partetik".



Blanca eta Mateo

Blanca Ezkurra eta Mateo Aranguren antzuolarrak 1963ko maiatzaren 25ean ezkondu ziren. Zapatuan urrezko ezteiak ospatuko dituzte. "Zorionak, senide guztien partetik, eta ondo pasatu".



Juanita eta Eugenio

Juanitak eta Eugenio 25 urte beteko dituzte elkarrekin. Domekan, maiatzaren 26an, ospatuko dute, 13:00etan meza entzunda eta ostean bazkaria eginda familiarekin batera. "Zorionak, bikote!".



Joseba eta Naiara

Joseba Villasante gasteiztarra eta Naiara Moral arrasatearra zapatuan ezkonduko dira. "Ondo pasatu eguna, familiaren eta lagunaren partetik. Zorionak!".

OROIGARRIA

Nerea Altube Arrese




Txingurritxuek maduen nahikue lan eginda gero ixil-ixilik joan zara gure albotik. Urbaltzeko lagunok ez zaitugu ahaztuko.

URBALTZ

Urbaltz Elkartea.
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA

Nerea Altube Arrese



Bihotz baten lekuan mila banituzke zuretzako maitia izango lirake *baina milan lekuan bat besterik ez det har zazu, ba, maitia bat hau mila bider.*

Ez zaitugu ahaztuko inoiz, Peñikako pixpiliña

Ainara, Ibon, Ainhoa, Iraia, Farshid, Eneritz, Oskar, Nora, Igotz, Arantzazu, Ekaitz eta Xabat.
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA

Amaia Mendikute Ibabe



2013ko maiatzaren 18an hil zen, 53 urte zituela.

Ziurlako AMT gazteok gogoan zaitugu.



Astokillo Motozale Taldea.
Arrasaten, 2013ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA

Nerea Altube Arrese



Zein ederrak haurtzaroko irri, jolas eta kontuak. Zein ederrak gerora zurekin emandako uneak. Zein ederra zure oraimen gaxoa, betiko gurekin gelatituko dena.

Arrese familia.
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA

Nerea Altube Arrese



llobentzako "Tia Nerea", ahizpek "Ume" gaitz-izena; gehientsuenean irribarrea ezpain ertzean zuena. Lagunen lagun-laguntzailea,

familiagatik: dena. Nahiz ta, itxuraz, ematen duen honek zerbaiten azkena, gure ahotik ezteu kendu nahi zure izan ta izena.

Alaitz, Eñaut, Manex, Monika, Martin eta Gorka.
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 24an.

ESKER ONA

Amaia Mendikute Ibabe



2013ko maiatzaren 18an hil zen, 53 urte zituela.

Gurasoak: Jesus (†) eta Kontxi; anai-arrebak: Alex eta Edurne Uribarren-Hurrieta, Rosabel eta Santi Dosuna, Idoia eta Eduardo Rua-Figueroa; ilobak: Mikel, Iune, Gillen, Manex eta Naroa; etxekoak: Larraitz eta Ion Larrañaga; lehengusu eta gainerako ahaideek:

Eskerrak eman nahi dizkizute hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkizuzuen guztioi.

Arrasaten, 2013ko maiatzaren 24an.

ESKER ONA

Nerea Altube Arrese



2013ko maiatzaren 17an hil zen, 34 urte zituela.


Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, lankideen izenean.

azk goisolutions

Arrasaten, 2013ko maiatzaren 24an.

ESKER ONA

Nerea Altube Arrese



2013ko maiatzaren 17an hil zen, 34 urte zituela.

Azken asteotan bizitako une latzetan gure alboan izan zaituztegun guztioi eskerrik asko, familia osoaren izenean. Animo mezuak bidali, besarkadak eman, otoitz egin eta, beste barik, isilean, gure alboan izan zareten guztioi, eskerrik asko, bihotz-bihotzetik.

Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 24an.

ESKER ONA

Isabel Mugica Larrea



Mariano Lasantaren alarguna

2013ko maiatzaren 22an hil zen, 80 urte zituela.

Isabelen familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak. Lerro hauen bidez, banaka egin ezin izanagatik, sendiarengana hitz lasaigarriekin hurbildu ziren guztiak eta hileta-elizkizunera agertu ziren denak eskertu nahi ditu.

Bergaran, 2013ko maiatzaren 24an.

ARRASATE Arrasate Musikalen 40. urteurrena

Arrasate Musikaleko taldeek kalejira eta kontzertuak eskainiko dituzte goiz partean. Ondoren, bazkaria izango dute Biteri plazan eta arratsaldean jokoak guraso eta umeendako (17:00), eta 19:30ean Arrasate Musikaleko bandaren emanaldia Herriko Plazan izango da.

Bihar, zapatua, herriko kaleetan, 12:00etan.



GOIENA



BILBAOVIVO

ARETXABALETA Fernando Valsega eta Exilio New Tango orkestra

La luna en el conventiyo ikuskizuna eskainiko dute Aretxabaletako Herriko Plazan Fernando Valsega eta Exilio New Tango orkestrak. Jaiki elkarteak eskainiko duen *Zortzikon* ikuskizunaren ondoren izango da (20:00etan, Duranan).

Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 20:30ean.

MUSIKA**BERGARA Ainara Legardonen eta Manetten kontzertua**

Egubakoitzak Kartzelan egitasmoaren barruan izango da emanaldia.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean 22:00etan.

ARRASATE Cabezafuego

Cabezafuego musikari ezagunak doako emanaldia eskainiko du Iluntz tabernan.

Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan 21:00etan.

OÑATI Drakes taldeak 10. urteurren kontzertua egingo du

10. urteurrena ospatuko du Drakes taldeak, eta oholtza gainean egingo du. Kontzertuan joko duten taldeak: Drakes, Basura, Sutura, eta Odio.

Bihar, zapatua, Gaztelekuan 21:30ean

ELGETA Bizardunak

Berriak 10 urte egin dituela ospatzeko. Sarrera: 5 euro, Berrialagunendako eta *Berria*-ko harpidedunentzako. Gainontzekoendako, 10 euro.

Bihar, zapatua, Espaloia kafe antzokian 22:30ean

OÑATI Cabezafuego

Atom Rhumba, Mermaid, Half Foot Outside, Jugos Lixiviados, Basque Country Pharaons, Royal Canal, Black Lagun eta Bizardunak taldeetan izan eta gero, Cabezafuegok bakarkako ibilbideari hasiera ematea erabaki du. Pako tabernan eskainiko du kontzertua, domekan.

Etzi, domeka, Pako tabernan 19:30ean.

ANTZERKIA**ESKORIATZA 'Erreleboa' antzezlan**

Iker Galartzak eta Joseba Usabiagak *Erreleboa* izeneko antzezlan eskainiko dute. Sarrerak 5 euro balio du.

Gaur, egubakoitza, Huzezi fakultatean 22:30ean.

IKUSKIZUNAK**OÑATI 'Ez gara Palestinaz ari' ikuskizuna**

Bertsoa, poesia eta musika uztartzen dituen ikuskizuna da. Oñatiko Bertso Eskolak antolatu du.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MAIATZAK 24
MAIATZAK 30

Unai Muñoz, Ander Lizarralde, Aitor Atxega eta Imanol Kamio izango dira oholtza gainean. Sarrera, 7 euro.

Gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian 22:30ean.

DANTZA**ARETXABALETA Dantza astea, egubakoitza**

18:00etan, musika, Durana kalean. 22:00etan, *Barbara II movimient*o dantza ikuskizuna, Iturrigorriin, Carla Fernandezekin.

Gaur, egubakoitza, Durana kalean 18:00etan, eta 22:00etan Iturrigorriin.

ARETXABALETA Dantza astea, zapatua

Jaiki elkarteak *Zortzikon* dantza ikuskizuna eskainiko du, Durana kalean.

Bihar, zapatua, Durana kalean 20:00etan.

ARETXABALETA Dantza astea, domeka

18:30ean, Jaiki elkartearen batbateko sorkuntza saioa, kuarter zaharrean.

Etzi, domeka, Kuarter zaharrean 18:30ean.

JAIK**OÑATI Araozko jaiak**

Zapatuan mus txapelketa (16:30ean), jolasak, auzo afaria eta bolo txapelketa izango dituzte; domekan, meza (11:00etan), salda eta herri kirolak.

Aste bukaeran, Araotzen.

OSPAKIZUNAK**OÑATI Urgain eskolaren jaiak**

Urgain eskolak antolatuta jaialdia egingo dute: xaboi eta kandela tailerrak, eskulan tailerrak, abentura tailerrak...

Bihar, zapatua, plazan, 17:00etan.

ARRASATE SUDC elkarteak antolatutako erretiratuen bazkaria

Urtero moduan, SUDC elkarteak erretiratuendako bazkaria antolatu du. Aurten 835 bat lagun elkartuko dira.

Bihar, zapatua, Musakolako kiroldegian 14:00etan.

ESKORIATZA Llargero Eguna

Llargero Eguna ospatuko dute Eskoriatzan. 11:30ean Mendiola-

ko eliza aurrean elkartuko dira largero batzeari ekiteko. 14:00etan, ogitartekoak jateko atsedendia. 18:00etan hurrendako jolasak, luntxa, musika eta dantzaldia izango dituzte.

Bihar, zapatua, Mendiolan 11:30ean.

ARRASATE 'Beste bat!' eguna

Hirugarrenez, *Beste bat!* eguna ospatuko dute Arrasateko St. Pauli zaleek. Goizean areto futbol partiduak jokatu dituzte, eta, bazkalostean, umeendako jolasak, argazki erraldoia eta musika kontzertuak izango dituzte.

Bihar, zapatua, Arrasaten 11:00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**ARETXABALETA 'Euskal Herria: Ezkutuko zorra' bideo emanaldia**

Ekologistak Martxan taldeko Kepa Olaizek ikus-entzunezkoaren ostean herritarrekin solasaldia gidatuko du.

Maiatzaren 27a, astelehena, Zariaia aretoan 19:00etan.

BERGARA 'Bergara 1936. Gerra eta erreprezioa' aurkezpena

Bergara 1936. Gerra eta errepre-

sioa DVDaren aurkezpena egingo dute Zabalotegin. Hilaren 25ean 19:00etan eta hilaren 26an 20:30ean.

Bihar, zapatua, Zabalotegin 19:00etan.

BERTSOLARITZA**ARAMAIO Bertso-poteoa**

Bertso-poteoa. Eguzkierripa Rock jaialdia. 12:30ean, goiko tabernetatik hasita. Bertsolariak: Beñat Burgi, Maria Izaga, Sabin Aranburu, Beñat Zalakain eta Paula Amilburu. Antolatzailea: Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada.

Bihar, zapatua, Goiko tabernan hasita 12:30ean.

UMEAK**ELGETA Udaberriko gazteleku zerbitzuaren aurkezpen bilera**

19:00etan gazteekin eta 20:00etan gurasoekin.

Gaur, egubakoitza, Gaztelekuan 19:00etan.

ERAKUSKETAK**ELGETA Argazki erakusketa: Atzegizaleak**

Ekainaren 16ra arte egongo da ikusgai argazki erakusketa Espaloian.

Maiatzaren 27a, astelehena, Espaloia kafe antzokian 16:00etan.

ARRASATE Arte azoka

Arrasate Margo Taldeko kideak Seber Altube plazan egongo dira goiz eta arratsaldean margotzen, euren lanak erakusten eta saltzen. Orduetgia: 10:30etik 14:00etara; eta 17:00etatik 20:00etara.

Bihar, zapatua, Seber Altube plazan 10:30ean.

BERGARA Bergara Hiria argazki lehiaketako lanen erakusketa

Maiatzaren 24tik ekainaren 9ra arte Aroztegi aretoan egongo dira ikusgai argazki lehiaketara aurkeztu dituzten lanak.

Gaur, egubakoitza, Aroztegin 20:00etan.

ARRASATE Emarock

Emarock. Iragana, oraina eta etorkizuna erakusketa hilaren 31ra arte egongo da ikusgai. Martitzenetik domekara, Kulturaten, 17:30etik 20:30era.



GOIENA

ARAMAIO Eguzkierripa Rock

Aramaio Gazte Asanbladak antolatuta egun osoko jaiak egingo dute. 12:30ean poteo animatua egingo dute eta 14:30ean bazkaria, Eguzkierripa auzoan. Iluntzean, Gorroto, El exterminio de la Raza del Mono, Dirty Brothers, Bertso Tabern, Rumba Gerri-lla eta Izargi taldeak.

Bihar, zapatua, Andra Mari ermitan, 12:30ean.



ARETXABALETA Haur Dantzarien Eguna

Dantza astea ospatzen dabilta Aretxabaletan; bada, ospakizun horien barruan, Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute domekan. Leizarra musika eskolak antolatu du eguna. Musika eta dantzak herriko txoko guztietan izango dira. Etzi, domeka, herriko kaleetan egun osoan.

GOIENA

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

Alacran enamorado
Zapatuan: 19:30, 22:00.
Domekan: 19:30.

Marmaduke (euskaraz)
Zapatuan eta domekan: 17:00.

Searching for a sugarman+ un dulce + la llave
Martitzean: 20:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

Bergara 1936
Zapatuan: 19:00.
Domekan: 20:30.

Nos quitaron todo
Eguaztena: 20:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

La gran boda
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30.
Domekan: 19:30, 22:30.
Astelehenean: 19:30.

EIBAR

COLISEO

Alacran enamorado
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

Ayer no termina nunca
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

COLISEO ANTZOKIA

Fast&Furious 6
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

El gran Gatsby
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:15.

Los croods
Egubakoitzean: 18:00.
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:50, 18:40.

Barbara
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:30, 22:30.
Domekan: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:00.

Objetivo: la casa Blanca
Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

El rio que era un hombre V.O.S.
Egubakoitzean eta zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekatik eguenera: 19:45.

Fast&Furious 6
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:15, 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:15, 20:00.

Chaika
Egubakoitzetik eguenera: 20:45.

El ejercicio del poder V.O.S.
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:45, 22:40.
Domekatik eguenera: 18:45.

Ali
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

La gran boda
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Domekan: 17:00, 18:45, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

La caza
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:00, 20:15, 22:30.
Domekan: 18:00, 20:15.

BOULEVARD

Fast&Furious 6
Egubakoitzean eta zapatuan: 19:30, 22:15.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45, 16:45.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 20:00, 21:10.

La venganza del hombre muerto
Egubakoitzetik domekara: 17:55, 20:10, 22:25.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:40.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:40.
Astelehenetik eguenera: 18:45, 21:00.

Hotel Transilvania
Zapatuan eta domekan: 17:30.

El gran Gatsby 3D
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 22:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Oblivion
Egubakoitzean: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatuan eta domekan: 19:30, 22:00, 0:30.
Astelehenetik eguenera: 18:50, 21:20.

ZINEMA

El gran Gatsby
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 21:10.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:10.

La mula
Egubakoitzetik domekara: 22:40.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:40.
Astelehenetik eguenera: 21:30.

Combustion
Egubakoitzetik domekara: 22:20.
Astelehenetik eguenera: 21:15.

Objetivo: la casa Blanca
Egubakoitzean: 18:00, 20:15, 22:30, 0:45.
Zapatuan eta domekan: 20:15, 22:30, 0:45.
Astelehenetik eguenera: 19:10, 21:35.

Iron Man 3
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguaztena: 18:30, 21:00.

Iron Man 3 3D
Egubakoitzean eta zapatuan: 0:25

Scary Movie
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 20:40.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:40.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

La gran boda
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 18:35.

Posecion infernal: Evil Dead
Zapatuan eta domekan: 15:30.

Buscando a Nemo 3D
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:00.

Los croods
Zapatuan eta domekan: 15:40, 17:45.

GORBEIA

Buscando a Nemo 3D
Egubakoitzetik domekara: 17:40.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 18:40.

Iron Man 3 3D
Egubakoitzetik domekara: 19:50.
Astelehenetik eguenera: 20:50.

Marea letal
Egubakoitzetik domekara: 22:20.
Zapatuan, baita: 0:40.

La estrella
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatuan, baita: 0:30.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45, 21:45.

Fast&Furious 6
Egubakoitzean: 19:30, 22:15.
Zapatuan eta domekan: 16:00, 18:45, 21:30, 0:15.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:10.

Los croods
Egubakoitzetik domekara: 18:10.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:10.
Astelehenetik eguenera: 18:45.

Scary Movie
Egubakoitzetik domekara: 20:10.
Astelehenetik eguenera: 20:45.

Oblivion
Egubakoitzetik domekara: 22:00.
Zapatuan, baita: 0:30.

Iron Man 3
Egubakoitzean: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatuan eta domekan: 19:20, 21:50, 0:20.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:30.

Combustion
Zapatuan eta domekan: 15:30.

Hotel Transilvania
Zapatuan eta domekan: 17:30.

Stoker
Egubakoitzean: 17:30, 19:30, 21:30.
Zapatuan eta domekan: 19:30, 21:30, 23:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 20:30.

Jack el cazagigantes
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:00.

Objetivo: la casa Blanca
Egubakoitzetik domekara: 17:50, 20:10, 22:30.
Zapatuan, baita: 0:50.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 18:50, 21:20.

El gran Gatsby
Egubakoitzean: 19:15, 22:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:40, 18:30, 21:20, 0:10.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:15.

Un amigo para Frank
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:15, 22:15.
Zapatuan, baita: 0:10.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 20:15, 22:00.

OÑATI Uliazpi zentroko argazkiak

Uliazpi zentroan dauden pertsonen argazkiekin erakusketa antolatu dute. Domekara arte egongo da zabalik.

Aste bukaeran, Kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

ANTZUOLA Autodefentsa feminista

Autodefentsa feminista oinarri duen tailerra. Izena emateko udaletxera jo behar da.

Bihar, zapatua, 09:30ean.

IKASTAROAK

ARETXABALETA Bat-bateko sorkuntza saioa

Jaiki elkarteak antolatuta bat-bateko sorkuntza saioak egingo dituzte hilabeteko azken domeketan kuartel zaharreen. Musika, dantza, antzerki edo arte ederren zaleendako saioak; ez da behar inolako eskarmenturik. Debalde da.

Etzi, domeka, Kuartel zaharreen 17:30ean.

ESKORIATZA Gurasoendako euskarazko jolasen ikastaroa

Denera, hiru saio izango dira; 25ekoa azkena da. Lehenengo biak gurasoei zuzenduta daude eta hirugarrena, gurasoei eta seme-alabei.

Bihar, zapatua, Manuel Muñoz kiroldegian 10:30ean.

BERGARA Ogia egiten ikasi

Metodorik zaharrena erabiliz ogia egiten ikasiko da, modurik naturalenean.

Bihar, zapatua, Angiozarko Pagomendi Elkartearen 09:30ean.

KIROLA

ESKORIATZA Orientazio zirkuituak

Mendi hilabetearen bueltan, Garaiora joango dira orientazio zirkuituak egitera.

Etzi, domeka, Plazan 10:00etan.

OÑATI Zegama-Aizkorri mendi maratonia

Aizkorriko mendi maratoia XII.a. Aurten ere munduko koparako puntuagarria izango da. Urbiatik pasatuko dira.

Etzi, domeka, Zegaman 09:00etan

AZOKA

ARETXABALETA Bigarren eskuko azoka

Herrirak antolatutako bigarren eskuko azoka.

Bihar, zapatua, Herriko Plazan 11:00etan.

BESTELAKOAK

ESKORIATZA Bigarren eskuko azoka

Bigarren eskuko azoka egingo dute osteraren herrian.

Etzi, domeka, Plazan 11:30ean.

ELGETA MunduMob Elgetan

Elgeta Zero Zabor taldeak Gipuzkoa Zero Zabor taldearekin batera antolatuta.

Etzi, domeka, Herriko Plazan 11:30ean.

ELGETA Ipuin kontalari saioa

Afaria eta Mar Ortega ipuin kontalari katalanaren saioa. Prezioa 26 euro. Erreserbak eta argibideak: 943 78 91 07.

Bihar, zapatua, Maialde landetxean 21:30ean.

ELGETA Bisita gidatua

Italiar estiloko XVI. mendeko Santiagoko erretaula. Prezioa 2 euro. Izena: info@tierraignaciana.com edo 943 79 64 63.

Bihar, zapatua, Elgetako parrokian 12:00etan.

BERGARA Koldo Eleizalde lehiaketako sari-ematea

12:00etan, Bergarako Udal Pilotalekuan.

Bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan 12:00etan.

ESKORIATZA Borroka arteak

Fibrosi kistikoaren ikerketa bul-tzatzearen aldeko borroka arteen jaialdia herrian.

Bihar, zapatua, Pilotalekuan 10:00etan.

DEIA

ANTZUOLA Hitzaldia: 'Lurren pribatizazioa'

Lurren pribatizazioaren inguruko hitzaldia Gaztetxean.

Maiatzaren 29a, eguaztena, Gaztetxean 18:00etan.

ANTZUOLA Hitzaldia: 'Azpiegituren eragina Antzuolan'

Azpiegituren inguruko hitzaldia Gaztetxean

Maiatzaren 28a, martitzena, Gaztetxean 18:00etan.

KRITIKA



EL IMPOSTOR ★★★★★

Zuzendaria: Bart Layton.

Herrialdea: Erresuma Batua.

Urtea: 2012.

Aktoreak: Adam O'Brian, Anna Ruben, Cathy Dresbach.

Iraupena: 99 minutu.

Errealitatearen eta fikzioaren artean

A skotan idatzi edo hitz egiten da fikzioari eta dokumentalari buruz edo errealitateari eta fikzioari buruz. Non dauden mugak, eta bata eta bestearen arteko loturak. Orain dugu gure pantailetan *El impostor* filma. Duela hamabost bat urte izandako gertaera harrigarri bat kontatzen dute. Fikziozko film baten agertuz gero, kosta egingo litzaziguke halako istorioa sinestea, eta egia dela jakin arren, ez da erraz ulertzen halako gertaera. Zuzendariak pertsonaien adierazpenak nahasten ditu, garai hartan jasotako materiala eta gertatutakoari buruz egindako berregitea. Ez da bakarrik dokumentala. Zuzendariak musikarekin,

muntaiarekin, jotzen du, intriga bat sortzeko eta datuak nahi duen neurrian emateko. Hala, *El impostor* lanak dokumentala baino gehiago fikziozko lana ematen du. Eta nahaste horretan datza filmaren erakarpena. Ez dakigu egindako ikerketa lanak egia argitu nahi duen edo inoiz argituko ez den kasu bati buruzko film bitxi bat den. *El Impostor*-en ikerketa eta ikuskizuna batzen dira. Argi ez dugu gauza handirik aterako, baina ondo jabetuko gara bizitzak duen alde harrigarriaz.

Duela 19 urte Ameriketako Estatu Batuetan 13 urteko mutil bat desagertu zen. Handik hiru urtera, Espainian agertuko da mutil bat, bestea baino helduagoa eta bestearekin antz

txikia duena, desagertutako mutikoa dela adieraziz. Mutikoaren familiak onartu egingo du hura dela desagertutako semea. Eta zentzugabekeria horretan nahastuko dira mutil gezurtia, desagertutako mutilaren familia, FBI, Interpol, ikerlari pribatu bat... Lotzeko hari asko daude, eta, filmean hari desberdinak erakusten zaizkigun arren, ez gara gertatutako egia helduko.

Lanean, errealitatearen eta fikzioaren arteko mugekin jolasten dute. Ez dugu gertatutakoa ezagutuko, baina suspentsearen alde magikoak harrapatuko gaitu.

ANTONIO ZABALA



goiena

2013-05-24

BUKATZEKO

Harri baldarraren xarma, San Telmon

- ▶ Arrasateko udaletxean orain arte egon den harri baldarra San Telmo museoan dago ikusgai
- ▶ Altxatzeko harri zaila da Arrasatekoa: historian zehar hiru harri-jasotzailek bakarrik lortu dute

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Harri-jasotze munduan bi mota-tako harriak daude: homologatuak eta baldarrak. Arrasaten azken horren eredu bat egon da urteetan zehar, udaletxeko eskaileretan, ikurrinaren eta herriko banderaren artean. Altxatzeko harri zaila, arrazoi ezberdinengatik: 215 kilo ditu, zilindro formakoa da eta ez dauka heldulekurik.

Arrasatek Donostiara

Arrasateko udaletxea utzita, Donostiako San Telmo museo-raino bidaiatu du harriak. Maiatzaren 10a ezker bertan dago irailaren 8ra bitartean ikusgai egongo den *Harrijasotzaile*. *Harriaren indarra* erakusketaren barruan. Kirol horren balioa aitortu eta aitzindari izan zirenak eta gaur egungoak omentzeko helburuarekin antolatutako erakusketa. Argazkiekin, ikus-entzunezkoekin, datu historikoekin eta harriekin dago osatuta.

Patxi Jauregi Harria-Herria elkarteko lehendakariak azaldu duenez, Arrasateko baldarra hiru pertsonak bakarrik altxatu dute gaurdaino: "Federazioko dokumentuetan jasota dagoenez, Inazio Otaegik, Iñaki Perurenak eta Juan Jose Unanue *Goenatxo*-k




Arrasateko harri baldarra San Telmo museoan. | MIREN VALVERDE

bakarrik lortu dute". Berezitasun horrek erakarri zuen Jauregi harria erakusketan txertatzera.

Orduan, Arrasateko Udalarekin ipini zen harremanetan. "Egin genion planteamenduarekin, interesatuta egon da lehenengo momentutik. Esango nuke lana-

ren alderik errazena izan zela hori, zailtasun nagusia 215 kiloko harria tokiz mugitzea izan baitzen. Horretarako, hiru lagun bertaratu ginen Arrasateraino, eta eskorga batean sartu eta poliki-poliki jaitsi genituen kaleraino eskailerak, kostata!".



Goenatxo, harriaz. | JOSEBA URRETAZIKAIKA

Santamas egunetan kalera

Arrasateko harriak inskripzio bat dauka: 1978ko abenduaren 22a. Santamas eguna. "Eta dakigunez, baldarra altxatzea lortu duten harri-jasotzaileek Santamas egunez altxatu zuten".

Ofizialki plazetan altxatzeko harria izan aurretik, baina, zutoin edo euskarri bezala erabili zen Arrasatekoa, Jauregiren esanetan. "Oso zaila zen zegoenetan altxatzea, eta markak egiteko-eta erabiltzen zen arrazoi horregatik". Errekorra Inazio Otaegik egin zuen, 1993ko Santamas egunean, sei bider altxatu zuen harria bost minutuan".

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



Lana eta plazera

Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna. Askotan esaten digute hori. Harrikoa egiteko orduan, adibidez. Ala azterketarako ikasi behar denean. Lehenbailehen egin, eta listo. Biharko uzten baduzu, berriz, segituan etorriko da sententzia: abixatu nizun.

Lanarekin lotzen dugu esaera hori. Betebehar astunekin beti. Eta presarekin. Ez utzi biharko. *Geroa, alferrenaren leloa*. Lanaren bertuteak goratzen dituen hainbat euskal esaera dago. Plazera-ri buruzkoak, berriz, urri. Eta negatiboak. Plazera ez dago ondo ikusita.

Ez utzi biharko eguzkia ezkatzen ikustea. Eguraldi honekin, auskalo noiz ikusiko duzun berriz! Ez utzi biharko lagunekin berrikeretan jardutea. Bi ardorekin txispateja. Gustuko zerbait jatea. Barre egitea. Umeen moduan jolastea. Berandu arte ohean egotea.

Lana eta plazera nahastea zergatik da txarra? Hori ere uste zabaldua da. Oscar Wilderen ustez, "lana zer eginik ez dutenen babeslekua da". Cantinflasek esana da: "Zerbait txarra izan behar du lanak, bestela honezkero aberatsak bereganatuko zuten". Zuk ikusiko duzu zer den gaur, biharko utzi gabe, egin dezakezuna. Abixatuta zaude.

R.P.S. Nº 148/10 I.L.G.

Konbinatu

GRADUATUAK +
EGUZKITAKO
GRADUATUAK

97€

* kontsulta itzazu zure zentroan konpainiaren oinarrizkoak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbaitu optikoetan